ETXEKALTE

HARKAITZ ZUBIRI

HARKAITZ ZUBIRI

Etxekalte

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Harkaitz Zubiri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko apirila
Edizio hau: 2012ko apirila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

LEHEN ZATIA

1
Josu

Badaki gaur jendea begira izango duela. Beti leku guztietara berandu iristen den arren, orain izara nahaspilatuen ertzean eserita dago, kalerako arropak jantzita, iratzargailuko zenbaki gorrietan 7:23. Eskuineko belaunari atximur egin dio hiru aldiz eta logelako aire itxia sakon arnastu du. Gaua sabaiari begira igaro ondoren, gose arrastorik ez, txiklea ahoan, mentazkoa. Ideia bat obsesiboki errepikatzen ari zaio: ezgauza, ezgauza, ezgauza, hori naiz ni. Sukaldera joan da ur hotza edatera. Harraskan utzi du edalontzia, azken hogeita lau orduetan garbitu ez dituen ontzien gainean.

Urratsa zuzen eginez abiatu da kanpora. Eskaileretatik ez, igogailuan, ispiluari bizkarra emanda. Kalean euria argitzen dute farolek. Negu gorriak ezustean harrapatu du larruzko kazadora meharra jantzita. Zain gelditu da berriro.

Patxadaz ailegatu eta bere parean gelditu da kolore metalizatuko kotxe handi bat. Atea irekitzen hasterako, euforiaz galdetu dio kotxeko gidariak:

– Zer moduz, Josu?

Eseri den arte ez dio erantzun:

– Atzo baino okerrago, bihar baino hobeto.

Gidariak irribarre erdi bat erakutsi dio eta, berehala, eguraldiaz, asteburuaz eta futbolaz aritu zaio, nahasian. Josu mutu dago. Kristalaren bestaldean esnatzen ari den Donostia artega nabari dezake. Gidariaren isilune bakarra baliatu du Josuk:

– Zer egin duzue gure aitari buruz eskatu nizunarekin?

– Esan nizun gai delikatua zela. Pauso guztiak tentu handiz eman behar ditugu.

Irratia piztu du gidariak, albistegia.

– Horrek zer esan nahi du, Zuriarrain, ez duzuela ezer egin?

Alberto Zuriarrainek irratia ozenagotu egin du.

– Dei iezadazu Alberto.

Irratiko albiste baten gainean hizketan hasi da Zuriarrain. Hirurogei lagun kaleratu behar omen dituzte Iruñerriko enpresa batetik eta, segidan, hariari jarrai-

tuko balio bezala, Josuren aitarekiko laguntasuna izan du hizpide.

Ospitaleko egunak etorri zaizkio gogora Josuri. Belaunari berriro atximur egin dio hiru aldiz. Leihoan dagoen lurruna eskuaz kenduta, periferiako auzo bat agertu da bestaldean. Berehala gelditu da kotxea. Atarian utzi du Josu. Zuriarrainek nahiago du beste ate batetik sartu. Josu eserlekutik altxatu ahala, mastekatzen ari zen txiklea itsatsi du eserlekuaren bazter batean, bostekoa eskaini dio gidariari eta eskerrak eman dizkio etxe atariraino bila etortzeagatik. Orain dela hilabete batzuk izan zuen herrena imitatuz irten da kotxetik.

Aparkalekuko putzuak zapalduz iritsi da atera. Beste aldean, aspaldi sentitu gabeko giroa: bulegoaren betiko zarata urduria. Ahal bezain arin eta herren zeharkatu du korridorea. Bizpahiru agur keinu egin behar izan ditu. Bere lan-mahaiaren atzean ezkutatu da, paper zutabe garaien artean, pantailaren atzean. Baina ordenagailua pizteko denborarik ere ez du izan, samaldan hurbildu baitzaizkio lankideak, doluminak ematera eta osasunari buruz galdetzera.

– Hobeto nago, mila esker –erantzun die denei, eta orain kaferik ez duela hartzen.

Telefonoa zarataka ari da etengabe. Josuk hartu egin du azkenean. Ibon K. da, Giza Baliabideen Saileko zuzendaria (Ibon Lemona deitzen den arren, Ibon K. izena jarri diote lankideek ezkutuan, arrazoi estraliterarioengatik). Zer ohorea, pentsatu du Josuk umore txarreko, berriro Ibon K. jaunaren bulegora joateko gonbita, hemen izan nintzen azken egunean bezala.

Josu Giza Baliabideetako zuzendariaren bulegora sartu denean, tranpa bat balitz bezala, Ibon K.k bostekoa erakutsi eta bi atzaparrez hartu dio eskua Josuri, izerditsu biak. Ibon K. Josuren aitari buruz hitz egiten hasi da: Anaitasuna S.A. enpresan eman zituen urte luzeak, zeinen langile saiatua zen, zenbat estimatzen zuen zuzendaritza osoak. Bitartean Josuri gogora etorri zaio bere aita zer-nolako miresmenez mintzatzen zen zuzendari nagusiari buruz. Pedro, halaxe deitzen zion, lagun mina balitz bezala; eta aitaren hiletan Pedrok, zuzendari nagusi jaunak, berdin hitz egin zuen bere enplegatu fidelaz. Aitzitik, Josuren ospitaleko oroitzapenetan isiltasuna da nagusi: lehenik aita gela hartan, garbitasun artifizialaren usain artean; gero semea ohean, morfinaren lozorroan.

Eten da Ibon K.ren diskurtsoa.

– Beraz, Josu, zer iruditzen zaizu?

– Barkaidazu, Ibon. Ez dizut azken zatia ulertu, nire belaunari buruz esan duzun hori.

– Ez dut ezer esan zure belaunari buruz.

– Zergatik?

– Zergatik zer?

– Ez al zaizu nire belauna interesatzen?

Kopeta belztu du Ibon K.k eta, automatikoki hasi duen diskurtso berrian, komunikazio arazoak izan ditu hizpide, baita pertsonen arteko harremanak ere. Buruz ikasitako esaldiak iruditu zaizkio Josuri, agian giza baliabideen kudeaketa ikastaroren batetik hartuak.

– Barkaidazu, Ibon. Presazko zeregin bat daukat.

– Egon. Lehenengo egunetik ondo hasteko, hobe dugu aitarena eta zurea gertatu aurretik izan zenituen arazo txiki haiek argitzea.

– Sentitzen dut. Berehala bueltatuko naiz –esanez zeharkatu du bulegoko atea.

– Aita ez zen horrelakoa –xuxurlatu du Ibon K.k, baina Josuk entzuteko moduan.

Herrenka ibiltzeko astirik gabe, komunera iritsi da. Eserita, lasaiago orain, grafitiak irakur ditzake atean, horien artean berak idatzi zuen bat, Ibon K.ren bulegoan izan zen azken egunean: Ibon K. 656696969 llá-

mame, barato. Eta gezi batez lotuta, beherago, letra urdin erraldoiez: Ibon K.abron. Mila aldiz irakurri ditu grafiti horiek. Orain ere ezin du aurkitu buruan bueltaka darabilen horretatik urrunduko duen ezer, eta ez du grafiti berri bat idazteko ideia freskorik. Ezin du aita burutik kendu: ospitaleko azken egonaldian lotsak erretzen zuen aita, eta Josuk bazekien arrazoia. Aita ez zen lotsatzen azkenerako zutik egon ezin zuelako, ezta besteek esan zezaketenagatik ere. Beste zerbait zen, eta aita konturatu zen Josuk bazekiela eta edozein unetan etorriko zitzaiola kontu eske: Eredu hori irakatsi nahi zenidan, aita? Ez zenuen esperoko ni ere zure zuloan erortzea, ezta?

Ispiluari begiratu gabe, uholdeka bota du ura aurpegira. Esna dago. Baina korridorera irten denean, ametsetan bezala eman ditu bizpahiru pauso. Ahots batek urratu dio aldartea. Bi muxu eman dizkio. Aspaldiko lurrin gozoa.

– Zergatik ez diezu nire telefono deiei erantzun?

– Egun on, Nora. Ba al zatoz nirekin kafea hartzera?

– Dagoeneko ez duzula hartzen esan dit jendeak, ez zarela gauza bost minutu zutik minik gabe egoteko.

Kafe makinara doa Nora. Josuk kalerako bidea iradoki dio. Eguraldi hezea eta haizetsua hezurretaraino sartu zaie. Korrika txikian iritsi dira hurbileko kafetegi batera. Bazter batean jarri nahi izan du Josuk, inor gertura ez dakien. Hasieran Josuren minei buruz hitz egin dute, baina mutu gelditu dira segituan. Josu deseroso dago. Galdetzen hasteko une egokia da.

– Zer gehiago esaten dute zurrumurruek?

– Bizikleta estatikotik erorita txikitu zenuela belauna.

Ezin izan diote irribarreari eutsi, baina berehala Josuri gaina hartu dio lehengo pentsamendu errepikakorrak: ezgauza, ezgauza, ezgauza.

– Zer gehiago?

Norak aterantz begiratu du, erantzunaren bilaedo. Argalago dagoela iruditu zaio Josuri.

– Azkenaldian zuen aitaren ospitaleko garaiei buruzkoak dira. Irudimen eta gezur eskasiarik ez daukagu. Entzun dut, adibidez, aitak hil aurreko egunean besarkatzeko eskatu zizula eta zuk ezetz erantzun zeniola.

Josuk paretaren kontra jarri du esku bat. Gorputz osoari horrela eusten diola dirudi, eta bitartean kikararen barruan murgildu du begirada.

– Josu, ondo zaude?

– Esamesek argitzen al dute zergatik hil zen gure aita?

– Nik dakidala, minbizia.

– Gai izango al zinateke zurrumurru bat zabaltzeko? Mamitsua den bat emango dizut.

Norak ez du zirkinik ere egin.

– Konta ezazu heriotzaren kausa ez dela oso naturala izan.

Sabelaldean orro bat entzun du Josuk.

– Kafesneak egin du bere lana. Oraintxe bueltatuko naiz.

Ate itxiaren ondotik pasatu da Josu, beste aldean ezer ez balego bezala. Gurasoen etxera, amaren etxea deitzen ikasi behar duen horretara, alegia, bisitan bakarrik joaten denetik ez da inoiz bere logelara sartzen, ezta alboan dagoen anaiaren logelara ere. Orain salara zuzenean itzuli da eta armairuak irekitzen jarraitu du, paperak ateratzen eta aztertzen, alfonbraren gainean barreiatzeko. Argazkien albumak alde batera baztertu nahi izan ditu, baina kuttunenari begiratua eman dio: argazki guztiak umetakoak dira,

anaia nagusia Josuri aurpegiko lokatza garbitzen, Loiolako kuartela atzean eguzkipean dagoela; baloia ahaztuta Josu anaiari ostikoa jotzen eta oihuka, orube abandonatu baten erdian, autopistaren zubi azpian ia; bi anaiak elkarri besarkatuta Groseko hondartza zaharrean. Eztarrian korapiloa sentitzean ekin dio bilaketari berriro, baina berehala eten behar izan du, kaleko txirrina jotzen ari baitira, etxea sutan balego bezala. Josu gogo txarrez joan da irekitzera. Ama da, musugorrituta. Sakelako telefonotik hizketan dihardu, ozen, algaraka. Etxera sartzeko giltzak kafetegi batean ahaztu dituela azaldu dio gero Josuri. Semeak inoiz baino alaiago ikusten du ama asteburuetan lagunekin, txandala jantzita ibai ondotik paseoan, zinemara joaten, mahai baten inguruan berriketan. Baina ama etxera sartu denean ez dago aldarte horren arrastorik.

– Zer gertatzen da hemen, Josu?

Amak salako anabasa du parez pare.

– Zuk, ama, ez duzu jakingo non dagoen aitaren karpeta berde lodikote bat, ezta?

Buelta erdia eman eta ama sukaldera abiatu da, Josu jarraika duela.

– Auskalo non dauden zuen aitaren gauzak.

Ama aldi berean hasi da Josuk harraskan utzi duen ontzi bat garbitzen, dilisten lapikoaren sua pizten, barazkiak hozkailutik ateratzen eta garbigailuko tiraderan xaboia eta leungarria isurtzen. Josu egongelara itzuli da miaketan jarraitzera. Berehala, amak bazkaria prest dagoela eta joateko esan dio ia oihuka. Sukaldeko leihoa irekita eta amaren masailak gorrituta ikusi dituenean, jertse baten bila joan da gurasoen logelara. Armairuan aitaren arropa txukun lisatuta eta hurrenkera perfektuan atondua dago. Ohe azpian bere etxeko zapatilak daude erdi agerian. Oraindik iratzargailu bana dago mesanotxe bakoitzean. Aita iluntzean bueltatuko dela dirudi, dutxatu eta ondoren amarekin paseo txiki bat egitera.

Jertse lodia jantzita sartu da Josu sukaldera.

– Armairua hustu beharko duzu, ezta?

– Ez da hain erraza.

Josuri beti iruditu izan zaio amarentzat aita jainko txiki bat dela, debozioa zor zaiona.

Tomate, tipulin eta letxuga entsalada jaten hasi direnean, lanerako buelta zer moduzkoa izan den galdetu dio amak Josuri. Semeak ia aitortu dio, gehiago hitz egin diotela aitari buruz bera zer moduz dagoen galdetu baino. Ez dela hain zaila izan erantzun dio

ordea. Josu ez da ausartzen bere enpleguari buruz amaren aurrean kexatzera. Umeak izateko fabrikako behargin lana utzi zuenetik, ama etxeko zeregin guztiez arduratu zen, eta senarrak aurretiazko erretiroa hartu zuenean, lan horiei gehitu zitzaien etxetik kanpoko lana. Orain, ogasuneko bi funtzionarioren etxea garbitzen du eta bi alabak zaintzen dizkie 900 euroren truke, kontraturik gabe.

Amak dilistez gainezka jarri du Josuren platera. Nabarmena da sutan denbora gutxi egon direla, salda loditu gabe dago eta.

– Non gorde dituzu aitaren gauzak?

– Beti egon diren lekuetan. Zertarako jakin nahi duzu? Ez zenuen beste burutazioren bat izango?

Josuk desafiozko begirada egin dio amari eta honek eutsi egin dio. Gauzak aldatu egin direla jabetu da Josu. Ama aldatu da gehien. Josu, ordea, ez da isilik gelditzen den horietakoa:

– Agian lehenengo aldia izango da, baina orain badakit zer egin behar dudan.

Patata frijituz inguratutako xerra mahai gainean du Josuk, dilistak bukatzerako. Amak ez du gehiago jango. Jogurt naturala bukatu du eta ontziak garbitzen ari da. Josuk, aldiz, ez du etsitzeko asmorik:

– Nahi baduzu, oraintxe lagunduko dizut aitaren arropa ateratzen.

Ontziak presaka garbitu eta logelara abiatu da ama, semea atzetik duela. Ama hasi da lanean. Aldamenetik Josuk harrituta begiratzen du armairu txiki horretatik ateratzen ari den arropa piloa: alkandora koadrodunak, pintzadun galtzaren bat eta bakero ugari, kirol denda merke horretako kamisetak, medikuak agindu arren inoiz erabili ez zituen bi txandal; eta armairuaren goiko zatian plastikozko poltsetan bilduta daude auskalo zer ezkontzatara eraman zuen trajea, larunbat gaueko sukarrak inspiratuta agian, eta artilezko jertse urdin ilun pare bat, mahoizko galtzak eta danborradarako sukaldari jantzi zuria. Amak azkenerako utzi nahi dituela ikusita, Josuk ireki ditu tiraderak: bertan agertu dira galtzontzilo klasikoak, molde zaharreko galtzerdiak eta barruko kamiseta zuriak, eta, haien artean, karpeta berde lodi bat, bazterretatik egunkariko orriak eta Din A4 folioak agerian dituela. Josuk eskuaz kolpe bortitz bat jo dio armairuko ateari. Amaren aurpegian zimur bat ere ez da mugitu.

– Badakizu zuen aitak nahiago zuela zenbait kontu beretzat bakarrik gordetzea.

– Bazeukan zertaz lotsatu, azkenaldian bereziki.

– Hitz erdirik ere ez dizut onartuko zuen aitaren kontra.

– Aldarea eraikitzen lagunduko dizute bulegoko batzuek.

Begiak itxi eta sakon hartu du arnasa amak.

– Ez al zara konturatu, Josu, zuen aita ez dela agertuko zu berriro putzutik ateratzera?

– Banoa hemendik. Bestela, esan behar ez dizkizudanak ere esango dizkizut.

Amak semearen izena ozen ahoskatu du.

– Begira ezazu zure ingurura.

Ohea garai bateko jaka eta jertsez lepo dago, alfonbran plastikozko poltsak, galtzontziloak eta galtzerdiak daude, mesanotxeetan kamisetak, aulkian arropek osatzen duten zirimola.

– Logela nik jasoko dut, baina ez ditut zuen aitaren lanak hartuko zuk bazterrak nahasten dituzun bakoitzean. Azken bi urte hauek gogorregiak izan dira.

Josuk bi eskuekin gogor heldu dio karpeta berdeari, paper eta poltsaz gainezka dagoen sala zeharkatu du, eta atea itxi gabe irten da etxetik.

2
Herrera eta Etxebe

Bien artekoa berriro ondo balego bezala esnatu da eguna. Izerditan oraindik, Herrerak izaren goxotasunean hartu du babes. Kanpoan euria astintzen du haizeak, barruan berogailuaren epela dago, eta abesti baten lehen notak, Riders on the Storm. Laranja zuku freskoak borobildu du igande goiza. Etxebek ekarri dio, kafesnearekin eta tostadekin batera.

– Berriro lo hartuko dut agian –xuxurlatu du Etxebek ohean etzaten ari den bitartean, Herreraren gorputzaren kontra.

Astiro doa denbora. Ohe gainean dago une honetan Herrerak behar duen guztia. Gosaltzen bukatu duenean, Etxeberen ondoan etzan da. Space Oddity abestia ari dira entzuten, espazioan galtzen den astronautarena, bere mundutik urrun.

Bafleak isildu direnean, Herrerak lepo aldean marra berde bakarra duen pijama beltz-beltza jantzi du eta jaiki egin da ordenagailuan musika berria auke-

ratzera. Pantailaren bazter batean *Etxebe* izena duen karpeta ikusi duelarik, gosariarengatik esker onez, haren gustuko talderen bat jartzea pentsatu du Herrerak, baina karpeta ireki duenean, inoiz entzun gabeko izenak besterik ez ditu aurkitu eta, zalantza handiz, *Kokolo* izena daramana abiarazi du. Bafleetatik Etxeberen ahotsa entzun da: “Galdera errazak dira, zu lasai”. Herrerak larrituta klikatu du beste dokumentu bat, *Retard* izeneko bat, eta berriro ahots bera: “Otsailak hogeita sei, arratsaldeko laurak, lehenengo solairuko bilera gelan gaude”. Ordurako Etxebek hartu du ordenagailuaren kontrola eta berehala isiltasuna egin da logelan, harik eta Etxeberen demandak urratu duen arte:

– Badakizu ezin duzula hau entzun. Ez dute beste munduko ezer esaten, baina beti ziurtatzen diet isilpekoa dela.

– Musika zela uste nuen. Barkatu.

Parez pare daude, desafinatutako bi instrumentu bezala, nor bere pijaman bilduta: Herrerak obsesiboki janzten ditu arropa beltzak, berdez edo gorriz edo laranjaz zipriztinduta ia beti, eta pijama ere halakoxea da; Etxebe, berriz, etengabe saiatzen da kolore biziko arropak konbinatzen, baina inoiz ez du argi izaten ko-

lore horiek noiz ezkontzen diren ondo eta noiz ez, eta, Herrerak kostata aitortu arabera, Etxebek ondorioztatu du orain jantzita daraman pijamak lixiba eta pailazoak konbinatzen dituen iragarki baterako egokia dirudiela.

Etxebek gosariko trasteleria hartu du eta sukaldera joan da. Herrera urduri dago berriro. Logela itogarria egin zaionez, leihoa ireki du. Aurpegia zipriztindu dio euriak, giroa arnasberritzen hasi da.

– Zertan ari zara? –galdetu dio Etxebek sukaldetik bueltan.

Leihoak itxi eta pertsiana jaitsi du. Argi artifizialak itxuraldatu egin du logela.

– Beroak ihes egingo du bestela.

Azken unera arte zain egoten dira. Gaur berriro egin dute. Bulegoko bere mahaiaren aurrean, munduan beste ezer ez balego bezala pasatu du Etxebek eguna elkarrizketak irakurtzen eta paperaren bazterrean oharrak idazten, azken txostenerako. Goizeko zortzietatik arratsaldeko seietara egin duen lanarekin pozik, etxera joateko jaiki denean, Ibon K. agertu zaio, Giza Baliabideen Saileko arduraduna, presaka doanaren

itxurak egiten, zuzendariaren bulegoan bilera dutela jakinarazteko. Etxebe pasilloan barrena eskutik helduta eramatea baino ez zaio falta izan Ibon K.ri, Etxebe galtza urdin biziak eta alkandora horia eta grisa jantzita, Ibon K. traje gris estandarizatu batean sartuta.

– Zer gertatzen da ba? –galdetu dio Etxebek, larritu egin baita, zuzendari nagusiak inoiz ez baitu agurtu ere egin, eta bera bezalako hasiberriei sailetako arduradunen bitartez heltzen baitzaizkie aginduak.

Erantzuteko astirik gabe sartu dira Pedro Tolosa zuzendariaren bulegoan. Bizkarrean hazka egiten aurkitu dute. Etxebe eta Ibon K. ikusi dituenean, aulkitik altxa gabe, bizkarraldeko lanak amaitu ezinik, aulki banatan esertzera gonbidatu ditu.

– Esadazu: zer moduz doaz elkarrizketak?

– Denetariko iritziak biltzen ari naiz. Txosten polita gelditukо da.

– Jendeak kontatzen al ditu bere gauzak?

– Batzuekin zailagoa izaten da, baina zertarako den konturatzen direnean, luze eta zabal hitz egiteko prest egoten dira gehienak. Elkarrizketak lan orduetan izateak lagunduko du ziur aski –esan du Etxebek.

Zuzendaria irribarrea erakusten ahalegindu da. Ibon K.k lortu du, trebatuagoa baitago.

– Lehen Iboni esan diodan bezala, txosten horrek beranduenera lau astetan bukatuta egon behar du. Badakizu enpresaren egoera ez dela aproposena eta pausoak eman beharko ditugula. Zure txosten horrek lagundu egingo digu.

Ibon K.ren hitzen zain gelditu da Etxebe, baina hark, jaikitzeko batere asmorik gabe, keinu batez kanporanzko bidea seinalatu dio Etxeberi. Zuzendariak, bizkarraldeko zereginetan berriro, Ibon K.ri begira, telefonoa hartu du eskuetan.

– Dei bat egin behar dut.

Bi enplegatuak pasillora irten direnean, Etxebek ezin izan dio galderari eutsi:

– Arazoren bat sortu al da orain presaka ibiltzeko? Txostena amaitzeko oraindik beste lau hilabete nituela esan zenidaten.

– Pentsatzen dut proba gisa sartu nahi zaituela estutasunetan, praktika aldia bukatzen zaizunean enpresan jarraitzea eskaini edo ez erabakitzeko.

Etxera abiatu aurretik, Etxebe bere mahaitik pasa da eta paper mendi bat sartu du zorroan, ohera joan baino lehenago irakurtzen jarraitu ahal izateko.

Bidebietako dorreei begira gelditu da. Garbi eta hotz dago zerua, Herrera beltzez doa goitik behera (kamisetaren lepo aldetik sorbaldara doan marra berde soil bat salbu). Lehen horrelako dorreetan egiten zuen lan. Orain Herrera zorrotz saiatzen ari da erlijio soilik fisiko baten antza duen diziplinari lotzen: esnatu, paseoa, enkontrua, igerilekua, gimnasioa... Etxebe ez da ia plan horietan sartzen. Herrerak ezin izaten du konbentzitu kalerako, ezta lagunekin egoteko ere, ez batzuenekin ez besteenekin. Ez du etxetik irteteko asmorik eta, ateratzekotan, inor topatuko ez duten nonbaitera eta denbora epe jakin baterako. Herrera etsituta dago Etxeberen kontrol beharrarekin: muga bitxiak ezartzen dizkio bere buruari, bere bizitzan zer egin berak erabakitzen duen irudipena izateko asmoz, ez dezan sentitu bizitzak eraman egiten duela.

Herreraren gaurko lorpena, biak elkarrekin Etxeberen aitaren etxera afaltzera joatea izan da, etxetik ateratzeko behinik behin. Etxeberen aitak eta haren bikoteak, Margak, adeitsu hartu dituzte, eta mahai gainean kroketak, urdaiazpikoa, zainzuriak, patata tortilla, jateko eman nahi dietenaren aurrekari.

– Gaizki elikatuta ikusten gaituzue? –esan du Etxebek euforia arraro batekin.

Lepo afaldu dute.

Marga isila da. Herrera mutu dago. Etxebe eta bere aita nahikoa dira elkarrizketak hitzez gainezka egin dezan. Margak konplizitatez begiratzen dio Herrerari.

– Igo al dizute soldata? –itaundu du aitak, Herrerak aldiro espero duen galdera.

– Oraindik ez, elkarrizketen lantxoa bukatzen dudanean. Orduan egingo didate kontratu iraunkorra. Baina moldatzen naiz, hala ere. Ez dut askoz gehiago behar, benetan.

Margak Herrerari begiratu dio berriro. Ordaintzen ari diren hipoteka mailegua du gogoan Herrerak, Egia auzoan 320.000 euroko etxe txikia eta 15.000 euroko kotxea, eta ospatzeko nola joan ziren Lasarteko jatetxe hartara (bankutik ezkondu gara, esaten zuten pozez zoratzen), eta orain dauzkaten diru sarrerak, eta korapiloa egin zaio sabelaldean, eta dzanga edan du ardotik.

– Aurrekoan ez nizun ondo ulertu zer egin behar duzun elkarrizketen kontu horrekin.

– Motibazio plana deitzen diote. Modan dagoen gauza horietako bat da. Enplegatuak elkarrizketatzen ari naiz, jendea gusturago egoteko zer egin daitekeen ikusteko, eta enpresa horretara molda dadin. Badakit gero aholkuei ez dietela kasurik egingo, baina behintzat txosten batean idatzita gelditukо da.

– Soldata igotzearekin poztuko da jendea –esan du aitak.

– Gauza gehiago ere egin daitezke.

Margak aipatu du berak lan egiten duen enpresan ere antzeko zerbait egiten ari direla, eta hortxe bukatu da gaia. Janaria ez, ordea: bakailao ajoarrieroa eta postrerako gazta tarta, euskal gauzari buruzko berriketa amaigabeaz hornituta. Berandutu denean, Etxebe eta bere aita sukaldera joan dira tuperrak betetzera. Halako batean, bien arteko elkarrizketaren haria eten egin du aitak:

– Bihar bertan sei mila euro sartuko dizkizuet kontu korrontean. Egoera egonkortzen zaizuen bitartean, erabili lasai.

Margak eta Herrerak argi entzun dute egongelatik.

– Benetan eskertzen dizut, aita, baina ez ditugu beharko.

Herrerak izkin egin dio Margaren begiradari.

Makinatik kafea hartzeko zain ilaran dagoen batek disimulurik gabe aztertu du Etxebe goitik behera. Gaur ere ez nuen konbinazioarekin asmatuko, pentsatu du Etxebek, jantzita daramatzan poloa eta kazadora koloretsuak disimuluz aztertzen dituen bitartean. Ezezaguna, ilara utzita, zuzen-zuzen hurbildu zaio.

– Unibertsitatean irakasgai batzuetan elkarrekin egon ginen gelan, ezta?

Etxebek, ez dela akordatzen erantzutearekin bat, kafea eskuan duten lankidez inguratutako aretoari begiratu panoramikoa eman dio, solasaldi hasi berriaren testuinguruaz kezkatuta.

– Hamar urte baino gehiago izango dira, baina fisikoki ez zara hainbeste aldatu –jarraitu du ezezagunak–. Gogoratzen dut gelan etengabe parte hartzen zenuela eta irakaslearekin oso kritikoa zinela.

– Gaztetxoak ginen orduan.

– Kalean ere ibiltzen zinen...

– Joango al gara tabernara kafea lasaiago hartzera?

Enpresa honetan dagoenetik Etxebek estreinakoz egin dio gonbita norbaiti. Arriskutsua bihurtzen ari

zela iruditu zaion egoera honetatik ateratzeko ez zaio ihesbide hoberik bururatu. Ezezagunak pozez hartu du proposamena. Tabernan, oroitzapenen emaria agorrezina dela esango luke Etxebek, bulegora itzultzeko asmorik ez duela ezezagunak, eta bai, zalantzarik ez dago gelakideak izan zirela, baina Etxebek orain ordenagailuaren aurrean eseri eta txostena idazten jarraitzeko irrika besterik ez du sentitzen, eta unibertsitate garaiko kontu horiek betirako isilarazteko, bulego honetan inori interesatu behar ez litzaizkiokeelako, sasoi hartan izan zena jadanik ez delako. Orduko kemena bai, nahi luke, baina beste helburu batzuetarako, gaur egun helduagoak iruditzen zaizkionetarako. Sotilago jokatzen ikasi du behintzat. Hitz egiten duenean, adibidez, nabarmen ez gelditzen.

– Nitaz akordatzen ez bazara, neure burua aurkeztu beharko dut: Josu naiz.

– Niri Etxebe deitzen didate.

– Hori ez nuen gogoratzen.

Etxeberi asko kosta zaio Josurekikoak amaitzea, honek lanera bueltatzeko gogorik ez duela dirudielako, baina azkenean Etxebe itzuli da bere mahaira. Pantailari begirik kendu gabe pasa du arratsaldea, ze-

regina betetzen ari denaren plazeraz; behar zuen dosia odolean barna dabilkio.

Afalorduan iritsi da etxera. Sofan topatu du Herrera, telebistak anestesiatuta. Egunean zehar aparteko ezer ez zaiela gertatu kontatu diote elkarri. Etxebek ozpinduta nabaritu du Herrera eta, eztabaidarik ez sortzeko asmoz, ez dio ia hitzik egin. Etxebek, bere kautarako, Herrerarekiko harremanaren eguneroko balantze azkarra egin du: zorte handia daukagu, gorabehera arruntak bai, baina ederki doa dena.

Berehala joan dira ohera, baina Etxebek ezin du lo egin. Unibertsitate garaiak etorri zaizkio gogora, eta ez malenkoniaz. Ez zaio gustatu Josu delako horren jite berritsua. Beste zerbaitetan pentsatzen ahalegindu da. Begiak bildu ezinik, sabaia beltz, zuzendariarentzako txostena buruz idazten aritu da.

Iratzargailuan goizeko ordu biak dira Herrera ohetik isilka irten denean. Bi minutu ere ez dira pasatu Etxebek, gaueko isiltasuna asaldatuz, kaleko atea ixten entzun duen arte.

Arnasari eutsi dio. Itolarria sentitzen du, baina baita hutsune sakon bat ere sabelaren erdian, eta lasaitasu-

naren antza duen zerbait ere bai. Nabarmenegi geratu aurretik utzi behar izan die birikei aire berria hartzen, ama eta aita jabetu baino lehenago. Herrerak badaki kezkatuta begiratzen diotela. Urrun sentitzen ditu, jator eta borondate oneko. Beraiena beste mundu bat da ordea. Ez duzue nire egoera ezagutzen, esango lieke Herrerak; Herrera jauna, Herrera andrea, ezin duzue ulertu nik gauzak nola ikusten ditudan eta ez dizuet ezer leporatzen hala ere, gehienetan ez, nerabezaroa gainditu nuenetik ez behintzat, baina Herrerak badaki aitak edo amak bere kolkorako pentsatuko luketela Ume honek zer daki ba gutaz?, eta, hala ere, ez lioketela hitzez adieraziko. Eta oraindik ume txiki bat dela iruditzen zaio Herrerari, gurasoak nahigabetzeko beldur den kakanarrua. Beraz, Herrerak isilik egotea erabaki du, eta hitz egin behar badu, gurasoen parametroetan erosoa izan daitekeena bakarrik esatea.

– Ondo al zaude orain?

Orain?, pentsatu du Herrerak; zer ari zara gogoratzen, ama? Bat-batean bere burua ikusi du egongelaren erdian, zorrotz beltzez jantzita, besaulkiaren kontra, eta parean gurasoak, semea inguratuta baleukate bezala.

– Ondo, bai –erantzun die Herrerak.

Etxebe etorri zaio burura (oso ondo, oso ondo, oso ondo): iratzargailu bat dirudi, auskalo zer beldurretatik esnatzeko, etengabe errepikatzen dio bere buruari: zer zortea dudan, zeinen ondo nagoen. Agian lokatza belaunetaraino ez sentitzeko. Lanean zer moduz galdetzen dionean, Etxebek arinkeriak bakarrik kontatzen dizkio, edo zoragarri atera zaizkion egitasmo txiki-txikien berri ematen dio. Oso ondo, oso ondo, oso ondo. Nekagarria da Herrerarentzat, hainbeste ezen orain Herrera ari baita hori egiten gurasoen aurrean. Lehen dena kontatzen zien. Ikasi du ez dela egokia, hobe dela isiltasuna.

Arnasari eutsi dio, ia ito arte, eta ezerez horrek baretasuna besterik ez dio ematen. Amaren hizketa hotsa entzuten du, baina ez du ezer sentitzen. Aitaren begirada ez ikustea nekezagoa zaio: azkazalaz urratu du hatz lodiaren ertza; likido hori odola da. Zauria sakontzen jarraitu du.

– Berriro hasi al zara?

– Zertan, ama?

Aita mutu, ama salto batean abiatu da Herrerarengana. Eskuak heldu dizkionean, amaren eskuak odol

pixka batez zikindu dira. Amak zakar altxa dio kamiseta bizkarraldetik. Aitari begira esan du:

– Gutxienez ez dauka zauri arrastorik.

Zuek erotu egin zarete, kexatuko litzateke gustura Herrera, nahiz eta gezurra dela jakin. Baina dizipli-naz gogorarazi dio bere buruari: Ez, Herrera, ez hitz egin, antzeztu, izan egokia, eta gero egin nahi duzuna.

– Joan beharra daukat. Deituko dizuet bihar.

Igogailuan birikak inoiz baino gehiago uzkurtu zaizkio, oxigenorik ez, harik eta atea ireki den arte. Kalean kotxe saldoen ondoan arnasberritu da. Zaratak eta mugimenduak lasaitu egiten dute. Ezer ez pentsatzeko ahalegina eginez iritsi da helmugara. Atezain automatikoan erantzunik jaso gabe ireki diote atea, eta laugarren solairuan ere halaxe. Zain duen lagunak itzulingururik gabe eraman du logelara. Institutu amaierari buruz hitz egiten dion bitartean utzi ditu arropak lurrera erortzen. Haren gorputz ia nerabearen aurrean, Herrerak uste du lilura sentitu behar lukeela. Parean dudan hau ez da Etxebe, pentsatu du Herrerak; gorputz biluzi honek aldizkari bateko azalerako balioko luke. Baina enkontru hauetan ere Herrera ez da lehen bezala pizten eta ez du ulertzen zergatik. Ba-

daki bisita hauek errutina besterik ez direla jadanik, eta, hala ere, nahiago du atea zeharkatu eta ohiturari jarraitu, batez ere orain, heldulekurik gabe gelditzen ari den garai irristakor honetan. Diziplina handiz erantzi ditu arropa beltz guztiak, eta, aldi berean, pentsatu du hobe duela ohean luze etzanda dagoen ia nerabe horrekin egoskortzea baino beste norbaitengana hurbiltzen saiatzea, Norarengana adibidez, duela gutxi ezagutu duen Etxeberen lankide horrengana.

3
Nora

Urduritu egin da pantailaren bazterrean pertsona baten isla ikusi duenean. Bere atzealdean zutik dago, ziur aski Nora irakurtzen ari den mezuari begira, isilik, ikusezina izan nahian. Jabetu bezain azkar ezkutatu du Norak pantailan ageri den guztia, batik bat Aingeruren posta elektronikoa. Chicagoko kontuak dira berriro, hanburgesak eta pizzak eta sabelalde hanpatua, hiri handi baten ardaila... bulegoko lanen abiadura itogarrian, Norak atsedenaldia egin dezan aitzakia aproposa.

Atzean dagoen itzala ez da mugitu eta Nora harengana jiratzean Josu dela ikusi du.

– Ez zen konfidentziala izango?

– Zu zer zara, Josu, autobusean lehenengo bultza egin eta gero barkamena eskatzen duen horietakoa?

Ez du erantzunik jaso. Argizarizkoa dirudi Josuk. Norak badaki jokabide horrek zer esan nahi duen: Josuk une honetan pentsamendu bakarra daukala,

auskalo zein. Orain dela gutxi erraz egotziko zuen Josu bere ingurutik, lanpetuta zegoela esanez agian, baina, aitarenaren ondoren normaltasunera itzultzeko denbora gehiago beharko duela iritzita, Josuk azaldu nahi dionaren zain gelditu da Nora.

– Ba al da zurrumurru berririk enpresan?

Norak ezetz ihardetsi du. Ez dio aipatu, ordea, ez daukala inolako asmorik Josuren burutazioak hedatzen lanik hartzeko.

– Ez diozu inori ezer berririk kontatu nire aitari buruz, ezta?

Nora begira gelditu zaio. Isiltasunak elkarrizketetan izan dezakeen indarra nola erabili ikasten ari da azkenaldian. Josu deseroso sentiaraztea lortu du, Noraren mikrohelburua bete da, eta orain Josuk Noraren ikuspegia ezagutzeke erakutsi behar ditu kartak, edo esku hutsik alde egin bestela.

– Ez zara fidatzen nitaz –esan du Josuk.

Norak berehala nabaritu dio zerbait eskatzera etorri dela, baina Norak ez du bidea errazteko asmorik:

– Nire arrazionaltasuna patologikoa dela leporatu zenidan behinola.

Josuk ingurura so egin du hitz egiten hasi aurretik, nork entzun ditzakeen egiaztatu nahian agian.

– Kontatu behar dizudana garrantzitsua da. Etorriko al zara afaltzera nire etxera?

Ezezko borobila atera zaio Norari barru-barrutik. Josu tematu egin da, kontatu behar diona jakiten duenean ez dituela gauzak berdin ikusiko. Norak berehala lotu du aldarte hori Josuren tartekako une euforiko-depresiboekin; batetik, garai txarra pasatzen ariko dela pentsatuz, pena eman dio eta, bestetik, Norak sumatu du ezezko definitibo batek ziurtatu egingo diola bulegoaren erdian Josuk piztuko duen istilua.

– Taberna batean afalduko dugu.

– Hobe da erakutsi nahi dizkizudan gauza batzuk kalean bueltaka ez ibiltzea.

Gaur izango da azken aldia, pentsatu du Norak.

Gauarekin iritsi da Erribera auzora. Hutsik dagoen kale nagusia apaintzen dute itxuraz betirako hezurduran geldituko diren eraikinek, orube desolatuek, ahaztuta utzi dituzten garabiek, eta auzoa inguratzen duen autopistari darion trafiko murmurio etengabeak, krisi garaiko western kaletar baterako eszenatoki apropo-sa. Norak doi-doi sakatu dio atezain automatikoaren botoiari, inork erantzungo ez duen esperantzaz, baina

berehala entzun da atea irekitzen dion hots amaigabea.

– Behatza botoiari itsatsita gelditu al zaizu? –esan dio Norak gora ailegatzean.

– Atea ireki dizudala ziurtatu nahi nuen.

Harrituta gelditu da Nora etxearekin: handia eta berria, Urumea ibairanzko bistak, eta nahiko txukuna barrutik, Josu bertan bizi dela kontuan hartuta.

– Nik bederatzi urte daramatzat zain, hartuko nuke horrelako babes ofizialeko etxe bat, baina zozketetan inoiz ez dut zorterik izan.

– Ezer ez da dirudiena –erantzun dio Josuk–. Uretan ezagutu nuen batek alokatu dit, 500 euroan. Surflaria da eta bere aitak hondartzatik gertu daukan pisuan bizi da, Zabaleta kalean uste dut.

– Lagunak dauzkanak altxorra dauka.

Entzungor eginez, Josuk sukaldera eraman du Nora eta bide horretan garbiago ikusi du Josuk etxean utzi duen arrastoa: pareta erabat biluziak, leiho itxiak eta giro arraroa, logelako anabasa, sukaldearen zikina, eta hozkailuaren ondoan surfeko taula luze bat, belztutako parafina azalera osoan zehar duena. Afaria ere Josuren legean izan da: pizza prekozinatu bana jateko eta bere belaunari buruzko xehetasunak hizpide,

ez du zer moduz galdetu eta ez da bere zilborretik urrunegi dagoen ezertaz arduratu. Bulegoetako komunetan agurtu zuten elkar estreinakoz, eta komunerako bide horretan atzera eta aurrera hainbeste aldiz gurutzatu ondoren, larunbat gaueko parranda arrunt batean Ensantxe tabernan izan zuten aurreneko elkarrizketa. Pixerreka eta pixontzi jaun-andreak, hori izan zen Josuk Norari zuzendu zion lehenengo esaldia. Garagardoaren laguntzaz eta ordu txikiek mingainari tira eginez, denbora gutxi behar izan zuten laneko kontuez hitz egiten hasi eta segituan bulegoko jendea larrutzeari ekiteko, harik eta imitazio parodikoetara iritsi ziren arte, algara ozenenak eragin zituzten Giza Baliabideetako zuzendari Ibon K.renak eta sindikatu horiko buru Alberto Zuriarrainenak. Hurrengo eguerdian biak elkarrekin esnatu ziren Josuren lagun baten etxean, eta orduantxe erakutsi zituen Josuk lehenengo aldiz bere sukalderako dohainak Noraren aurrean: Findus kaneloiak mikrouhin erara (lagunaren izozkailutik arrantzatuak). Norak asteak beharko zituen jakiteko tailerreko noren semea zen Josu, aldaba onak zeuzkala enpresan, eta istilurako gaitasun are eragingkorragoa.

Josu ebakuntzaren ondorengo arazoak zerrendatzen ari da orain, tartean surfean ezin izan duela ibili azken hilabeteetan. Nora isilik dago, zeharka erlojuari begira, berandutzen ari baita bihar lanerako esnatzeko. Keinua askotan errepikatu behar izan du eragina izan zezan. Josu hitzik ahoskatu gabe jaiki da aulkitik, sukaldetik alde egin du eta bizpahiru minuturen ondoren agertu da berriro, eskuen artean karpeta lodi bat dakarrela, tamaina eta mota guztietako paperez betea. Mahai gainean zabaldu ditu, hainbat pila eginez, karta jokoan ari balitz bezala, eta, banaketa bukatu duenean, paper multzo txikiena hurbildu dio Norari, birziklatutako folioetan hamaika letra motarekin zabar inprimatuta dagoen dokumentu bat. Irakaslearen agindua jarraitzen ari dela dirudi Nora irakurtzen hasi denean, tarteka azalpen eske Josuri so, erantzunik espero gabe, isil-isilik. Hamar minuturen ondoren, luze joko diola ikusita, Norak ahotsa berreskuratu du:

– Zer da hau guztia?

Josuk mesedez eskatu dio paper anabasa hori aztertzen segi dezala. Ia ordubete eman du Norak horretan. Egunkarietako zatiak, eskuorriak eta internetetik hartutako informazioa dago karpetan.

– Zergatik dauzkazu zuk paper hauek?

– Aitak bildu zituen. Utziko dizkizut patxadaz irakurtzeko, baina, hala ere, dagoeneko ikusi duzu zertan den. Aita susmo batekin hasi zen bila eta azkenerako ziur zegoen erantzuna aurkitu zuela.

Egongelan eman dituen azalpenek ordu erdi iraun dute. Josuk terminologia teknikoa gustura erabiltzen duela iruditu zaio Norari; zertaz hitz egiten ari den ondo dakienaren plantak egitea betidanik atsegin izan du. Bi hitz erabili ditu batez ere: amiantoa eta asbestoa. Josuk luze eta zabal kontatu dionez, garai batean asko erabili zuten material hori industrian, batez ere Bigarren Mundu Gerraren ondoren, eta gehienbat 1970eko hamarkadan; Euskal Herrian 2002. urtera arte.

– Material oso ona da: isolatzaile bikaina, erresistentzia handikoa, merkea. 3.600 erabilera baino gehiago omen dauzka.

Asbestoa, pentsatu du Norak, hitz berri bat hiztegirako. Greziera klasikotik dator, Josuk esan duenez. Esanahia: betiko irauten duena. Gure bizitzen antonimoa izan daiteke.

– Arazo bakarra dauka: harengandik hurbil ibiliz gero, minbizia sortzen du.

Norak adi entzun ditu azalpenak. Amianto motak, zertan erabiltzen diren, sortzen dituen gaixotasunak.

– Tailerrean etengabe erabiltzen zuten amiantoa eta horrek hil zuen aita.

Nora ez da harritu, ordea, Josuk azaldu dionaren sinesgarritasunarekin. Arkakusoek Donostia inbadituko dutela gaztigatu nahi balu ere, argumentu sendoak eta hitz ponpoxoak soltura handiz erabiltzeko gai litzateke Josu. Garai batean, Josu bat-batean desagertzen hasi zenean, aste osoa bizi seinalerik eman gabe pasatzen zuenean, ezer gertatu ez balitz bezala agertzen zen eta beti zeuzkan arrazoi ezin hobeak egin zuena argitzeko.

– Ziur al zaude, Josu? Esan duzun hori oso larria da.

– Ezer ez dago argi, jakina. Horregatik behar dut zure laguntza, esan dizudana frogatu ahal izateko.

Nora aulkitik altxa eta egongelan bueltaka hasi da. Lehenengo kolpean gogorapen bat etorri zaio burura: Josuk Jamaikara bizitzera joan nahi zuela azaldu zionekoa, han bakea aurkituko zuelakoan. Beste oroitzapen bat: hegazti gripearen aurkako txertoaren bidez munduko biztanleria antzutzeko estrategia gauzatzen ari zirela kontatu zionekoa. Baina ideia horiek baztertu

eta parez pare duenari buruz hausnartzen hasi da Nora.

– Zergatik esaten duzu zure aitarenak honekin zerikusia duela?

– Ez zara fidatzen, ezta?

Norak burua oroitzapenez gainezka du. Oraintxe sentipen bat nagusitu zaio: supituki Josu desagertzen hasi zenean Norari sorrarazi zion ondoeza.

Ez zegoen etxean, ez zuen telefonorik hartzen, inolako bizi seinalerik ez, eta gero besterik gabe itzultzen zen, agian tarteka begizuloak agerian, baina aparteko ezer egin ez balu bezala. Non ibili zara? Ez al zara konturatu oraingo honetan lan egunak ere galdu dituzula? Ez zinen parrandan ibiliko, ezta?

– Ez al didazu lagundu nahi, Nora?

– Berriro, esan nahiko duzu.

Josu, munduaren zilborra. Bere arazoak beti dira garrantzitsuagoak, pentsatu du Norak, eta oraindik ez dit galdetu zer moduz nagoen, baina ez luke garrantzirik izango; nik gripea badaukat, Josuk pneumoniaren zantzuak, nik musika talde on bat ezagutu badut, Josuk hamarkadako errebelazioa.

– Zergatik jo duzu niregana?

– Neska zintzoa zara eta gure aita benetan estimatzen zenuela ematen zuen.

– Horrekin zer esan nahi didazu, ez dakizula norengana jo?

Josuk hasperen egin du, sofan patxadaz esertzera joan da eta Norari hala moduz inprobisatutakoak iruditu zaizkion azalpenak emateari ekin dio Josuk. Argumentazioaren erdian, aspertuta eta nazkatzen hasita, Norak sukaldera joan-etorria egin du eta, baso bat ur eskuan egongelara itzuli denean, besaulkian eseri da, mahaiaren alboan dagoen Josurengandik ahal bezain urrun.

– Eta noraino iritsi nahi duzu kontu honekin, Josu?

– Behar bezain zinikoa banintz, esango nizuke nire ametsetako happy end-a distiratsua dela: hartu poltsa eta ospa. Ez diot nire aitari ezer zor. Berak niri bai, eta diru pixka batek ez dizkit nire umetako traumak eta helduaroko ezineramanak sendatuko, baina lagundu egingo dit. Zoritxarrez, oraindik ez daukat argi zergatik ari naizen honekin. Diruarena sinpleegia iruditzen zait ni bezalako neurotiko batentzat. Dakidan gauza bakarra da zerbait egin behar dudala kontu honekin.

Nora leihora hurbildu da. Gaua besterik ez dago beste aldean.

– Ai, Josu, ezagutuko ez bazintut, sinesgarria zarela pentsatuko nuke.

Josuk hizketan jarraitu du. Badirudi ez dela jabetu Nora ez dagoela adi.

– Eta nik zer irabaziko nuke? –eten dio Norak.

– Astebeteko bidaia Benidormera gastu guztiak ordainduta.

– Dirua eskaini behar zenidala uste nuen.

– Badakit ez zenukeela onartuko.

– Hortaz, ez nauzu hain gutxi ezagutzen. Baina, benetan, zer irabaziko nuke nik horrekin?

– Ez dakit. Zure buruak eta nireak oso ezberdin funtzionatzen dute. Baina egingo ez bazenu, harritu egingo nintzateke.

Norak edalontzian daukan ura dzangada batez desagerrarazi du.

– Lagunduko didazu?

– Eta azkenean zure susmoak hutsalak badira? Hori da probableena gainera.

– Azkenean esku hutsik gelditzen banaiz, inbertsio txar bat izango da niretzat, bat gehiago, eta zuretzat denak berdin jarraitu ahal izango du, kontzientzia erabat lasai izango duzu nagusi zintzo batzuentzat lan

egiten duzulako, eta munduak bere betiko harmonian segituko du. The end.

– Happy end hori ez zait oso sinesgarria iruditzen.

Josu aulkitik altxa eta Norarengana joan da.

– Hortaz, lagunduko didazu.

Norak duela hamar urte bi aldiz pentsatu gabe baietz erantzungo ziokeen, ez Josuri bakarrik, ia beste edonori ere bai, orduan Noraren egiteko gogoa oso bizia baitzen. Aitzitik, orain dela gutxira arte gordin azalduko zion ezetz, gauzak garbi, izkin egin gabe. Baina azkenaldian asko ikasi du:

– Pentsatuko dut, hitz egingo dugu.

Norak badaki hori dela Ez esateko modurik errazena.

– Har ezazu pentsatzeko behar adina denbora.

Arin eta sotil mugituz, Norak txamarra hartu du eta berehala iritsi da kaleko atera. Ezustean harrapatu dutenaren baldarkeriaz, sofatik presaka altxa eta distantziak neurtu ez balitu bezala, Josu gehiegi hurbildu zaio Norari.

– Ez al zara pixka bat gehiago gelditukо?

– Ezta erotuta ere. Ez al zara konturatu gauzak zenbat aldatu diren?

– Besteren batekin zabiltza?

– Ez, Josu, ez nabil, eta hori dagoeneko ez da zure kontua.

Agur konbentzionalen ondoren, kanpotik tira eginez itxi du Norak Josuren etxeko atea. Igogailuan behera arnasa sakon hartu du bizpahiru aldiz. Kalean gaua besterik ez du aurkitu, martxoko isila eta iluna. Ibai aldetik sartzen den haize finak biziberritu egin duen arren, hotzak dardaraka dago.

Telefonoari kateatuta eman du goiz osoa, bulegoko lanak gerotik gerora. Lehenik Amaiari deitu dio, Egia auzoan bizi den lagun bati. Josuri buruz hitz egin nahi dio, buruan bueltaka erabaki ezinik baitarabil kontua. Baina Amaiarekin hitzordua adostea ezinezkoa izan da, hark agenda gainezka daukalako, eta, beraz, astebururako utzi dute. Ondoren aitari eta amari deitu die. Ez da harritu haiekin hitz egin ezin izan duenean. Segidan Aingeruri deitzekotan egon den arren, kontu argirik ez dagoen bitartean ezer ez jakinaraztea hobetsi du. Ez daki nori deitu barruak nahasten dizkioten kezkak kontatuz arinxeago sentitzeko.

Bulegoko lanari ekin dio, gainerakoa burutik uxatu nahian, baina ia ezinbestean asteburuan Amaiarekin izango duen solasaldian esan nahi dizkionak ordenatzen hasi da: azalduko dio aspertuta dagoela besteei emateaz, besteak gustura egoteko ahaleginak egiteaz, jende guztiak kale egin diola, aspaldi ikasi zuela inoiz ez dela eman adina jasotzen, bere kasua ez dela hori behintzat, baina badela garaia balantza pixka bat orekatzeko, eta, hala ere, Josuren kontuarekin hasierako iritzia aldatu duela. Ez daki zergatik. Garai bateko inertziak agian, Josuren aitarekiko estimua akaso, edo beharbada Josuren eskuetan erraz lehertu daitekeen arazo bat kontrolpean mantentzeko eta desagerrarazteko borondatea.

Saileko arduradunak presazko lan gehiago agindu dizkio Norari. Arratsaldeko bostak aldera lankide gehienek alde egindakoan, Norak bertan gelditu beharko du, agian afalordura arte. Azken bi deiak egin ditu, bata aitari eta bestea amari, alferrik, eta burubelarri murgildu da bulegoko jardunean: fakturazioa, aseguruak, kontabilitatekoei lagundu. Erraz moldatzen da bere eginkizunetan, baina lan bolumen handiegia dauka itolarria ia egunero ez sentitzeko. Sarrikon unibertsitate publikoan Ekonomia Zientzien lizen-

tziatura burutu ondoren, komertzial lanetan ibili zen hainbat enpresatan, beti beste lan mota baten bila, eta enplegu hau eskaini ziotenean, zalantzarik gabe hartu zuen. Norak badaki nagusiaren iritziz langile fina dela, eta horrek ematen dio balioa enpresan, baina, aldi berean, Nora jabetzen da ez duela lortu bere nagusien beste konfiantza hori, haien erabaki eta agindu guztiei irribarrez erantzuteak eta txisteei barre egiteak ahalbidetzen duen konplizitate giroa, eta horretaz ere poztu egiten da Nora.

– Aseguruen kosteak ere berehala behar ditut. Lehen ahaztu egin zait esatea.

Noraren nagusiak horrela eskatzen dizkio lanak, beti presaka, eta Norak ezin du kale egin. Hori eginez gero, batetik, Noraren balioa higatuko bailitzateke eta, bestetik, nagusiari baino lan-katean hurrengo koskan dauden lankideei egingo bailieke kalte, kontabilitatekoei, esaterako. Batzuetan ordu asko behar izaten ditu agindutako lana amaitzeko, ordutegiei jaramonik egin gabe.

– Bukatu duzu? –galdetu dio nagusiak.

Josurekin hitz egindakoa du Norak gogoan. Bulegoetako enplegatu bat amiantoari buruz galdetzen

hasteak ez luke harrera ona izango, pentsatu du Norak, eta, hala ere, orain jakin-mina ere badauka.

– Bukatu duzu?

Astebetez Josurekin topo egitea saihestu du Norak.

Amarekin afaldu du. Julio Urkixo kalea, Bidebieta auzoa, 50 metro koadro, sukaldea, egongela, komuna eta bi logela. Hortxe bizi da Nora. Etxea aitarena da, baina erretiroa hartu zuenetik Zumarragan dago, amonaren etxean. Garai bateko kaleetara berriro ohitu nahian eta lehengo adiskideekin bitxi sentituz irudikatzen du Norak aita, baina batik bat amona zaintzen, herrian bertan bizi den anaiak batere ardurarik hartzeko asmorik ez duelako. Bart hitz egin zuen telefonoz aitarekin: badirudi amona hobeto dagoela eta bihar bidaliko dutela ospitaletik etxera. Krisi txiki bat besterik ez omen da izan.

– Berandu da afaltzeko, ezta? Sentitzen dut. Gaueko txandakoekin ordu honetan egin behar izan dugu bilera.

Norak zortziak aldera afaldu ohi duen arren, gaur hamarrak pasatxo hasiko dira, beti bezala amak lane-

ko zereginez arduratu behar izan baitu, oraingoan lan hitzarmenaren negoziazioa prestatzeko.

– Bestela ezingo genuen elkar ikusi eta honekin konformatu beharko gara.

Ama Altzan bizi da bere bikotekidearekin (Norak atsegin du tipoa; orain hura ere gaueko txandan ibiliko da, Irun aldean), baina Norak nahiago du afaltzeko hitzordua Bidebietan izatea. Dena kontrolpean izatearen sentsazioa behar du, menpekotasun handia sorrarazten dion droga balitz bezala. Horrexegatik dauka etxea erabat txukun eta garbi, ordena absolutua, higiene obsesiboa. Minik ez hartzeko estrategia da, gauzekin eta pertsonekin. Ez da inorekin fidatzen, bere buruarekin izan ezik. Non fida, han gal.

Tomatea eta tipulin freskoak, alboan leka, azenarioa, tipula eta kuskus beroa dituztela, amak hauteskundeetan sindikatuen arteko labankadei buruz hitz egin du hasieran. Norak beti bezain adi entzun dio, baina bere kontuetarako txanda inoiz iritsiko ez dela ohartu denean, ohituta dagoenez, bestelako huskeriak aipatuz eten dio kontakizuna eta berehala bere hariari heldu dio:

– Ama, demagun lagun bat amiantoaren erruz gaixotu dela.

– Ondo al zaude?

– Ama, mesedez, ez naiz niri buruz ari, eta gainera hipotesi bat besterik ez da.

Norak kontatuko dionaren zain gelditu da ama. Alabak dakien guztia azaldu dio, eta Josuren izena aipatu du etengabe. Amak ez du zirkinik ere egin Norak azalpenak eman dizkion bitartean, baina amak ez du inoiz horrelako arazorik ezagutu, tarteka lankideei entzun dizkie kontu horiek eta, beraz, besterik ezean, haiekin hitz egingo duela esan dio alabari.

– Bihar eguerdian bertan deituko dizut.

Harrera egin dionean baino alaiago agurtu du Norak ama. Benetan lagunduko diotela jabetzen den aldiro harrituta gelditzen da Nora.

Oheratu aurretik, posta elektronikoa begiratu du. Bi mezu: Aingeru (Chicagoko kontu xelebreak, nola ez) eta Herrera (biharko hitzordua proposatuz).

Amaiak ezin du asteburuan tarterik aurkitu Norarentzat. Familia, ezustekoak, aita santuak katarroa daukala. Azkenean, astean zehar egongo direla hitz eman diote elkarri.

Herrerarekin etzirako adostu du hitzordua. Orain dela ia urtebete ezagutu zuen, kiroldegian. Noraren lankide batekin zegoen, Etxebe deitzen dioten horrekin. Oraingoz, atseginak iruditzen zaizkio Norari, baina bestelako seinalerik jasotzen ez duen bitartean, nahiago du distantzia mantendu, jende guztiarekin bezala.

Telefonoz hitzartu nahi du, elkarrizketa nahastuz gero, egokia deritzon unean deia eteteko aukera izan dezan.

– Laguntzen hasi ahal izateko, baldintza batzuk ezarri behar dizkizut.

– Dirua eskatu behar al didazu?

– Benetan ari naiz, Josu. Esaten dizudan zerbait egiteko asmorik ez baduzu, ez naiz sartuko kontu honetan. Hasi ondoren baldintzaren bat urratzen baduzu, utzi egingo dut, inolako azalpenik eman gabe. Behar baino gehiago ezagutzen zaitut eta badakit zenbat atsegin duzun bazterrak nahastea. Nik behintzat ez dizut utziko nire izen ona zikintzen.

– Kontratu bat sinaraziko didazu?

Erabateko isiltasuna.

– Barkatu, Nora. Esadazu.

– Nik onartu gabeko ezer ez duzu egingo kontu honetan. Eta pausoak nire erara emango ditugu. Ez nago prest ezer sakrifikatzeko. Ez dut zuregatik egingo.

– Zergatik egingo duzun ez da nire kontua. Eta beste guztiari baietz erantzungo diot.

– Hortaz, bihar bertan emango dizkidazu aitaren paperak eta ondo aztertzen ditudanean, enpresako sindikatuekin hitz egitera joango naiz, ni bakarrik.

– Zuriarrainekin hitz egin dut dagoeneko.

– Gaizki hasi gara. Zer esan dizu?

– Egoera aztertu eta zer egin erabakiko dutela, baina ez diot ikusi ezer egiteko asmorik.

– Horregatik jo duzu gero niregana.

– Bestela ere egin behar nuen.

– Hurrengo gezurrarekin batera utzi egingo dut kontu hau. Argi dago?

– Garden.

Erabateko isiltasuna.

– Eta baldintza bat gehiago: hau dena susmo bat besterik ez dela frogatzen dugun bezain azkar, hortxe bukatuko da dena. Hau da, zuk ez duzu zure kasa ezer gehiago egingo.

– Susmo bat besterik ez dela frogatuko balitz, esan nahiko duzu.

– Bai. Eta kontrakoa frogatzen ez bada, baita ere. Kontu honek ez du iraun behar derrigorrezkoa dena baino minutu bat gehiago.

– Bihar bertan bulegora eramango dizkizut paperak.

– Lanetik irteten naizenean, ekarri egizkidazu Bukowski tabernara.

Sindikatu marroia eta horia. Horrela deitzen diete enpresan ordezkaritza duten bi sindikatuei. Norari iritsi zaizkion zurrumurruek diotenez, lehenengo ezizena *sindikatu horia* izan zen, boto gehien jasotzen dituen sindikatua izendatzeko, eta horiek ondoren mendekua hartu zuten besteei *sindikatu marroia* deitzen hasi zirenean. Norbaitengana jotzekotan, enpresan sartu denetik Norak argi izan du Anderrengana izan behar lukeela, sindikatu marroiko ordezkaria den heinean, eta horregatik adostu dute hitzordua, Hernaniko Bodega tabernan, Anderren gogoz kontra, ez baitu ulertzen zergatik ezin duten bilera enpresan bertan egin. Norak konfidentzialtasuna eskatu eta Ander en-

presatik hurbileko lekuak proposatzen hasi da, edo, bestela, biak donostiarrak izanik, han nonbait, eta Norak, berriz, ezetz, inork ezagutuko ez dituen tabernaren batean izan behar duela. Ander, noski, mesfidantzaz gainezka iritsiko dela pentsatu du Norak.

Garaiz ailegatu dira biak. Norak ez daki nor dagoen bietan urduriago. Bi zurito eskatu dituzte. Eguraldiaz hizketan aritu dira harik eta mahaian eseri diren arte. Norak bere buruan behin eta berriro errepasatu dituen ideiak zehatz-mehatz azaldu ditu: funtsean Josuk kontatu diona, iturria Josu dela garbi utziz, Norarentzat oraingoz hipotesia baino ez dela. Amak kontatu diona beretzat gorde du Norak, horrelako gaiei buruz dakien guztia kolpetik ez esatearren, aurrerago jokatu beharreko kartak ezkutuan mantentze aldera. Azalpenak ematen ari den bitartean, Anderren aurpegiera interpretatzen saiatu da Nora: mesfidantza iradokitzen dio, sekula hitzik elkartrukatu gabe orain ur handiei buruz hitz egiten ari zaion neska horrekiko konfiantza eza, tailerretik inoiz pasatu ez den bulegoetako enplegatu horietako bat, eskuak behin ere zikindu gabe egun osoa eserita ematen duen horietako bat, kaleko jantziekin lan egiten duen horietako bat. Urrun daude elkarrengandik. Ikusezina naiz, pentsatu

du Norak; ez nau ni ikusten, goiko solairuko bulegoetan lan egiten duen neska hori baizik. Agian Anderrek dagoeneko entzungo zituen esamesak, akaso sindikatu horiko Zuriarrain ere joan da Anderrekin hitz egitera, ez bereziki ezer kontatzeko asmoz, baizik eta batik bat Anderrek zer dakien entzutearren.

Norak ez du ezer gehiago kontatu nahi. Ander mutu dago.

– Zuk nola ikusten duzu kontua, Ander?

– Horrela, bat-batean... galdetu egin beharko dut.

Goikoei?, pentsatu du Norak; lankideei?

– Ez nekien ezer eta, gainera, gai hauek erabat ezezagunak dira niretzat.

– Nahi baduzu, hurrengo astean-edo bil gintezke berriro, zuk kontsultak egin ondoren.

– Deituko dizut. Galdetu egin behar dut.

Kalera irten dira. Berriro ekin diote eguraldiaz hitz egiteari: lehenik eguzkia eta gero euria, hasieran beroa eta gero hotza, lau urte sasoiak egun bakarrean. Elkar agurtzen hasi direnean, Norak bere sakelako telefonoaren zenbakia eman dio, eta Anderrek agur esateko modu luze batekin erantzun dio:

– Pentsatzen nuen nahikoa eta soberan izango genuela laster negoziatu behar dugun lan hitzarmenare-

kin, batez ere enpresa gainbehera nola datorren ikusita; eta ez, ez.

Badirudi Anderrek orain zerbait esateko gogoa duela, baina, badaezpada, egokiagoa iruditu zaiola esaldia bere horretan uztea.

– Hortaz, Ander, ea aste honen bukaera aldera biltzen garen berriro.

– Deituko dizut nik.

Kloro usaina da nagusi. Norak alboan arnasestuka dauka Herrera. Beti berdin, pentsatu du Norak; Amaiak ezin omen du nirekin egoteko tarterik aurkitu aste osoan. Burua borborka dauka: Nori kontatuko diot gertatzen ari zaidana? Beste lagunen bati deituko lioke, baina buruan zerrenda errepasatu du eta ez daki nori. Norak buruko zoko ezkutu batean gordeta zeukan ideia bat berreskuratu du, Amaiari oihuka esango liokeena: mundua ez da 24 orduan irekita dagoen doako supermerkatua, nahi duzunean sudurraren puntan jartzen zaizuna har dezakezuna, ez, besteei ematea ez da inozoentzat bakarrik, aurreak erakusten du atzea nola dantzatu, mon amie.

Herrerak arnasa berreskuratu du. Gogotsu erantzi ditu betaurrekoak.

– Ez nekien Josu zure bikotea izan zenik.

– Denok dauzkagu une ilunak gure iraganean, ezta?

Barre egin dute biek. Norak ez zuen uste Herrerarekin horrelako ezertaz hitz egin ahal izango zuenik inoiz. Bidebietako kiroldegian ezagutu zuten elkar, Herrera eta Etxebe iluntzeetan igeri egitera batera joaten zirenean. Herreraren arabera, Etxebe lanpetuta dabil orain.

– Galdera bat, Nora: bulegoan ez duzu Etxebe askotan ikusten, ezta?

– Solairu berean gaude, baina giza baliabideetakoak beste ordutegi batean ibiltzen dira.

Herrera igerilekuaren ertzean eseri da. Bainujantzian giro sargori horretan bueltaka dabilen jendeari begira dago, esango duena beste norbaiten ahotik etorriko balitz bezala:

– Ez duzu jakingo bulegoan Etxeberi zerbait gertatzen ari zaion?

Norak ez daki Herrera zertaz ari den. Jatorra da Herrera, baina gaur ez du haren kezketan nahasi nahi. Norari buruan dabilkiona hauspotu besterik ez du

egin: Josu, Amaia, Ander... Egun pisutsu horietako bat da, zama giroa. Nora zutik jarri da igerilekuaren ertzean. Azalean behera irristatzen ari diren tantak ikusi ditu, sabelean, besoan, izterrean. Azal beltzarana, leuna bai, baina ez garai batekoa. Tanta bat erori zaio sudurretik ezpainetara. Begiak itxi ditu. Beldurra ematen du hainbeste jendez inguratuta egoteak eta ez ezer ikusteak. Begiak ireki ditu. Salto egin du eta desagertu egin dira igerilekuaren zarata eta sargoria. Urak laztantzen dio azala. Dena horrelakoa balitz, burbuila eta belusa, eta fereka, hala balitz, arnasari eutsi eta kito.

Herrera bere atzetik murgildu dela sentitu du Norak.

4
Josu

Egun motela, pauso geldoa. Kemenak abandonatu egin du gaur. Azken asteen ordaina dela pentsatzen du Josuk, arnasa pixka bat hartzeko tartea. Gurasoen etxeko ordenagailua ere astiro pizten ari da. Zergatik daude oraindik bi aulki pantailari begira? Posta elektronikoa ikustera etorri da Josu, baina burua beste nonbaitera joan zaio. Orain dela urtebete hantxe eserita zeuden aita eta biak, bata azalpenak ematen, bestea bere esku handiekin dena urratsez urrats idazten. Aitaren lehenengo mugimendua sagua pantaila gainean jartzea izan zen: Ez al didazu esan traste honekin mugitzen dela pantailako gezitxo hori?

Aitak seme zaharrena ezin izan zuela harrapatu pentsatu zuen Josuk, horregatik deitu ziola berari, baina ordenagailua nola piztu eta abar erakusten hasi zitzaionean, beste zerbait gertatzen ari zela iruditu zitzaion, inoiz gertatu gabea: bizitzan aurreneko aldiz aitari zerbait irakasten ari zitzaion, aitak laguntza es-

katu zion estreinakoz, berari bakarrik. Aitak ez zeukan erantzunik, galderak soilik: birikei buruzko informazioa bilatu nahi badut? Eta inprimatzeko? Josuri ez zitzaion axola zergatik. Atsegina izan zen aita ikasle lanetan eroso ikustea.

Josuk interneten sartzeko ikonoa klikatu du pantailan. Orain jabetu da aita laguntza eske joan zitzaiola, eta ez soilik ordenagailuak nola funtzionatzen zuen irakasteko.

Ospitaleko ohean aita umoretsu agertzen zen adiskideren bat bisitan joaten zitzaion bakoitzean, baina ez ziren asko hurbildu, aitak ia isilpean eraman nahi izan zuelako gaixoaldia.

Familiakoak bakarrik zeudenean, aita kirol espektakuluez arduratzen zen batik bat, ingurukoei entzungor. Mundo Deportivo, Marca, Deportes Cuatro, Teledeporte, El Larguero.

Baina Josu gelan zegoen batean, ama komunean eta alboko ohekoa korridorean, aitak besarkada bat eskatu zion Josuri. Isilik gelditu zen gela. Nabarmena zen ama komunean adi zegoela. Aitak keinurik egin gabe begiratu zion semeari eta Josuk patrikatik paper

bat atera zuen. Etxean inprimatutako zerrenda luze bat.

Behinola adiskide batek oihuka esan zion Josuri:

– Konturatu al zara une honetan hilezkorrak gare-la?

Kemena suma zezakeen borborka. Hauts zuriz be-tetako poltsatxoa gorde eta abiadura sentitu zuen, gauak belztutako autopistan barrena. Arnasa sakon hartu. Begiak itxi, ireki: bizirik nago, indarrez gainez-ka. Josu, A8ko errege.

Posta elektronikoan ez dauka mezu garrantzitsurik. Egun hartan bezala, gaur ere interneteko *historia* kli-katu du. Gordeta dago bisitatu dituen web orri guztien zerrenda. Egun hartan susmo txarrak gaina hartu zion. Aita interneten zertan ibiltzen zen jakin nahian begiratu zuen *historia*. Hasieran El País, Diario Vasco, Marca, Youtube eta gisakoak aurkitu zituen, eta bere-hala hitz ezezagun ugari: amiantoa, asbestoa, krisoti-loa, mesotelioma, biriketako minbizia. Orduak eman zituen orrialde haiek irakurtzen.

Ideia bakarrarekin irten zen etxetik. Ospitalean ez zen entzuteko gai, ezta aitak ohetik esan zezakeena ere. Amorrua irakiten. Patrikatik etxean inprimatutako zerrenda luze bat atera zuen, interneten bisitatutako orrialdeen *historia*.

– Zergatik ez didazu ezer esan?

Aitak berriro eskatu zion besarkada. Josu gortuta zegoen.

– Pozoitu egin zaituzte zure laguntxo miresgarriek?

Komunetik irten zen ama.

– Aitaren adiskide min horrek, Pedrok, zuzendari nagusi handiak, badaki, ezta? Horregatik ez da agertu ospitalean?

Amak azalpen ugari eman zituen. Josuk ez zuen ezer aditu. Bere buruan taupada erraldoi bat sentitzen zuen, burua lehertzear balu bezala. Ospitale usaina utzi nahi zuen berehala, kotxean sartu eta ihes egin.

Eskaileretan zain zeukan anaia.

– Oso kezkatuta nengoen. Non sartu zara hiru egun hauetan?

Josuk sorbaldan hiru kolpetxo joz agurtu zuen.

– Jende guztiari deitu diot eta inork ez zekien non zeunden.

Etxera sartu zenean, zuzenean jo zuen dutxara, azken hiru egunetan erantsi zitzaion kiratsa kentzeko asmoz.

– Norari ere deitu diot. Ez nekien ez zabiltzatela elkarrekin.

– Aspaldi.

Pijama jantzi zuen eta ohera amildu zen. Munduaren amaiera zirudien.

– Zer gertatzen da, Josu? Aitak eta amak ez didate ezer esan. Aitaren minbiziak biak mututu ditu.

– Ba al dakizu, Iñaki, aita beti etorri izan dela ni erreskatatzera. Orain zu.

Loak hartu zuen gero.

Surfeko taularekin ero baten antzera ibiltzen zen olatuetan dantzan. Garai hartan etengabe errepikatzen zuen egunen batean hondartza baten alboan biziko zela, surfari emana. Indonesia aipatzen zuen Josuk: jende guztiari esaten zion negozioa egingo zuela mundu osoko surflarien gidari lanak eginez. Egitasmo hori plazaratzen hasi eta urtebete pasa baino

lehen baztertu zuen asmo galduen zokora. Aita ikaragarri poztu zen ideia hura berriro ez entzuteaz. Semea arroken kontra kaskezurra txikituta irudikatzen zuen.

S.O.S. Save Our Souls. Salba itzazue gure arimak. Lan horren ardura hartu zuen aitak Josurekin. Behin eta berriro zulatzen zion burua esaldi berberarekin: Ez zara hilezkorra, Josu, kontu handiagoz ibili behar duzu, nik ezingo dizut beti lagundu, eta, gainera, hasi beharko duzu behingoz etorkizunean pentsatzen.

Josuk beti berdin erantzuten zion: Eman bakea, aita, eman bakea.

Erlijio baten antzekoa zen, aitaren sinesmen sakonena. Ospitaletik ihesi Josu tabernara joan zenean, ez zuen besterik gogoan:

Lehenengo lau garagardoek aitaren santu-izendegitik bana oroitarazi zioten: zuzendaria, ingeniaria, medikua, abokatua.

Aurreneko lau belar likoreek aitaren mandamenduetatik bana ekarri zioten gogora: ez izan pobrea, ez

izan alferra, ez eduki ezer ematen ez dizun adiskiderik, ez bazterrak nahastu.

Estreinako marra zuriak lagundu zion musika ozenaren doinura egokitzen aitak etengabe errepikatzen zion dogma: Zure laguntxoek bide okerretik eramango zaituzte.

Gauerdirako ia ezin zuen gogoratu institutua hamaika aldiz utzi nahi izan zuela, baina hantxe zegoela aita, Ingeniaritza egitea ezinbestekoa zela sinetsarazi zion gizon hura, bere semea alkandora jantzita ibil zedin bulegoetan. Josuk iraganean lainotuta ikusten zituen unibertsitatean emandako urteak, arrastaka, agertu gabe maiz, Zientzia Politikoak ikasten ariko balitz bezala ere eman zituen bi urte Leioan, ondoren hasi zuen Ingeniaritza Teknikoa Donostian, eta aitak oihu egiten zion: Nik ordainduko dizut, ez zait axola zenbat denbora behar duzun lortzeko, baina saiatu, gero beti eskertuko didazu. Adiskideek *estudiante tunante* deitzen zioten Josuri. Gelakoek, berriz, *aitona*. Azkenean, unibertsitatea utzi eta lanbide heziketa egin zuen, delineatzaile. Aita pozik hala ere, bereziki berak lan egiten zuen enpresan semeari postu bat lortu zionean, Josu bulegoetan ikus zezakeenetik, aitak miresten zituen horien artean. Orduan aitak

behin eta berriro esaten zion: Ez Indonesia eta ez Jamaika; kontratu iraunkorra egiten dizutenean, elkarrekin joango gara oporretan Londresera gu biok.

Vodka eta Fanta Naranja, izotzak. Giroa epeltzen ari zen tabernan. Parrandako adiskideak hurbiltzen hasiak ziren: Gaur handia izango da.

Ia ezin zuen oroitu iragan hura, baina Josuk buruan iltzatuta zeraman aitaren sinesmen sakonena.

Hegan egin zuen. Kotxea, mila eta bostehun kiloko akrobata, hasiberria. Une labur bat besterik ez zen izan. Desoreka, hegaldia eta kolpe bortitza. Ondoren, denbora gelditu egin zen Josurentzat. Asfalto bustiko metro koadro bat ikus zezakeen. Ezin zuen ezer pentsatu. Belaunean hasi eta gorputz osora hedatzen zitzaion oinazea.

Eta denboraren geldoa. Ospitalean ere halakoa zen. Lo edo sabaiari begira eman zituen egunak. Aitak ezin izan zuen bisitan joan.

Horrela jarraitzen baduzu, sekula ez zara inor izango. Esaldi hura biziki maite zuen aitak, batik bat Josu-

ri esatea atsegin zuen. Ez zara inor izango. Ni naiz eredua, esango balu bezala. Bizitzan aurrera egin duen gizona, bere lekua landu duena, adiskide baliotsuak lortu dituena. Seme, zu ez zara inor izango.

Horrela jarraitzen baduzu.

Lehia etengabea zen aita-semeen artekoa, mendira igande-pasa joaten zirenean maldan gora, sukaldeko mahaian haragi zatirik handiena platerera eramateko, bazkalosteko karta jokoan, nonahi. Josu erretxindu egiten zen, oihu ozenenak orduantxe egiten zituen, tarteka negarra. Aitak garaile gizajoaren harrokeriaz erantzuten zion: Hori erakusten al dizuete eskolan? Eta nerabezaroarekin batera hasi ziren nor zen jakintsuagoa eztabaidatzen, nor azkarragoa, noren bizitza zihoan hobeto. Amak beti gauza bera esaten zien: Nahikoa dugu; elkarrekin egoten ez badakizue, zoazte bakoitza bere aldetik, zu kalera lagunekin eta zu tailerrera lankideekin.

Baina Josuri nerabezarotik hain begi-bistakoa iruditu zitzaion aita ez zela inor izango, ume izateari utzi berri zion baten aurrean ere asaldatu egiten zela, Josu nerabeak aitatxoren autoestimua kolokan jar zeza-

keela, etxe osoa dantzan has zitekeela familiako txikienaren gorabeherekin. Hainbeste urte anulatuta sentitu ondoren, erregearen aurrean maila ematen ez zuen oinordekoa sentiarazi ostean, orain esku artean zeukan sekula amestu ez zuen boterea.

Horrela jarraitzen baduzu.

Ezgauza, pentsatu du Josuk, ni naizen ezgauza izanda ere, aitak besarkatzeko eskatu zidan. Etxeko txikia, etxeko erregea, etxea suntsitzeko gai den bakarra, behin baino gehiagotan saiatu dena. Aitak esan nahi zidan: Barkaidazu hasieratik ezer ulertu ez dudalako, benetan ahalegindu naiz. Eta nik ezin dut burutik ezabatu: aita nire kaleko zorrak kitatzen, aita abokatua kontratatzen, aita zuzendari nagusiarekin niri buruz hizketan. Nire istilu guztiak beti bukatzen ziren berdin: kotxez bueltatzen ginen etxera, aita gidari, eskuaz laztantzen zidan ilea, eta mugimendu bakoitzean mezua indartsu helarazten zidan: Zu bakarrik ez zara gai, nik lagunduko dizut, lasai, ahaztu ameskeriak. Gorrotoak erretzen ninduen. Bere gizajokeria kutsatu zidan. Bai, aita, ezingo nizuke hitzez inoiz adierazi. Gu ez gara oso trebeak izan horretan. Konforme, sinetsa-

razi didazu sekula ez garela ezertarako iaioak izan, izatez garela besteak baino gutxiago, baina ni ez naute oraindik akabatu.

Ospitalean, besoak ireki zituen eta zain gelditu zen aita. Barkaidazu. Badakit: hil egin naute, hil egin naute, hil egin naute. Barkaidazu. Eta nik alde egin nuen. Ni, etxeko txikia, etxeko erregea, beti edozeinen gainetik pasatzeko prest dagoena.

Aita azken unean jabetu zen ulertzen ez zuen mundu batean hilko zela.

Baina zer egin dut?, Josuk bere kautan.

Erotu egin al naiz?

Zer egin dut?

Telefonoak esnatu du bere oroitzapenetatik. Nora da: leku diskretu bat nahi zutenez, Aratz tabernan adostu dute hitzordua, Igaran, Aste Santuko oporren biharamunean, 19:30ean, Norarekin bost minutu lehenago.

– Utzi niri hitz egiten, Josu. Beraiek zer esaten duten ere entzun nahi dut.

Tabernaren txoko batean aurkitu dituzte hirurak: Zuriarrain erdian, albo banatan Manuel zaharra eta Jon Mikel gaztea.

– Hirutasun saindua –xuxurlatu dio Josuk Norari.

Zuriarrain jaiki egin da eta Josuri eskua eman dio, indartsu, ia min emateraino.

– Pultsuak egiten jarraitzen duzula pentsatzen dut –Zuriarrainek Josuri eskua askatu gabe.

Umetan Josu inguruko guztiekin lehian ibiltzen zen eta ez zuen galtzea atsegin. Aitak oso tarteka bakarrik uzten zion irabazten, Josu neurriz kanpo haserretzen hasten zenean. Iñaki anaiari amarru bidez bakarrik gailentzen zitzaion. Umetan Alberto Zuriarrainekin maiz egoten zirenez, hari ere desafio egiten zion, baina ez zion sekula irabazi, nahiz eta amarru mota guztiak saiatu zituen.

– Umetako kontuak besterik ez dira –esan dio Josuk eseri bitartean.

Jon Mikel bi iritsiberriak aztertzen ari dela sumatu du Josuk, baina begiratu dionean, supituki seriotasun osotik atsegin izatera igaro da eta zer hartu nahi duten galdetu die.

– Zer moduz zuen ama? –galdetu du Manuelek.

– Gero eta hobeto.

– Hala behar du –aurreratu da Zuriarrain–. Gogoratzen dut oraindik gazteak ginenean nola ibiltzen ginen nire andrea eta biok zuen aita eta amarekin. Haiek bai garaiak.

Barrara joan da Josu denentzat kafea eskatzera. Inor begira ez duela egiaztatu bezain azkar, azukrea eskuzabaltasunez banatu du Zuriarrain, Manuel eta Jon Mikelen kikaretan, eta platertxoen gainean eramateko azukre poltsatxo gehiago eskatu ditu.

Norak hartu du hitza. Josuk bere aitaren kontuari buruz azaldu dion guztia zehatz-mehatz kontatu die Norak aurrean dituen hiru gizonei, azkenik beren sindikatuak zer egingo duen galdetzeko. Haiek dira erakundearen ordezkari nagusiak enpresan. Josu isilik dago. Eskuan darabilen txotxa mila zatitan erdibitu du dagoeneko. Josu hasieratik jabetu da Nora etengabe zeharka begira duela.

Kafea keinu bakar bat ere egin gabe edan duten arren, Zuriarrainek ezin izan dio mingainari eutsi:

– Eguna gozo bukatuko dugu behintzat.

Norak eta Josuk galdera aurpegia jarri dute, Manuelek konpromisozko irribarrea, eta Jon Mikel entzungor lotu zaio elkarrizketa nagusiaren hariari. Hark egin

ditu sindikatuaren bozeramaile lanak. Itzulinguru ugariren ondoren iritsi da mamira.

– Zuen aita enpresan bertan gaixotzeko arrazoi bat baino gehiago aurkitu dugu. Historian zehar material arriskutsu asko egon izan dira tailerrean. Susmoa dugu zuk esaten duzuna egia izateko aukerak handiak direla. Baina ez dugu inolako frogarik aurkitu. Gainera, arraroa da enpresan osasunarentzat kaltegarriak ziren materialak bazeuden, zuen aita bakarrik gaixotzea.

Norak zuzenean begiratu dio Josuri. Zain dago Josu noiz lehertuko. Baina gaur ez da gertatuko. Gauzak aldatu egin dira, pentsatu du Josuk. Hitzik ahoskatu gabe, aitaren karpeta berdea atera du zorrotik eta Jon Mikeli hurbildu dio. Barruan paper mendi bat dago: aldizkari eta egunkarietako orriak, fotokopiak, inprimatutako Din A4ak, eskuz idatziko apunteak.

– Sindikatuan eskura daukagu informazio mota hori –esan du Jon Mikelek–. Nahi baduzue, helaraziko dizuegu behar duzuena.

Josuk bi eskuez gogor eutsi dio aulkiari. Izerdia eta berniza elkar igurtziz. Ahoa ireki gabe jaso du karpeta berdea, kafe arrasto eta guzti.

Jon Mikel hizketan hastear dagoela eten du Zuriarrainek.

– Urrats bakoitza dagokion garaian egiten ez badugu, gureak egin du. Ulertzen dut zuk dena berehala egin nahi izatea, normala da, baina benetan esaten dizut, beste esperientzia batzuk ezagutzen ditugu, eta ez baditugu gauzak ondo lantzen, ez dugu ezer lortuko.

Bostekoa emanez agurtu dute elkar. Josu mutu. Zuriarrainen txamarran txiklea itsatsi du. Manuelek, orain arte isilik egon den sindikalistak, eskumuinak eman dizkio amarentzat. Gizon txikia eta argala da, berea ez dirudien ahotsa duena.

Abokatua soilik dago eroso, agian egoera ezagutzen duen bakarra delako. Josuri nabarmena iruditu zaio gainerako hirurak bera bezain urduri daudela. Nora urrun eseri da, beraien arteko distantzia argi utzi nahi balu bezala, eta mahaiaren beste aldean kokatu dira sindikatu marroiko Ander eta beste kide bat, Harkaitz izeneko bat. Norak berehala ikusi ditu gune distiratsuak mahai gainean, besteen esku izerdituek utzi dituztenak, hain zuzen. Abokatuaren inguruan ez da

halakorik. Aurkezpenen ondoren, abokatua Josuri begira mintzatu da:

– Zuen aita amiantoaren erruz hil bada, badaukagu zerbait gure alde: oso material ezaguna da eta aspalditik onartuta dago minbizia eragin dezakeela. Baina, aldi berean, kontuan hartu behar dugu betidanik hil dela jendea, jende asko, amiantoaren erruz, eta ia denak isil-isilik.

Abokatuak adibide bat jarri die adi entzuten ari diren lau lagunei: Getafeko Uralita enpresa. Orain 20 enplegatu inguru dauzka, baina milaka langile pasatu dira handik. Urtetan erabili dute amiantoa. Abokatuak esan duenez, ziur aski jende asko hilko zen horregatik, gehienak gaixotasunaren jatorria jakin gabe.

– Enpresa batzordeko kide ohiak eta lehengo langileak mutu daude. Uralitan inoiz lan egin ez duten gazte batzuek osatu dute taldetxo bat amiantoarena salatzeko eta alargun gutxik lagundu diete. Enpresak ezkutatu egin nahi du gertatzen ari dena, garesti aterako litzaiekeelako, eta gobernuak isilpean pasa nahi luke, alarma sozialik izan ez dadin eta azken ardura berea delako. Baina bertan lan egin duen jendeak zergatik ez du ezer esan?

Josuk txalo bat jo du.

– Nahi duzunean hasiko gara martxan.

– Ez da hain erraza. Zuen aita biriketako minbiziak jota hil zela esan didazu, ezta? Bada, pleurako mesotelioma txarra denean, minbizia, kasuen %85ean onartzen da amiantoarekin lotura duela, baina biriketako minbizia beste kontu bat da. Ez da hain erraza frogatzea ez duela, adibidez, tabakoak eragin. Lur eman ondoren gutxiago. Aurretik mediku azterketak egin daitezke, edo azken aukera autopsia izan daiteke.

Norak eztarria garbitu du.

– Zuen aita gaztetatik izan zen erretzailea, ezta?

Josuri keinu etsia atera zaio. Abokatuak azalpenak ematen jarraitu du. Egin beharreko urratsak ditu hizpide. Norak eta Anderrek oharrak hartu dituzte. Amaitu bezain azkar, Josuk, ezer aditu ez balu bezala, bota dio galdera:

– Hortaz, nondik hasiko gara?

– Egia bada zure aitaren biriketako minbizia amiantoak sortu zuela, gaixotu den jende gehiago egongo da. Bilatu biriketako minbizia daukatenak, eta baita asbestosia edo pleurako eta peritoneoko mesotelioma dauzkatenak ere.

5
Etxebe eta Herrera

Bulegoko komunetan inor ez dabilela egiaztatu ondoren, Etxebe ispilu aurrean jarri da, Giza Baliabideetako Ibon K. nagusiaren presiotik ihesi (Asko falta al zaizu txostena bukatzeko?) eta, bide batez, kopetaren erdian hazi zaion sumendia lehertzeko. Bihotzak ia buelta eman dio komun bateko atea ireki denean. Josu irten da bertatik, baina bonba botatzera itzuli behar izan du. Etxebek ispiluan islatuta ikusi du, nola Josu bere alboan jarri den arte ez den konturatu ez dagoela bakarrik.

– Etxebe! Geroxeago pasatzekoa nintzen zurekin hitz egitera. Bazkalduko al dugu elkarrekin?

Segundo erdi bat behar luke Etxebek, gogoratzeko lanez lepo dabilela eta ezin duela gonbita onartu, eta are denbora gutxiago behar du oroitzeko bere nagusi Ibon K. eta ditxosozko txostena; baina, hala ere, Etxebe motel ibili da, Josuk garaiz lortu baitu Etxeberen ezezkoa indargabetzea:

– Lagundu egin behar didazu. Mesedez –hitz horiekin joan da Josu komunetik, Etxeberen erantzunaren zain gelditu gabe.

Paper eta pantaila girotik fritanga kiratserako tartean Etxebek ez du istant bat ere pasatu geroko aitzakiak prestatzen: Hori ez da nire estiloa. Grabatutako elkarrizketak entzuten eta pasarteak transkribatzen eman du goiza, eta entzule jarrera horrekin iritsi da tabernara. Josuk aitortza dirudien bakarrizketa batekin monopolizatu du hitza. Ez al dira inoiz ahitzen aitarekiko kontu freudiar hauek?, pentsatu du Etxebek.

– Ezezagun bati hainbeste kontatzea ez da normala, ezta?

– Nik ere egin izan dut –erantzun dio Etxebek, ez baitu asmorik pentsatzen duena aitortzeko–. Ezagun bati kontatuko ez zeniokeena konta diezaiokezu ezezagun bati. Badakizu ezezagunak ez diola inori kontatuko, axola zaizun inori ez behintzat.

Etxebek espero zuenaren kontra, Josuren hitz jarioak ez du etenik. Bulegora itzultzeko ordua igaro da.

– Pentsa zure aitari gertatu izan balitzaio.

– Imajinatu ere ez dut egin nahi.

Nire aita ez ezazu zure kontuetan sartu, pentsatu du Etxebek.

– Giza baliabideetan daukazuen informazioa behar dut. Batetik, ziur nago han izango dituzuela lehengo enplegatuen zerrendak, lan arriskuei buruzko planak, jendeak bajak noiz hartu dituen eta horrelako kontuak; eta, bestetik, teorian hor egon behar ez duten arren, lepoa egingo nuke osasun txosten batzuk edo langile batzuei buruzko informazioa edo espero ez ditugun beste gauza batzuk aurkitu ahal izango zenituzkeela, ordenagailuetan edo... Entzun dut informazio zaharra beste areto batean dagoela.

– Behin izan naiz han. Paper zabortegi bat da.

– Nire kasa bilatzen ari naiz, baina zure laguntza oso garrantzitsua izan daiteke.

Ez dirudi Josuk hizketan epe mugarik duenik: berriro atera ditu bere haurtzaroa eta nerabezaroa, eta unibertsitatera joan zen garaia, berriro unibertsitatea, eta nola gogoratzen zuen Etxebe garai hartan, eta ez zitzaiola asko kostatu bulegoan ikusi zuen hura Etxebe zela konturatzea.

Etxebek bulegora itzuli nahi du, bakarrik, zain dauzkan lanei lehenbailehen aurre egitera.

– Ez dizut gezurrik esango, Josu: benetan harrituko nintzateke zerbait aurkituko banu, eta gainera ez dakit zeren bila zabiltzan zehazki, baina saiatuko naiz.

Azal epelaren kontra igurtzi du aurpegia Herrerak. Ohaidearen azal leuna eta ahots nerabea. Unibertsitatean zer ikasi nahi lukeen kontatzen ari zaio. Herrerak biziki maite du hitz horien doinua, aspaldiko amets gozo baten musika dira. Bat-batean etena.

– Zergatik begiratzen diozu hainbeste pareko dorre horri? Hain aspergarria al naiz?

Herrerak musu eman dio kopetan.

Lanbide Eskola batean Kimika ikasi zuen Herrerak eta, lan batetik bestera ibili ondoren, ikasketei lotutako enplegua aurkitu zuen: orain parean duen dorrea bezalakoetan ere ibiltzen zen legionella eta gisako gaitzak zeudenetz ikuskatzen, bakarrik bueltaka kotxez, egun batean Donostian eta hurrengoan Barakaldon, eta lagunartean barrez esaten zuen mundua bere erara salbatzen ari zela. Orduan erabaki zuten Etxebek eta biek etxea erostea. Segidan etorri zen langabezia.

– Beste nonbait zaudela dirudi beti.

Herrerak ez daki hemen beste era batera egoten, baina une hauek ezinbestekoak ditu oreka mantentzeko, Etxeberekin pertsona bat eta hemen beste bat iza-

teko, tartetxo honetan zoriontsua balitz bezala, eta Etxeberen beharra ere badu, nahiz eta jadanik ez dakien zergatik.

Estuago besarkatu du Herrerak ohaidea, eta hura berriro hasi da kontatzen zergatik bizi nahi lukeen gurasoen etxetik kanpo; Bilbon, Gasteizen edo Iruñean, oraindik ez du erabaki.

Aulkian erdi etzanda dago bere pareko gaztea. Etxeberen galderek erantzun laburrak besterik ez dituzte jasotzen. Mutila erlojuari begira hasi da.

– Konturatuko zinen esateko ezer interesgarririk ez daukadala.

Elkarrizketaren hasieran bezala, Etxebek patxadaz azaldu dizkio galdetegiaren helburuak, aste honetan hogeigarrenez, aurreneko aldia balitz bezala.

– ...langileak gusturago egon daitezen.

Parean duen gazteari barre txikia atera zaio.

– Eta erabat isilpekoa da: doan bota ditzakezu bururatzen zaizkizun guztiak.

– Nire izena ez da inon agertuko?

– Erabat isilpekoa da.

– Konforme. Segi galdetzen.

– Beste elkarrizketatu batzuek esan dituzten gauzak aipatuko dizkizut. Adibidez, zure lankide batek esan zidan inork ez duela ezer oparitzen eta protesta egin beharra dagoela, batez ere orain, lan hitzarmena negoziatzear dagoenean.

– Esaten dute enpresa hondoratzen ari dela. Nik ez dut sinesten. Baina hala balitz ere, ez dut bekain bat ere mugituko. Izorra daitezela. Orain dela hiru urte bota ninduten beste enpresa batetik beste hogeita hamar tiporekin batera, lan karga murriztu zelako, guztiak aldi baterako kontratua genuenak. Gelditu zirenek kezka bakarra zuten: guk istilurik ez sortzea. Esan ziguten: zuek lasai, eskaerak handitzen direnean, zuek sartuko zarete lehenengo, beti ere orain iskanbilarik ez badago. Oraindik dei horren zain segitzen dut.

– Ez zaitu kezkatzen lanik gabe gelditzeak?

– Asko.

Aulkian postura erosoa ezin bilaturik hasi da mugitzen.

– Neure burua entzuten dut eta ez zait gustatzen esaten dudana, baina horrela sentitzen dut.

Etxebek mingainari eutsi dio. Papereko gidoiari lotu zaio berriro.

– Zure beste lankide batek esan dit berari ondo iruditzen zaiola soldatak hobetzearen alde presioa egitea, baina ezin dela ahaztu benetako arerioak ez direla zuzendaritzakoak, lehiakideak baizik, saltzen ez duten enpresetan lanik ez dagoelako. Are gehiago orain, Anaitasuna S.A. enpresa talde handi batean sartu denetik, taldeekin ere lehiatu behar delako: hemen gertu dagoen Laguniker, Txekiako fabrika hori, laster Txinan eta Brasilen eraiki nahi omen dituztenak...

– Arrazoia daukala irudituko zaio, ziur.

Loa aspaldiko kontua iruditzen hasi zaio Herrerari. Aukera duen bakoitzean erdi etzanda jartzen da, baina lokartuko dela dirudienean, burua lanean hasten zaio. Gaur Etxeberen ahotsa daukan esaldi bat dabilkio: ahaztu aurretik, aitak dirua sartu digu kontu korrontean.

Gauaren erdian jaiki da Herrera ohetik kalera joateko. Ahaztu aurretik? Aurrezkiak xahutzen ari dira. Laster ez dute hileroko gastuak ordaintzeko dirurik izango, eta Herrerak ezingo die gurasoei eskatu, ema-

teko zeukatena hiru seme-alaben artean banatu dutelako jadanik. Nola ahaztu?

Farolek argiztatzen duten Donostia barea zeharkatu du Herrerak paseoan. Mirakruz Gaina pasatu arte eutsi arren, azkenean atera egin du sakelako telefonoa. Herreraren ahotsak oihartzuna egiten du eraikin isilen kontra:

– Zure etxe aurrean nago.

Erotu egin ote den galdetu dio telefonoaren bestaldekoak, gurasoak alboko logelan dauzkala, alde egiteko berehala. Herrerak ez dio gaizki hartu. Bere buruarekin harritu da. Lasaixeago dago orain. Korrika txikian itzuli da etxerantz, aspaldiko partez surfeko taula hartu eta egunsentian Zurriolako hondartzan uretara sartzen lehena izateko.

Giltza eskatzera ausartu izan balitz, orain ez luke kezkatu beharko bere jokabidearen zergatia arrazoitzen. Egin izan bazenu, beste zerbaitek kezkatuko zintuzke, egon lasai, ondo egin duzu, errepikatu dio Etxebek bere buruari. Baina fitxategien gelarako atea zeharkaezina dela ia sinetsi duenean, ordenagailuan bilatzeari ekin dio.

Eguerdia iristear dela hurbildu da Ibon K., presaka, Etxeberen mahaira.

– Bukatu al duzu txostena? Zuzendaria urduritzen ari da.

Epemuga atzeratzea lortu du Etxebek, baina berandu dabil berriro.

Sofan hondoratuta, Herrerak ezin du ulertu telebistan zer esaten ari diren. Beste zerbait dabilkio gogoan. Alboan eserita daukan Etxebek, ordea, telebistari buruzko kontuak besterik ez ditu hizpide.

– Zer moduz lanean? –eten du Herrerak.

Etxebek harrituta begiratu dio, baina disimulatzen saiatu da.

– Harrokeriarik gabe, lanez gainezka, baina laster hobetuko da nire egoera, kontratua berritzen didatenean. Horrek lasaitzen nau. Badakit orain lanarekin itota ibiltzea ez dela alferrik izango.

Erantzunak ez du Herrera batere konbentzitu, baina ez du gehiago entzun nahi, hariari jarraituz, agian, Herrera haserraraziko duen zerbait esan dezakeelako Etxebek, eta gaur ez da horretarako egun egokia. Hurrengo batean zorrotzago galdetzeko ke-

mena bilduko du. Bihar beste egun bat izango da. Akaso Etxeberekin gustura egoteko aukera izango du. Herrera ez da arriskatuko espektatiba hori zapuztera.

Gaixo dagoela esateko deitu du bulegora. Ohearen epelean gelditu dira: batetik, Etxebe ordenagailuari lotuta, Ibon K. eta Josurengandik ihesi eta elkarrizketen txostena behin-betiko amaitzearren, eta, bestetik, Herrera, aste osoko surf saioek ekarri dioten soseguaz gozatzeko asmoz. Eta, bide batez, gaur kalera irten izan balira erabiliko zuketen dirua ez dute gastatuko; gaur, behintzat, ez dute kontu korronte meharra are gehiago argalduko. Herrera inoiz ez da xahutzailea izan, ezta soldata dezentea izan duenean ere. Bere lagun gehienek baino askoz gutxiago behar izan du beti gustura bizitzeko. Baina ez dago ohituta hilabete bukaerara dirurik gabe iristera. Eta bai, damu da Etxeberekin hipotekatu izanaz. Ez du horretan pentsatu nahi, baina berehala desagertu da gaur lortua zuen lasaitasuna.

Igerilekura berriro?, esan nahi du Etxeberen aurpegiak; Gaur asteazkena da!, Nora ere ba al doa?, baina ezer ulertu ez balu bezala abiatu da Herrera. Goizean surfean desosegua kentzea lortu duen arren, iluntzean gustura asko murgildu da igerilekuan. Jo eta txiki ekin dio. Motz gelditu zaio igerilekua, pareta ukitzen du berehala, igerilekuz igerileku joango litzateke, baina igerileku motz hauxe da dagoen guztia, eta lehertu beharrean jarraitu du pareta batetik bestera igerian. Etxera itzulitakoan landare sentitu nahi luke.

Berehala nekatu da. Igerilekuaren bazter batean gelditu behar izan du, ura leporaino. Zaharragoa sentitzen da bat-batean, bizitzan igaro den denboraz benetan oraintxe konturatu izan balitz bezala.

Nora ikusi duenean utzi dio gauza horietan pentsatzeari. Hark ere gaurko igeriketa saioa amaitu duela dirudi. Herrera ur barruan jauzi eginez joan da Nora dagoen lekura. Zain dauka.

– Etxean gelditu al da Etxebe?

– Buru-belarri lanean ari zen alde egin dudanean.

Galderaren truke galdera:

– Txintxo al dabil Josu?

– Ez dizut ezetz esango, ondo portatzen ari delako, eta egia esan harrituta nauka, baina noiz lehertuko zain nago.

Herrerak gaia aldatu nahi du, baina Norak aurrea hartu dio:

– Eta Etxebe, txintxo al dabil?

Galderak ezustean harrapatu du Herrera. Ez daki zer erantzun. Esan diezaioke ezetz, abandonatuta daukala, edo, bestela, erantzun dezake azken hilabeteetan gaizki dabiltzan arren, inoiz ez dela Etxeberen ondoan bezain goxo sentitu. Baina erabaki baino lehenago jarraitu du Norak galderak egiten:

– Asko galdetzea ez bada, zure etxetik hurbilago dago Zuhaiztiko igerilekua, ezta?

– Hemen Bidebietan lagun bat daukat. Hau da, orain zurekin bi. Eta atsegin dut lagunak bisitatzea.

Izenak nahi ditu.

– Ez duzu jarri nork esaten duen zer –kexatu da Ibon K., Giza Baliabideetako arduraduna, Etxeberen txosten bukatu berria irakurtzen hasi bezain azkar.

– Elkarrizketak isilpekoak ziren.

– Nor den nor jakitea komeni zaigu.

– Badakizu ezin dudala hori egin.

Ibon K.k hasperen sakona egin eta, irribarrea ahoan, aulkitik altxa da Etxeberen mahaira zakar abiatzeko, baina berehala itzuli da bere lekura.

– Dena grabatuta dago, ezta?

Etxebek baiezkorik ere ez du egin buruaz.

– Esadazu txostenaren dokumentua eta elkarrizketak non gorde dituzun eta neronek egingo dut lana.

Etxebe hitz egokien bila ari da, baina aurreratu egin zaio Ibon K.:

– Ezin duzu imajinatu zer estu dabilen enpresa. Ezin ditugu orain arazo berriak sortu. Bizpahiru egunetan bukatuko dut elkarrizketen lan hau.

6
Nora

Sorpresa bat daukala esan dio Josuk telefonoz. Kotxean sartu denean eman dizkio azalpenak, eta orain Norak izerdi tantak nabari ditu besapeetan behera, bizkarrean irristaka, aire girotua azaleko zentimetro koadro bakoitza inarrosten. Ohi baino zakarrago gidatzen ari da. Iristen direnean aurkituko duena irudika dezake, eta Norak Josuren aita du gogoan. Bisita, gizon hari egitera joan nahi luke, ez beste inori. Zer pentsatuko zuen Josuren aitak Nora etxean edo sikiera ospitalean agertu ez zelako? Eta amak? Inork ez zion ezer esan Norari. Josu desagertu egin zen orduan ere. Ezin zuen jakin. Baina, hala ere, Norari kosta egiten zaio kontu horrekin bakeak egitea: Josurengandik urrundu ondoren, enpresan zurrumurruak entzundakoan ez zen galdetzeaz arduratu, Josurekiko amorruak erre egiten ziolako, eta horregatik ez zuen jakin familia horretan zerbait ez zihoala ondo.

Festa batera joango balira bezala jokatzen ari da Josu, pentsatu du Norak; urduri egongo da. Baina itxuraz baretu egin da emakume hark atea ireki dienean. Josuren ama izan zitekeen, adinari eta janzkerari erreparatuz gero. Irribarre batekin eraman ditu egongelara, eta besaulkian dagoen gizona aurkeztu die: senarra, arnasa kostata hartzen ari den aurpegi hezurtsu bat.

Josuri etxera deitu ziola azaldu du gizonak, eta telefonoa hartu zuen andreak esan omen zion pasatuko ziola abisua semeari.

– Amak ez dit ezer esan. Ez naiz berarekin bizi. Zorte handia izan dugu, gurasoen etxera posta elektronikoa begiratzera joan nintzen egun bakarretako batean deitu zenuten bigarren aldiz.

– Askotan deitu dugu zenbaki horretara, baina inork ez du hartu.

– Nork deitzen dizun jakitearen desabantailak dira horiek.

Azalpen baten zain gelditu dira anfitrioiak

– Sabotajea gustatzen zaio nire amari.

Bat-bateko haserreak gorritu egin dio aurpegia besaulkian jarrita dagoen gizonari. Arnasa hartu du hizketan hasteko, baina egongelaren erdian egurrezko

aulki zahar batean eseri den emazteak hartu dio aurrea. Olibak, patatak eta antxoak parez pare dituztela, Josuk eta Norak sofatik entzun dute emakumearen solasa. Josuri begiratzen dio batez ere, hura delakoan bietan jantziena. Emazteak azaldutakoaren arabera, erretiroa hartuta dagoen lankide ohi batek kontatu zion senarrari, eta orduan hasi omen ziren deika.

– Berak ez zuen nahi. Esaten zidan nahikoa zuela gaixo egotearekin, ez zuela batere gogorik lankideak berriro ikusteko, eta oraindik gutxiago enpresaren berri izateko. Baina azkenean konbentzitu nuen.

– Ondo, ondo, ondo.

Josuren aldartea berriro bizitu dela iruditu zaio Norari. Emakumea, aldiz, itzaltzen ari zaion irribarreari eusten saiatzen ari da, eta Norak bere buruari gogor egin behar dio, beste norabait begiratzen saiatu behar du, bestela soa etengabe joaten baitzaio gizona eztulka dagoen lekura, umetan errepide ertzean gorpu bat ikusi zuen aldian bezala.

Tximeleta beltz baten antzekoa da hegan, baina gero lurrean pausatu da zomorro. Aitarekin telefonoz ari den bitartean ikusi du Norak.

– Ondo zainduta al dago etxea?

Aldiro galdetzen dio hori aitak eta, azkenerako, Norak ez daki benetan zer galdetu nahi dion. Lehenik salaren erdian hegan dabilen tximeleta beltz baten antzeko hori aipatu dio eta gero Josuren aitaren kontuaz aritu da Nora, aldi berean buruan jitoan dabilzkion ideiak ordenatzen saiatuz. Aitak gogo onez hartu ditu alabaren asmoak, Noraren harridurarako aitari hitz egiten dion bitartean argiak diruditen asmoak, eta aitari gaina hartu dio aholkuak emateko grinak, nahiz eta Norari nabarmena iruditu zaion aitak halako kontuez ezer ez dakiela.

– Ondo-ondo zaindu etxea –esanez agurtu da.

Telefonoa eskegi bezain azkar, Norak lurraren kontra zapaldu du tximeleta beltz baten antzeko hori eta ez zaio batere gustatu birrintzean zomorroak atera duen hotsa. Badakit ez dela labezomorroa, pentsatu du Norak.

Ohean dago oraindik, goizeko zazpi eta erdiak direlako, eta larunbata. Telefonoa mesanotxearen gainean zarataka ari da ero baten moduan.

– Nor zara?

Norak ez dio ezer ulertzen. Telefonoaren bestaldekoa bere azalpenei lotu zaio, entzungor.

– Orain egon nahi duzu nirekin?

Salto batean jaiki da, kirolerako erabiltzen duen arropa jantzi du eta korrika txikian abiatu da Trintxerperantz. Taberna batean zain du Manuel, sindikatu horikoekin bilera egin zuten egunean atsegina izan zen bakarra. Orduan baino zaharragoa iruditu zaio gaur.

– Esnatu egin zaitut, ezta?

Norak lasai egoteko erantzun dio.

– Gaur ezin izan dut lorik egin.

Bere ahotsa ezezaguna egin zaio Norari. Sindikatu horikoekin bilera egin zutenean, Manuelek ez zuen ia hitzik egin.

– Arrazoia duzue. Zerbait egin behar dugu. Zuri kontatu behar nizun. Lotsa ematen dit Josuri esateak, aitarekin pasatu duten guztia pasatu ondoren.

– Zergatik aldatu duzu iritzia?

– Ez dut iritzirik aldatu, baina orain oso argi ikusten dut.

– Zerbait gertatu da?

Manuelek eskumuturrean daraman erlojuari begiratu dio.

– Gaixo nago, Josuren aita bezala.

Norak galdera asko egin nahi dizkio baina ez daki nola. Konturatzerako, mahaitik altxatu da Manuel.

– Hitz egingo dugu hurrengo egunetan. Lanera noa orain.

– Lanera? Nora?

– Tailerrera. Nora bestela?

– Zure egoeran? Eta larunbatean?

– Aste honetan denbora asko galdu dut medikuarenean eta lan bat bukatu behar dut astelehenerako.

Manuelen aurpegia aldatu egin dela iruditu zaio Norari, jadanik ez dirudiela hain zaharra, kemena berreskuratu duela; baina berehala patata tortilla pintxoa erori zaio, Manuel estropezu egiten ikusi duenean taberna kanpoko koskarekin.

Aldaketa nabari dio Josuri. Ia arratsaldero ikusten du, bulegotik irten ondoren, erretiroa hartu duten enplegatu ohiekin hitz egitera joaten direnean. Nora beti porru eginda agertzen da hitzordura, egun osoa paper artean eta ordenagailuko pantailari begira presak jota lanean eman ostean; enpresatik dagokion orduan joaten denez, beharra pilatzen ari zaio. Josu, berriz, pauso lasaian iristen ikusten du maiz, garaiz, inoiz ez

bezala, eta bizarra eginda, ondo lisatutako arropak jantzita, begizulorik gabe.

Erretiroa hartu zuten langileekin bildu dira batik bat, eta alargun bakan batzuekin, betiere elkarrizketak sindikatuen bitartez lortuta. Amiantoaren arrastoak agerikoak iruditu zaizkio Norari kontatu dizkioten istorioetan. Asbestoa, iraungiezina, jendearen bidelaguna, jendea desagertu ondoren ere hor jarraitzen duena, arnasbideetan ezkutatuta, pozoia. Bilera bat egitea adostu dute sindikatu horiarekin eta marroiarekin. Deialdi irekia izango da, gaur egun enpresan enplegatuta daudenentzat, erretiroa hartu dutenentzat eta langileen senideentzat. Ez dute froga sendorik oraingoz, susmoak baino gehiago bai, baina aurrerabide handirik gabe. Bilera horretan informazioa eskaintzeaz gain, hurrengo pausoak emateko oinarriak ezarri nahi ditu Norak (garai batean ere horrelako perspektibak izaten zituen zenbait bilerekiko).

Areto bat lortu dute Groseko Okendo kultur etxean. Sindikatu horiko Zuriarrain eta sindikatu marroiko Ander eseri dira mahaiburuan jendeari begira. Iluntzeko zazpietan hamabost lagun besterik ez daude aretoan. Zuriarrain hasi da hizketan, zertarako bildu diren labur aipatzen eta lan hitzarmenaren negoziazio

hurbila gogorarazten. Ander urduri mintzatu da, gaiari buruz ezer entzun ez duenarentzat ulertezin. Baina Norak ez die hizlariei arretarik eskaini, kezkatuta baitago bilerara etortzen ari den jendearekin. Ordu laurden batean berrogei bat lagun batu dira aretoan. Norak pentsatu duenez, beste inorekin hitz egin behar ez izateko etorri da jendea berandu, aretora sartu eta lasai eseri ahal izateko.

Mutu gelditu da aretoa. Inor ez da ausartu lehenengoa izaten. Isiltasunaren pisua oso handia egin denean, mahaiburuek hartu dute hitza berriro, esandakoa errepikatzeko: Zuriarrain luzatu da gehien, oreka bilatu behar dela azpimarratuz, enpresaren egoera benetan ahula dela, lan hitzarmena negoziatzerakoan arazo handiak izango dituztela, inoizko latzenak, eta tentuz jokatu beharra dagoela amiantoaren kontuarekin, ezerezaren gainean ibiltzeko arriskua handia dela. Anderren txanda iritsi denean, Norari nabarmena iruditu zaio Anderren lotsa, jendaurrean hitz egitea atsegin ez duenez, bere ezintasunean zakar izatera ere ailegatzen dena.

– Zuk *amiantoaren kontua* deitu diozu, baina niretzat falta zaidan senarra da –esan du atzealdean ese-

rita dagoen emakume batek–. Zerbait egiten saiatu beharko dugu behintzat, ezta?

Zuriarrain zuzen eseri da bere aulkian.

– Zalantzarik gabe. Ez dakit ondo azaldu dudan esan nahi nuena. Buru-belarri saiatzen ari gara, eta horretan jarraitu behar dugu. Hemen gauden askok galdu dugu lankidea baino gehiago laguna zen norbait, eta susmoa dugu amiantoa tartean egon daitekeela.

Josu zutitu egin da hizketan hasteko.

– Frogak lortzea da lehentasuna, enpresak amiantoa erabili zuela erakusten duten frogak. Horretarako bi bide dauzkagu: batetik, enpresatik informazioa lortzea: prebentziokoen paperak, erositako materialen fakturak, lan prozedurak, ekoizpenari buruzko datuak, eskuliburuak, ez dakit, informazioa emango digun edozein gauza; eta, bestetik, enpresan ibili diren langileen testigantzak behar ditugu, zer materialekin eta nola lan egiten zuten frogatzeko beste bide bat izan daitekeelako.

– Guk –esan du erretiratu itxura duen gizon batek– betidanik egin izan ditugu panelak fatxada eta sabaietarako, hoditeriak, teilak, ur deposituak eta horrelako mila gauza, eta, nik dakidala behintzat, orain dela ez

hainbeste urte arte gauza horiek fabrikatzeko amiantoa erabiltzen genuen.

– Frogak behar ditugu –eten dio Anderrek, haserre antzera–. Enpresak borondate onez eskura jartzen ez badizkigu, gu geuk moldatu beharko dugu nonbaitetik ateratzeko. Susmoa ez da nahikoa. Frogarik gabe ez goaz inora.

Zurrumurrua sortu da aretoan, jendea albokoekin solasean ari baita. Norak zerbait esan nahi luke, baina ez da ausartzen. Batetik, beldur da jendeak pentsa dezakeelako bera ez dela nor bilera honetan hitza hartzeko. Bestetik, garai batean jendaurrean mintzatzeko izan zuen trebetasuna agian herdoildu zaiola uste duelako. Baina zalantzak mugiezinik daukan bitartean, aretoaren atzealdean eserita dagoen gizon batek altxatu du eskua

– Barkatu. Galdera bat daukat. Amiantoarenarekin zerbait egin behar dela uste dut, baina aldi berean jakin nahi nuke, horretan sartzen bagara nola eragingo digun enpresan lanean gabiltzanoi.

Txintik ez da entzuten orain, egoera lehertu aurreko isiltasun urduria, Norari iruditutakoaren arabera, baina inork ez du ezer esan, jendea elkarri begira dago, harik eta Zuriarrainek erantzun duen arte.

– Pausoak kontu handiz eman behar ditugu. Enpresarekin arduraz hitz egin behar dugu, ez zakar. Asko dago jokoan, agian baita enpresaren etorkizuna ere.

– Arduraz bai, baina enpresari ezin diogu utzi berriro adarra jotzen –esan du Anderrek.

Bilera oraindik bukatu gabe dagoenean, inork ezer aipatu ez duen arren, amaitutzat eman dutela dirudi. Isilik gelditu dira. Luzaroan itxoin gabe altxatzen hasi eta kanporanzko bidea hartu dute. Hitz egiteko gogoz gelditu da Nora. Aulkian eserita zain dago aretoa husten den bitartean. Josu hurbildu zaio, sindikatu horiko Manuel alboan duela. Josu kopetilun dago, berriketarako asmorik ez. Manuelek, ordea, albisteak dakartza: erretiroa hartuta dagoen lankide ohi batekin hitz egin du eta hura ere gaixo omen dago, pleurako minbizia. Manuelek azaldu dio ia segurua dela amiantoak eragin diola, baina gizon hari ez omen zaio axola.

– Lur jota dago, gaixotasunari aurre egiteko indarrak eskas, eta ez dauka gogorik istiluetan sartzeko. Sosegua nahi du, hil behar badu, lasai hiltzeko.

Zazpi hildako, lau gaixo, pentsatu du Norak; ustez, noski, frogatu egin behar bailitzateke.

– Aurrera egiten badugu, zure lagun hori ere sartuko da saltsan.

Esan duenarekin harritu egin da Nora, baina horixe uste du. Ez daki noraino iritsiko diren, baina aspaldiko partez sentitzen du halako zerbait. Bere barruan zokoren batean ezkutatuta zegoen zerbait berreskuratu duela iruditzen zaio. Bitxia, pentsatu du Norak, ahaztuta neukan.

– Zerbait lortuko dugula uste duzu benetan? –galdetu dio Manuelek.

– Kristalezko bola kotxean utzi dut.

Norari bere nagusia etorri zaio burura. Honezkero entzungo zuen zertan dabilen bere enplegatua, honezkero haserretuko zen eta jakinaraziko zien zuzendaritzako gainerakoei: Neska hori konfiantzazko postu batean dago, esango zien, eta pentsatzekoa da ezin duela sindikalkerietara jolasten ibili. Ez, esan dio Norak bere buruari, orain ez dut horretan pentsatuko.

Aretoa husteko eskatu die kultur etxeko arduradunak, ordua dela. Nora bihar arte agurtzear dagoela, Josuk trago bat hartzea proposatu die. Berandu da Manuelentzat. Norak baietz esan dio.

7
Josu

Ordu erdi darama komunean. Eskaileretan behera doazenean pauso hotsak entzun ditzake bertatik. Bere gainetik igarotzen ari dira burrunban, bulegoetatik aparkalekurantz. Herren baten urratsak entzutea ere iruditu zaio Josuri. Orduan ireki du kisketa. Aurpegia urez busti eta irten egin da komunetik, eguzkitako betaurrekoak eta bisera jantzita.

Aparkalekuko bazter batean pilatu da jendea. Apirileko eguzkia indartsu atera da. Gaur ez dago berriketarik. Tarteka oihu egiten du baten batek eta gutxik jarraitzen diote. Josu lurrera begira hurbildu da, paretaren albo-albotik, inor ez agurtzeko. Jende multzoaren atzealdean kokatu da. Pankartan zer jartzen duen ere ezin izan du irakurri, baina horrela behintzat ez du lehenengo lerroan egon behar izan. Hamabost minutu izan dira. Gero, nor bere txokora, lanari berrekitera.

Josuk Nora bilatu du jendearen artean. Ikusi duen aurrenekoa, ordea, herren dabilen gizon bat izan da,

lankideen abiadura jarraitu nahian pausoa behartzen. Inguruan dago Nora, belarria sakelako telefonoari itsatsita, eta Josu harengana hurbildu denean, Norak keinu bat egin dio eskuaz, itxaron dezan. Ia denak lanera itzuli direnez, aparkalekuaren erdian biak bakarrik ez gelditzearren, Nora kotxe artean telefonoz hitz egiten utzi du Josuk. Eguraldi aldaketa dator, pentsatu du Josuk belaunean berriro sentitzen duen mina ukituz; hori besterik ez da izango.

Eskaileretan gurutzatu du Etxebe. Abistu eginez dator, harik eta Josu ikustean isilik gelditu den arte. Josu orduan jabetu da eguzkitako betaurrekoak eta bisera oraindik jantzita daramatzala, baina patxadaz kendu ditu. Etxebek arretaz jarraitu ditu Josuren mugimenduak.

– Agertu al zara aparkalekuko bilkurara?

– Ez, Josu, ezin izan dut.

– Eta esan nizun horretatik lortu al duzu ezer?

– Oraingoz ez, baina uste dut laster izango dudala zerbait.

Ez du kontu onik iragartzen Alberto Zuriarrainen aurpegiak. Josu aztertzen ari da. Txofre tabernan adostu

dute hitzordua. Beste inori ez deitzeko errepikatu dio Josuk behin baino gehiagotan.

– Ni orain nagoen lanpostuan lehen zegoen tipo harekin ez zinen ondo moldatzen, ezta?

– Nondik atera duzu hori, Josu?

Kafea isuri du Josuk izotzez betetako edalontzira.

– Demagun nik lankide bati buruzko kontu batzuk dakizkidala, esate baterako jendea xaxatzen trebea dela, enpresan sartu aurretik saltsa politikoetan leporaino sartuta ikusi dudalako, unibertsitatean adibidez. Bizi dugun egoera honetan bazterrak nahasten has daitekeela kontuan hartuta, zuk, Alberto Zuriarrain, pertsona horren izena eta aurretik egin duena ezagutuko bazenitu, jakinaraziko zenieke haren arduradunei?

– Zergatik egin behar nuke halakorik?

– Arrazoia ez zaio inori axola, baina zerbait esatea nahi baduzu, esan dezagun, enpresaren egoera orain-dik gehiago okertu dezaketela horrelako xaxatzaileek.

– Nahita ere, Josu, ezingo nuke zuzendaritzaren erabakietan eskurik sartu.

Aitak harro kontatu zuen etxean nola lagundu zion Alberto Zuriarrainek semearentzat lanpostua lortzen, zeinen erraz konbentzitu zuen Giza Baliabideetako ar-

duraduna tipo hari kontratua ez berritzeko eta Josu hartzeko, zergatik eta tipo hark Zuriarrain gainerako enplegatuak bezala tratatzen zuelako. Badakizue, esaten zien aitak etxekoei, hainbeste urteren ondoren, Zuriarrain ez da edonor. Josuri istorio horiek ez zitzaizkion batere interesatzen, aitaren betiko kontu aspergarriak ziren. Lana lortu zion eta kito, beste guztia parafernalia.

– Baina zer egin dizu pertsona horrek? –galdetu dio Zuriarrainek.

– Tontotzat hartzen nautenean, komeni da bakoitza bere lekuan jartzen saiatzea. Mendeku hutsa, ez besterik.

Kafe kikara kontu handiz utzi du mahai gainean Zuriarrainek.

– Ez zegoen txarra, ezta? –galdetu dio Josuk.

Buruarekin ezetz egin du, hitz egiten hasi aurretik:

– Nola deitzen da zure zorioneko laguna?

– Etxebe deitzen diote.

8
Etxebe eta Herrera

Goizeko lehenengo orduan bilera-gela txiki batean zain du Ibon K., Giza Baliabideen Saileko arduraduna. Etxebek konfidentzialtasun giro kezkagarria aurkitu du. Ibon K.k orain arte bulegoaren erdian lankide guztiek entzuteko moduan jakinarazi dizkio aginduak, informazioak eta burutazio gehienak. Etxeberi sabelaldean duen korapiloa estutu egin zaio, Ibon K. bizitzan aurreneko aldiz poltsikotik kartera ateratzera ausartu eta, bidean galdu gabe, Etxeberentzako kafea plastikozko edalontzitxo batean ekarriz itzuli denean.

– Badakizu egoera ez dela ona. Azkenean zenbait asmo aldatu egin behar izan ditugu, tamalez.

– Prest nago egoera hobetzen den arte beste lan batzuk ere nire gain hartzeko.

– Kontratu berria sinatzen duzun arte tartetxo batez zain egon beharko duzu.

– Baina aste gutxi barru bukatuko zait oraingo kontratua. Gero kontraturik gabe egin beharko dut Ian?

– Etxean itxaron beharko duzu.

– Kale gorrian utzi behar nauzue?

– Aldi baterako izango da, Iasai.

Isilune labur baten ondoren, Ibon K.k eskua luzatu du Etxeberengana.

– Har ezazu. Badaezpada ere, gomendio gutun bat prestatu dizut. Curriculumarekin batera bidaltzen baduzu, zenbait enpresak kontuan hartuko dute.

Beraz, ez da aldi baterako, pentsatu du Etxebek; saiatu itxura duina mantentzen, eutsi mingainari, neurtu hitzak.

– Zenbat joango gara kalera?

– Oraindik aztertzen ari gara.

Umiliazio sentipenak gaina hartu dio Etxeberi.

– Zer esan nahi didazu, oraingoz ni bakarrik joango naizela kalera? Egoera ez al da txarra besteentzat ere?

Ibon K. aulkitik altxatzen hasi da.

– Elkarrizketatuen izenak eman ez nizkizulako botako nauzue?

– Izenengatik? Mesedez! Behartu egin naute. Ni gustura nengoen zure lanarekin.

– Zuk esan zenidan etorkizuna nuela lan honetan. Eta orain kalera, izenak ez emateagatik bakarrik?

– Hasieratik iruditu zait ez duzula ikusi nahi gauzek benetan nola funtzionatzen duten. Jarrera hori mesedegarria da lan batzuk egiteko, baina uste dut begiak gehiegi itxi dituzula.

Ibon K.ren gomendio gutuna mila zatitan hautsi du Etxebek. Duela ia hamar urte izan zuen krisi hartan bezala sentitzen da, engainatuta berriro, eta horregatik atera zaio amorru izpi hori, gazte eta berde zenean izan zuen motor hura, baina berehala desagertu da, azken urteetako gordelekuan ezkutatzeko.

– Benetan opa dizut zorte ona, Etxebe.

Arnasa sakon hartu du Etxebek.

– Konforme.

– Berriro inprimatuko dizut gutuna.

Etxeberi gehiegizkoa iruditu zaio eskerrak ematea. Bere mahaira itzuli da eta, oraintxe bertan ezer egiteko gai izango ez dela badakien arren, lanean hasteko itxurak egin ditu.

Komunetik berriro ez irtetea erabaki du Herrerak. Hautsi da oreka. Atzo deitu zion maitaleak, berriro ez zuela ikusi nahi esateko. Lehorra izan zen: jakinarazi, telefonoa eskegi eta kito, bukatu da harremana. Orain Herrera baldosa hotzen gainean eserita arnasa sakon hartzen saiatzen ari da, motel, arnasari eutsiz, baina ez du ezertarako balio. Bere gorputza aztertzen hasi da: pinporta txiki bihurtzeko trazak dituen guztia lehertzeari ekin dio, zikina izan daitekeen guztia desagerraraztearren. Ordubete baino gehiago eman du horretan. Dutxatu egin da ondoren. Ordu erdiz. Lehortzen saiatu denean, toalla zuria arrasto gorriztaz tindatu da. Komunetik irteteko prest dago.

Ohera joan da, Etxebek gaixo antzean jarraitzen duen ikustera. Hautsi da oreka. Etxebek sukarra izan nahi luke, baina Herrerak badaki hori ez dela ohetik irten ezinik egotearen arrazoia. Lehenengo aldiz sentitu du Herrerak ez duela Etxeberen pausoa segituko.

– Etzanda bizitzeko asmoa al duzu?

– Ez naiz beste ezer egiteko gai.

Zaurien ziztada sentitzen du Herrerak gorputz osoan.

– Bihar bulegora bueltatu behar duzu. Oraindik egun batzuk gelditzen zaizkizu han. Gutxienez saiatu

ahal duzun informazio guztia biltzen. Gero ikusiko dugu zer egin dezakegun horrekin.

– Informazioa bildu. Denek eskatzen didazue gauza bera.

– Denek? Zeri buruz ari zara?

Etxebek buelta erdia hartu du ohean.

– Ez badidazu kontatu nahi, lasai, bestela ere jakingo dut.

Etxebe salto batean jaiki da ohetik orroka:

– Norari deitu behar al diozu?

Herrera surfeko taula besapean hartuta joan da kalera. Itsasora sartutakoan urak sendatu edo erre egingo duen asmatu nahian ari da.

Bulegoa jendez noiz hustuko itxaroten ari da Etxebe. Uste baino beranduago alde egin dute lanarekiko menpekotasuna dutenek. Orduantxe jaiki da Etxebe bere aulkitik, bulegoan beste inor gelditzen ez dela egiaztatzera. Garbitzaileak beheko solairuetan beste bi orduz egongo direla aurreikusi du. Beldurrez hurbildu da Ibon K. esertzen den mahaira. Etxebe oraintxe ari da konturatzen espero ez dituen gauzak egiteko gai dela, azken urte lotu hauetan badaezpada ere in-

kontzienteki horretarako prestatzen aritu izan balitz bezala: esate baterako, Ibon K.k ordenagailua abiarazteko pasahitza idazten zuen bakoitzean Etxebek teklatuari adi begiratzen zion, baina ez zein zen asmatu nahian, eta, hala ere, *marcoincomparable2016* zela buruz ikasi zuen azkenean, inoiz erabiltzeko batere asmorik gabe, harik eta orain Ibon K.ren ordenagailuan sartu den arte. Aspaldi ez du sentitu Etxebek halako beldurrik, baina gogotsu ari da ordenagailuan dauden dokumentuak aztertzen, eta betiko bi ideiak gurutzatu zaizkio: batetik, ez dut lortuko eta, bestetik, beti pentsatzen dut ez naizela gai izango eta ez da beti horrela izaten.

Urduritu egin da inpresoraren zaratarekin, ozen entzuten baita bulegoaren erdian, egunean zehar oharkabean pasatzen bada ere. Eta oraingoz ordenagailuko dokumentu gehiago ez papereratzea erabaki du. Bare gelditu da berriro bulegoa, baina berehala aretoaren erabateko isiltasuna urratu dute pauso hots batzuek. Etxeberi gihar guztiak tenkatu zaizkio. Garbitzaileetako bat agertu da eskaileretan gora. Zuzenean joan da Etxeberengana. Bulego hauek garbitzen hasteko baimena eskatu dio.

9
Nora

Espero zuena gertatu da, baina era berean Nora harrituta gelditu da jendeak hartu duen ezustekoarekin. Adibidez, Josuk sututa deitu dio etxera. Zuzendaritzakoei informazioa eskatu zietenean, aurreikusteko moduko erantzuna jaso zuten: aurrena baietz, sakon aztertuko zutela amiantoa erabili zutenetz, baina, denbora pasatu ahala, berririk ez zegoenez, sindikatuetako ordezkariek argi eta garbi adierazi zioten zuzendaritzari, emaitza zehatzak nahi zituztela lehenbailehen, eta enpresak ihardetsi zien artean ez zutela ezer aurkitu, ikertzen jarraituko zutela. Egoera honek erraztu egin dizkie erabakiak, baita Alberto Zuriarrainek etengabe azaltzen dituen arriskuei entzungor eginez ere. Kostata adostu dute pankartarako leloa, baina azkenean bildu dira enpresaren aurrean protesta egitera. Gaurkoa dute hirugarren hitzordua. Oraingoz hau izango da presio neurri bakarra.

Manuelen alboan kokatu da Nora. Ia egunero berarekin hitz egiten duen arren, arrotza iruditzen zaio, eta ez daki zergatik, aldi berean Josuren aita gogorarazten baitio eta ezin baitu eragotzi Manuel ospitaleko ohean irudikatzea, argalago, askoz argalago. Egun hauetan eremu ezezagun baterantz doala sentitzen du Norak. Garai bateko sentsazioak berreskuratzen ari zela uste zuen, baina ez, hau beste zerbait da. Manueli begiratu dio eta osasuntsu dagoela dirudi. Uxatu egin behar ditut ideia hauek, pentsatu du Norak; haiekin zentzuz moldatzen ikasten dudan arte. Burujana, ordea, ez da besterik gabe desagertzen. Norbaiti kontatu behar dio. Azken egunetan, bere adiskide Amaia agertzen ez den lagun zerrenda bat osatu du, eta telefono deiak egiten hasi da. Inkesta bat balitz bezala har ezazu, errepikatzen du bere kautan. Protesta bilkura amaitzear denean, sakelako telefonoaren teklei sakatzen ari zaie. Gidaliburu batetik hartuak diruditen erantzunak jaso ditu aste honetan hitzordurako tarterik ez dutela adierazteko. Norak etengabe esaten dio bere buruari normala dela, behinola lagun minak izan ziren haien mundutik desagertuta egon ondoren ezin dela bat-batean itzuli, beti eskuragarri egon izan bazina bezala, abandonatu duzun eremu batean lekua

erreserbatuta bazenu bezala, normala dela, ez larritzeko, hobe dela saiatzen jarraitzea, baina sekulako mina ematen dio, eta jabetu da hurrengo deia egin arte egun batzuk beharko dituela. Gauza hauek arinago hartu nahi lituzkeen arren, tematia da bere alferrikako dramatismoa.

Bakarrik gelditu da aparkalekuaren erdian, bilkuraren arrastorik ez dago jadanik. Zuzendariek zehatzmehatz jakin nahi badute nor joan den protesta deialdira, orain begira badaude, une honetan Nora egongo da begipuntuaren xedean. Konturatu da. Agian estreinakoz aitortu dio bere buruari kolokan dagoela enpresa honetan daukan lanpostua. Baina ez dut horretan pentsatzeko gogorik, erabaki du Norak.

Komunean aurpegia garbitu ondoren itzuli da bulegora. Mahaiaren azalera osoan bere buruari zeregin zehatzak gogoraraziz itsatsi dituen paper zatitxoek atezuan jarri dute. Lanegun luzea izango da gaurkoa. Ate alboko makinatik hartu duen sandwich maionesadun bat besterik ez du izan bidelagun arratsaldean. Ez du beste ezeren berri izan nahi. Lana atera behar du, besterik ez. Hastapeneko estutasuna berehala gainditu du, beharrean buru-belarri murgiltzeak dakarkion baretasuna indartu da, eta azkenean nekea iritsi zaio.

Gaua da dagoeneko, eta bulegoan ez dago inor. Etxera abiatu da, abaildu samar.

Bidebietako kiroldegiaren inguruan aparkatu ostean, kotxea giltzaz itxi duenean konturatu da. Kotxeko zoko gordeena ere miatu du. Ez dauka etxeko giltzarik. Umetan bezala, zazpi urterekin giltza lepoan zintzilikatuta, aita eta ama mundua aldatzen saiatzen ziren bitartean, eta Norak etxera sartzeko giltza galtzen bazuen, afalordura arte itxaron behar izaten zuen portalean eserita edo, bestela, aita edo ama egon zitezkeen lekua bilatzen saia zitekeen Donostia osoan zehar, baina gehienetan alferrik zenez, eseri egiten zen portaleko koskan eta bere kontuetan murgiltzen zen, zazpi urteko ume baten kontuetan, harik eta aita edo ama etortzen zen arte, eta orduan errieta egiten zioten giltza galtzeagatik.

Telefonoa dantzan jarri behar izan du, baina aita amonarekin dago berriro ospitalean, amak ez du telefonoa hartu, eta Amaia lagun berezi batekin okupatuta dago. Herrerari deitzea da irtenbidea. Ez du egingo ordea. Lotsa ematen dio, ez dauka hainbesteko konfiantzarik. Herrera, ez du harekin behar bezala jokatu akaso. Kotxean sartu da atzera eta autobidea hartu du Zumarragarantz. Luzea eta iluna iruditu zaio bidea.

Amonaren etxean ez dago inor, noski, garai bateko altzariak baino ez. Ospitalera joan da. Amona lo dago eta aitarekin hitz egiteko gogorik ez du. Bakarrik erosoago sentitzen da une honetan. Bidebietako giltzak hartu dizkio aitari poltsikoan daraman giltza sortatik eta badoa bueltan Donostiara. Desolazioari aurre egiteko pentsatu du, bizitzak baino bihurgune bortitzagoak dauzkala autobia honek, baina ideia absurdu horrek ez dio asko iraun, eta etxerako bidea umetako kantak abesten egin du, Telekantak batik bat.

Ailegatu denean, ezkaratzean lauzpabost zomorro aurkitu ditu tximeleta beltzaren plantak egiten. Denak akabatu ditu etxeko zapatilekin. Arrasto zikinak geratu dira pareta zurietan. Bihar garbituko ditu.

Ur azpian desagertu nahi luke Norak. Estutzen duten korapiloak azal hezean behera irristatzea. Igerilekua konstantzia handiz kurritzen ari da, umetan ikasi zituen mugimendu metodikoak errepikatuz. Ur-azala sotilki zeharkatzen du beti. Aurrera egin ahala, hurbilago sentitzen da bere buru barruan aurkitu ohi duen oreka puntu horretatik. Bare-bare amaitu du gaurko

saioa. Espero bezala, Herrera dago igerilekuko bazter batean, Norak noiz bukatuko zain.

– Noraino iritsi zara gaur?

– Oso urruti ez, baina gustura gelditu naiz.

Norak prest du behin baino gehiagotan errepasatu duen galdera zerrenda, baina Herrera deseroso antzeman duenez, oinarrizkora jo du:

– Ondo al zaude?

Herrerak igerilekuko urarekin busti du aurpegia, erantzun aurretik:

– Badakit ez zaizula laneko kontuez hitz egitea gustatzen, baina bestela ez dakit nori galdetu: benetan hain gaizki al dabil Anaitasuna S.A.?

Ezustean harrapatu duelako hasi da Nora hizketan:

– Hamabost urtez sekulako etekinak lortu zituzten. Ez dakit enpresan inbertitu duten hori, baina...

Isilik gelditu da Nora, deseroso sentitzen hasi bezain azkar.

Herrerak tonua aldatu du bat-batean:

– Barkaidazu galdera: kalte-ordain bezala onartuko al didazu afaltzera gonbidatzea?

Amak deitu dio telefonoz, ea egunkaria irakurri duen galdetzeko.

– Azkenean ohitu egingo naiz larunbatetan goizean goiz deiak jasotzera. Zuk ez al duzu lorik egiten, ama?

Bere bikotekideak esnatu omen du, amak esan dionez, lanetik itzuli denean, egunkaria eskuan, baina Norak egoera beste era batera imajinatzen du: ama egongelan nobela bat irakurtzen, burua sosegatu nahian, goizeko bostetan esnatu eta gosaldu ondoren, eta bikotekidea egunkariarekin ailegatu denean, amak berezkoa duen presaz berriak errepasatzeari ekin dio, eta hantxe aurkitu du albistea, hiru aldiz irakurri du eta ziztu bizian joan da gainerako egunkariak erostera.

– Hemengo egunkari gehienetan ageri da.

Prentsan dago amiantoa, kolokan dago Anaitasuna S.A. enpresaren izen ona. Bi egunkaritan bakarrik agertzen da ustezko hildako kopurua, besteetan salaketa orokorra bakarrik; baina hasteko ez dago gaizki, pentsatu du Norak, eta croissant bat gosaltzea oparitu dio bere buruari, esne eta Cola Cao pixka batekin, eta gero galletak, eta sofan etzanda egotea, gora begira, telebistan txakurrak nola otzantzen dituzten

ikusten, eta segidan liburu bat patxadaz irakurtzen. Gero aitari deitu dio berriak kontatzeko.

– Ez dago gaizki.

Irribarrez, horrela begiratzen dio Norak egunari. Musika jarri du. Maiatz bukaeran euria egitea ere ondo iruditu zaio.

– Ez dago gaizki.

Odolkiak ordainetan, pentsatu du Norak. Enpresak ez du informaziorik eman nahi izan. Konforme, hortxe duzue erantzuna.

Euforia giro barea dago afarian, aspaldi elkar ikusi ez dutenak biltzen direnean senti dezaketena, baldin eta gai badira elkarrekin gustura egoteko. Lagun koadrila santua, Norak hainbestetan madarikatu duena. Orain paraxutista baten moduan agertu da, afaria antolatu dute eta alkoholik ere ez dute behar mozkortuta sentitzeko, poz kontrolatuaren eraginez agian, baina tragoak ez dira falta, bata bestearen atzetik. Norarentzat pozgarria da pentsatzea akaso azken asteetan egin dituen deiek xaxatu dituztela lagunak afaria antolatzera. Amaia agertu den arren, berehala alde egin du. Norari ez zaio axola, bertan baitaude Miren,

Nerea, Iker, Ainara, Iban eta gainerakoak. Parranda luzatzeko asmoz Alde Zaharrera abiatu direnean, gaztetxoak zireneko kaleen periferian ibili dira, gaztaroaren extrarradioan, baina gustura, rol berria garagardoz garagardo ikasten.

Be Bop, Be Bop, Be Bop, horixe oihukatu dute azken taberna itxi dutenean, Be Bop, hurrengo pubaren izena, eta gaueko ibiltari zailduak bailiran sartu dira. Musika klasikoa dago, betiko pop hori. Norak gogoko du une honetan: Soinu banda egokia daramadan zepelinarentzat. Tabakoaren kea dago giroan, pozaren lausoa Noraren aldartean.

Goizalba ikusi nahi dute orain. Azken puba itxi dutenean, bost lagun geratzen dira gaueko espediziotik. Paseo Berrira doaz, petrilean eserita egunsentia ikustera. Hotza, pentsatu du Norak. Sakelako telefonoa hoska hasi zaio. Zenbaki luze bat da. Bi aldiz pentsatu gabe hartu du.

– Badakit berandu dela hor, sorginen ordua da hemen; baina larunbat gaua denez, pentsatu dut esna bazeunden, telefonoa piztuta izango zenuela.

– Aingeru?

Elkarrizketa nahasi xamarra izan dute, Norak ez duelako asmatu hariari zentzuz nola jarraitu. Aingeru umoreko dago, Nora jadanik lotarako gogoz.

– Laster arte orduan.

Lagunek jakin-minez begiratu diote. Norak ez die azalpen distiratsurik eman: ezagun bat dela esan die, laneko bat, ez dakiela zergatik deitu dion ordu honetan.

Taxia hartu du Bulebarrean. Ohean egon nahi luke. Hutsik dago Hernani kalea, basamortu Avenida eta Mirakruz kalea. Bidebietan poza eman dio dena atzean uzteak. Etxeko giltza jirarazi duenean, goxotasunera sartu da, baina ihes egin dio logurak, beldur kolpe bat izan da. Ezkaratzaren erdian ikusi ditu, hegan, zirimola beltzean. Pipiz beteta dago sala eta pasilloa eta logela.

BIGARREN ZATIA

10
Aingeru

Hegazkinaren astindu txiki batekin esnatu da, kotoizko hodei lautadaren gainetik, mundu guztiak gaizki lo egin duela dirudien egun horietako batean, begiak ireki ezinik, jendeari begiratu eta sonanbulu samaldak ikusten direnean, sonanbuluak autopistan, sonanbuluak aireportuan eta hegazkinean, baina Aingeru ez da horietako bat sentitzen. Iratzarri ahala, ia ez dauka ajearen arrastorik, eta, gainera, haren hondarrak Chicagoko azken parrandaren oroitzapen gozoekin korapilatuta daude. Lasai dago, munduarekin konforme. Are, ez du kezkatzen Donostiara presaka itzuli beharrak, zergatik eta gauerdiko telefono dei batean mesedez eta larritasunez eskatu diotelako. Moldatuko da, beti egin duen bezala, ez du zalantzarik. Loaren lainotik irteten ari den bitartean, eroso dago oroz gain. Ikasia du bere trebeziak miresten, edozein bazterretan lo hartzeko gaitasuna adibidez, inguruan edonor egonik ere, beharrezkoa den uneetan bere baitan

ixteko, atseden hartzeko, esnatu ondoren indarberrituta bueltatzeko. Bidaia luze hau aproposa izaten ari da presarik gabeko kuluxkentzat.

Hegazkina erortzen hasi aurreko orduetan ez du inguruan eserita dagoen inorekin ia hitzik trukatu. Korridorearen beste aldean dauden bi emakume beren seme-alaben diru kontuei buruz ari dira. Aingeruri inoiz ez zaizkio interesatu horrelako gaiak. Hegazkinaren motorrari adi dago, hots monotono sarkor horri. Leihatilatik kanpora hodei zurien izara ikus dezake. Une hau ia ametsezkoa litzateke, baldin eta Aingeruren eta leihatilaren artean gizon erraldoi bat ez balego, errazagoa dena bazterretik inguratzea baino gainetik jauzi egitea, gizona bere eserlekuan gainezka. Hain da handia ezen Aingeruk ezin baitu ikusi gizonaren eta leihatilaren arteko eserlekuan dagoen umea. Aita-semeak dirudite. Aingeruk umetan bezala, mutikoak lo hartu du aireratzerako, eta orduan aitak irribarre triste batekin ingelesez esan du “Orain hamar ordu izerditan” frantses azentu nabarmenez, Aingeruri zeharka begira.

Leihatilaren beste aldean zerua ezkutatzean hasi dira astinaldi bortitzenak. Pilotuak ahots aspertuz jakinarazi die bidaiariei hamabost minutu barru lur hartu-

ko dutela Charles de Gaulle aireportuan eta ez kezkatzeko aire poltsengatik. Alboko gizonak erreka baten antza du dagoeneko. Aingeru oso lasai dago, ordea, aurki surfeatuko dituen olatuetan pentsatzen, Groseko hondartzan berriro.

Une labur bat besterik ez da izan amildegian behera. Ezustean harrapatu du. Bidaiari guztiak esnatu egin dira bat-batean, ez dago sonanbulurik, oihu ozen erdiragarriak baino ez, aldizkariak hegan. Aingeruk ezin izan du une honetarako ideia bakar bat ere berreskuratu, ez lasaigarria, ez beldurgarria, ez ezer. Hutsik gelditu da. Ondoko gizon lodiak lehenik semeari heldu dio eskutik eta berehala Aingeruri begira gelditu da. Sorbaldan jarri dio esku izerditua. Horrek hunkitu du Aingeru gehien, ezezagun bat berarekin horrela arduratzea. Istant batez izan da: korridore aldean azafata ikusi du Aingeruk, eskuineko eskua eserlekuari helduta eta hankak gerriaren gainetik hegan, baina aurpegian asperdura, ordu gehiegi lanean daramatzanarena bezalakoxea, eta orduantxe itzuli da dena bere onera. Orroak kolpez desagertu dira, ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzeko, eta bidaiariek berriro ekin diote egunerokotasunaren antzezpenari. Alboko gizonak, aldiz, hasperen luzea egin du. Mutikoa esna-

tzen hasia da. Hodeiak bakantzen ari dira. Parisek maketa bat dirudi. Mutikoak leihatilaren kontra itsatsi du aurpegia. Aingeruk ezin du kanpoaldeko ezer ikusi. Lurrundu da lasaitasuna. Oso tarteka gertatzen zaio, bat-batean agertzen diren hutsuneak, depresio kolpeak dirudite, gehienetan ageriko arrazoirik gabe, eta Aingeruk horrelakoetan sumatzen du nola zabaltzen den arrakala bere bizitzan, porrot egin izan balu bezala, zertan jakin ez arren. Orain bi ideia dabilzkio buruan: batetik, New Yorkeko JFK aireportuan eskala egiten ari zen bitartean komunetan ispiluaren aurrean sentitu duen angustia izpi hori, ilea bakantzen ari zaiola ikuste hutsagatik, eta, bestetik, Miarritzeko aireportura bila nor etorriko zaion jakiteko irrika.

Lur hartze lasaia izan da. Ez du asko itxaron behar izan Miarritzerako hegaldia hartzeko. Eta berehala iritsi da. Maleten zain dagoen bitartean berreskuratu du patxada. Jende askori idatzi dio noiz ailegatuko den jakinarazteko, erdi txantxetan erdi serio bertaratu daitezela iradokiz, ahal bada txaranga eta pankarta hartuta, eta San Juan bezpera denez, ospatu ere egin dezaketela. Ateen beste aldean, zain dagoen jendearen lehen lerroan, aita eta ama daude. Ederra izan da elkar besarkatzea eta bina muxu ematea.

Ingurura begiratu eta ez du beste inor ikusi.

Logela inoiz baino handiagoa iruditu zaio. Ohea, munduko erosoena. Leihoaren beste aldean belardi txukun hesituak eta bakandutako luxuzko etxeak ageri dira. Kanpotik begiratuta, badirudi bizitoki bakoitzean egongo direla kotxe handiak, pedigreeko txakurrak eta markako arropaz jantzitako haurrak. Aingeruri lasaitasuna sentiarazten dio inguru honek. Ez du jet lag arrastorik.

Aspaldi jantzi gabeko pijama soinean daramala irten da logelatik, gurasoak sukaldean edo egongelan topatuko dituelakoan, garai bateko larunbat goizeko errutinak errepikatuz, baina pasilloan erabateko isiltasuna dago. Gurasoak oraindik ohean egotea arraroa iruditu zaion arren, atzerrian bi urte eman dituela gogorarazi dio bere buruari eta ez dela harritzekoa gauzak aldatzea. Laranja zukuaren bila sukaldera abiatzear dela, hots ito bat entzun du gurasoen logelan, negarra agian, amarena. Gorputzari tira eginez iritsi da gurasoen logelako ate parera eta orduantxe isildu da hotsa. Sartzeko baimena eskatu du Aingeruk eta

inork erantzun ez dionez, ireki egin du atea. Ohearen ertzean eserita topatu du ama.

– Ondo al zaude?

– Bai, lasai.

Benetan itxura ona ikusi dio amari, baina galdetzera behartuta sentitu da:

– Zer gertatzen da?

– Zuen aitaren eta bion arteko kontuak.

Aingeru zain gelditu da, nahiz eta ez duen gogorik gehiago entzuteko, eta amak ezer esaten ez duela baliatuz, joan egin da, modako aldizkari batetik aterata-koa dirudien sukaldera. Amak ez du denbora asko behar izan bertan agertzeko. Badator zaparrada, pentsatu du Aingeruk.

– Zuen aitari galdetu behar zenioke non dagoen. Ez dut esango langilea izan ez denik, baina urteak dira larunbat goizean ez dela bulegora joaten.

– Lagunen batekin egongo da kirola egiten.

– Horixe uste dut nik ere. Zer lagun eta zer kirol esan behar. Ez dizut esango ondo iruditzen zaidanik, baina gaizki ere ez litzaidake irudituko, beti ere nik neure laguntxoarekin kirola egin nahi dudanean, eta disimuluz egiteko gai banaiz, berak sekulako liskarra sortuko ez balit, zeren, noski, zuk bai eta nik ez... hori

ez da justua. Ni gustura ibiltzen naiz zuen aitarekin publikoki senar-emazte plantak egiten, eta zuen aitak ere ondo pasatzen du, benetan, ez da itxurakeria, gure erara maite dugu elkar, eta ni prest nago hala jarraitzeko, baina kafea denontzat, baita niretzat ere.

– Ez dakit zer esan. Ez nekien ezer.

Denbora nahikoa pasatu dela iruditu zaionean, laranja zukua eskuan duela irten da Aingeru logelara eta segituan hartu du sakelako telefonoa aitari deitzeko.

Hutsik dago etxea aspaldi, baina Aingeruk hainbat urtez erabili du bertako logela bat, tarteka gauren bat edo beste igarotzeko, konpainia onean maiz, eta gehienetan surferako materialaren biltokitzat. Aitak arazorik gabe utzi zion giltza. Gaur poliuretanozko taula luzeak azkenekoz utzi zuen bezalaxe jarraitzen du, paretaren aurka zutik, alde bateko azalera osoa parafinaz estalita. Leihoaren bestaldean Zurriolako hondartza eta itsasoa ikusten dira zeru lainotuaren azpian.

Neoprenozko jantzian sartzen hasi da Aingeru, kostata, handitu zaion gerribueltak traba egiten bai-

tio. Ispiluaren aurrera joan da korrika. Gorputz zurbil horrek tristura ematen dio; hanka iharrak, sorbalda estuak, haragia nondik eroriko den nabarmenegi Aingerurentzat, eta etorkizunaren abangoardian gerrialdeko txitxia. Neoprenoa goraino itxi du kolpez. Harritu egin da bere pentsamenduekin: zooan gehiegi jaten duen pinguino alferra dirudi ispiluko horrek. Txankletak jantzita abiatu da hondartzara. Kalea zapaldu orduko trafikoaren zaratak lagundu dio pinguinoaren ideia uxatzen.

Itsaso barruranzko urratsak astiro egin ditu, nahiz eta ura jadanik ez dagoen hain hotza. Udan ohikoa ez den arren, olatu ederrak daude, hego haizeak itxuratzen ditu. Olatu-gunea alderik alde neopreno beltzez zipriztinduta dago. Aingeruk berehala hartu du lehenengoa, bere eskuinean zeuden beste bi surflariri lapurtuz. Berdin zaizkio aurpegi txarrak, eguna zoragarria da. Ordubete eman du uretan, zentrifugagailu erraldoi batean sartuta balego bezala, kezkak eta angustiak astintzen. Biziki maite du sentsazioa. Aldarterik makurrena ere garbitzen dio, beti irteten da biziberrituta. Eta azkenean, hondartza pareko etxera bueltan, amaitzen ez den dutxa beroa.

Orain prest dago aitaren bulegora joateko.

Eguerdiko hamabiak jota iritsi da. Burua paper artetik altxa gabe agurtu du aitak.

– Zertan ari zara gaur hemen? Larunbata da.

– Zerbaitegatik eskatu nizun mesedez Donostiara itzultzeko. Aldaketa handiak datoz eta zure laguntza beharko dut horiei aurre egiteko. Nire osasuna ez da lehengoa. Badirudi oraingo honetan ez dela txantxa.

Aingeruk patxadaz aditu du aitak xehe-xehe kontatu dion guztia. Beste garairen batean aitak horrelako zerbaitegatik Donostiara etorrarazi izan balu, liskar handia izango zuketen elkarren artean, baina Aingeruk gaur ez dauka horretarako asmorik. Gustatu ere egin zaio aita berriro kementsu ikustea.

– Eskertzen dizut nitaz arduratzea, benetan. Seme nagusia nahi zenuen lekuan dago eta orain txikia kokatu nahi duzu. Ondo iruditzen zait zure aldetik, baina hori zure ametsa da, ez nirea.

– Ez dut horregatik bakarrik egiten. Une kritikoan gaude eta lan hau inork ezingo luke egin zuk bezain ondo.

– Nire esperientzia txikia da beste batzuenaren aldean.

Aitak bekozko jaso ditu mahai gainean dauzkan paperak. Sermoiaren unea ailegatu dela jabetu da Aingeru.

– Zuk zer uste duzu, enpresa hau bera bakarrik eraiki dela?

Aingeruk badaki alferrik dela erantzutea. Eserlekuan eroso jartzen saiatu da. Aitak mahai gainean daukan bonboi kaxa bere aldera ekarri du eta bat bukatzerako hurrengoa hartzen ari da, harik eta kaxa hustu duen arte, artean aitaren erretolikak amaigabea dirudiela.

Presaka sartu da uretara, itsasgora baino lehenagoko olatuak hartzera. Ez da surferako egunik onena: jende gehiegi, olatu eskasak. Itxurosoa den zerbait datorren bakoitzean, putreak haragira bezala mugitzen dira likradun kamisetak eta neoprenozko jantzi beltzak ur-azalean. Estreinako ahaleginean, Aingeruk apar, taula, beso eta hanka zirimola batean bukatu du.

– Nor zarela uste duzu? –galdetu dio surflari batek orroka –. Beste olatu bat lapurtzen badidazu, taula puta hori buruaren kontra txikituko dizut.

Aingeruk ezentzunarena egin du. Gaur sentitzen duen desosegua baretzera etorri denez, olatuen gora-beherak besterik ez zaizkio interesatzen. Beste guztia, zarata.

Gorputz horren kontra goxo lo egin zuen makina bat bider eta orain ia arrotza iruditzen zaio. Mirador de Ulia jatetxea eszenatoki aproposa da Aingeruren asmoak gauzatzeko: giro lasaia, afari sofistikatua, goialdetik ikusten da hiria gaueko argiekin. Ane, ordea, ez da jokatzen ari Aingeruk espero zuen papera. Lagunak besterik ez balira bezala hitz egiten dio, baina Aingeru ez dago amore emateko prest.

– Berriro saiatu behar genuke.

– Zuk benetan uste duzu bi hitz politekin konpon dezakezula?

Gogotik saiatu da Ane konbentzitzen. Iragan partekatuari buruz mintzatu da, elkarrekin gustura egoteko ezaugarri egokiak dauzkatela, akatsak zuzentzeko borondatea duela.

– Zeri buruz ari zara? Zilborrari begira bizi izan zara beti. Noiz altxa behar duzu burua ingurura begiratzeko?

Afalostea luzatzen ahalegindu da Aingeru, ekaitzaren ondoren barealdia etor zitekeelakoan, baina ez du zirrikiturik aurkitu eta inguruan afaltzen ari direnak baino lehenago altxatu dira mahaitik. Hain konpultsiboki jan du Aingeruk, ezen janariak gainezka egingo diola sentitzen duen. Kotxean sartu direnean, hondartza alboko pisura gonbidatu du Ane eta honek amorratuta begiratu dio, ia txistua aurpegira bota behar diola dirudi. Ane bere gurasoen etxeko portalean utzi ondoren abiatu da Gros aldera. Hondartza alboko pisuan lo egingo du. Bihar esango die gurasoei bertara joango dela bizitzera.

Etxera sartu aurretik, itsasoa nola dagoen ikustera jaitsi da hondartzara. Ez dabil inor. Mina eta noraeza sentitzen ditu. Pentsa dezake azken enkontruagatik dela, Donostiara itzultzearen nostalgiagatik, gurasoekin sintonian ez dagoelako, lagunekin hitzordu bakar bat adostea zaila izaten ari delako edo, fisiologikoago jarrita, gehiegi jan duelako; baina funtsean ez du hori pentsatzen, uste baitu benetako arrazoia ez duela ezagutzen, inoiz ez duela jakingo, inork ez duela jakin nahi izaten. Itsasoaren ertzean arnasberritzeko giro aproposa dagoen arren, betekadak ondoeza eragin dio eta, ustekabean, botaka hasi da. Hobeto senti-

tzen da orain, arinago, garbiago. Sakelako telefonoa hartu du. Ez da berandu Chicagora deitzeko.

Norak ez dio telefonoa hartzen, ez du mezu bakar bat ere erantzun. Gaur, ordea, berriro saiatu da Aingeru. Inoiz ez da ezerekin egoskortu, baina Donostiara itzuli denetik sekula bizi izan ez duen egoeran dago: lanik ez, ikasketarik ez, eta eguna luze egiten zaio, gero eta ezinegon handiagoa sentitzen du, eta sosegu falta hori uxatzearren ekin dio azken egunetan telefonoz deitzeari, ahal duen jende guztiari, pixka batean berriketan aritzeko edo, aukera izanez gero, hitzordua adosteko, baina gaur egunetik begiratuta, historiaurrea dirudite lagunak elkarrekin alde batetik bestera ibiltzen ziren garaiak, eta urrun gelditu dira, baita ere, orain dela ez hainbeste urte adosten zituzten tartekako plan txiki haiek. Lana, umeak eta bestelako zereginak nagusitu dira eta, gainera, Aingeru berehala konturatu da bere egoera okerragoa dela, azkenaldian lagunei ez dielako garai bateko arreta eskaini, bestelako interesak zeuzkalako edo azken bi urteetan atzerrian ibili delako denbora gehienean. Horregatik ari da jo eta txiki telefonoz deitzen, sofan etzanda txokola-

tea eta galletak jaten, poltsako patata frijituak eta olibak, urdaiazpikoa eta gazta ogitartekoa. Azkenean lortu du zenbait lagunekin afaritxoa antolatzea gauerako, eta hurrengo asterako hitzordua Norarekin.

Sekula baino estuago sartu da neoprenozko jantzian. Tripako mina itsasora sartu bezain azkar ahaztuko zaiola espero du. Eguraldi grisa ez da oztopo. Olatuak besterik ez ditu behar. Taula besapean kalera irten eta, berehala taberna baten beiraterian ikusi ahal izan duenez, haize zakarrak bafada pare batean nahastu dio ilea. Orrazkeraren ordena galdurik, oso nabarmenak dira soilguneak. Angustia moduko bat sentitu du eta atsekabetuta sartu da uretara. Itsuitsuan hartu ditu aurreneko olatuak, egin dizkioten oihuei entzungor. Itsasoa da bere terapia. Ez du beste ezertan pentsatu nahi. Eta Aingeruk ez du denbora asko behar izan itsasoaren dantzan baretzen hasteko. Gero eta lasaiago hartzen ari da olatuak, ingurukoez arduratzeke, harik eta bizkarraldetik hurbildu zaion norbaitek lepotik heldu dion arte, zakar, ito nahian bezala, eta Aingeruk itsasoaren gorabeherak baliatuz kolpeka egin dio ihes.

– Esan nizun ez berriro lapurtzeko niri olaturik.

Aingeruk larri hartu du aparretan hautsita datorren olatua. Orroka jarraitzen duen beste surflaria hurrengo olatuan doa. Aingeru hondartzara iritsi denean, korrika hasi da, taula besapean hartuta. Besteak itsaso ertzean utzi du taula eta atzetik doakio lasterka, baina jazarpenak ez du askoz gehiago iraun, Aingeru hondartzatik irteteko eskaileretan irristatu eta erori egin delako. Orkatila dantzan, izarrak ikusi ditu.

– Ez zenuen besterik merezi –esan dio surflariak.

11
Nora

Insomnioaren sindikatua osatu behar dugu, pentsatu du Norak. Goizeko zortzietan aitak deitu dio telefonoz, handik gutxira Josuk, biek egunkariko albisteari buruz hitz egiteko. Nora, berriz, goizeko seietatik dago esna, altzarietan pipien aurkako likido usaintsua brotxaz ematen. Hasieran spray poteekin ekin zion egurra konpultsiboki zipriztintzeari, baina eraginkorra ez zela ikusi zuenean, Secundino Esnaola kaleko pintura denda batean galdetu zuen.

Urduritasuna nabaritu du telefonoaren beste aldean.

– Larunbatetan inork ez al du lasai lo egiten Donostian?

– Irakurri al duzu egunkaria?

Albistearen arabera, sindikatu horiko eta marroiko kide bana, hain zuzen lan hitzarmena negoziatzearen arduradunak, soldatetan eta pentsioetan gainsari handiak kobratzen ari dira enpresaren aldetik.

– Hemen ere, negoziatzaile ustelak.

– Kontu honek alde ona ere badauka: Zuriarrainenak egin du –poztu da Nora.

– Oraingoz ez behintzat.

Albistean ez da Alberto Zuriarrainen izena agertzen. Gainsarien hartzaileak Harkaitz Perez eta Jon Mikel Igoa dira, sindikatuen ardura nagusia izan gabe negoziazioetan dabiltzan bi gazte.

– Abisu bat da. Enpresak badaki Zuriarrain gai dela egoera bideratzeko eta horregatik ez du oraingoz zikindu.

– Kontraerasoa hasi da, beraz. Zure zuzendari horrek, Pedro Tolosak, badaki hariak mugitzen.

– Ez zen zaila, gure lagunak zein diren ikusita.

Telefonoa eskegi duenean, Norak lehen baino kemen handiagoz ekin dio pipien kontrako tratamenduari. Likidoa eman ondoren, plastikoz estali behar ditu altzariak, zirrikiturik utzi gabe, pipiak bertan ito daitezen. Ez dute beren borondatez alde egingo. Akabatu egin behar dira. Arnasbiderik gabe pipiak altzarietako ezkutalekuetan hiltzen direnean, oraindik ez dira plastikoak kendu behar, pipiek jarri dituzten arrautzak ireki eta haiek ere kimikak itotzen dituen arte. Tratamenduak berrogei egun iraun behar duela

esan diote, baina Norak, badaezpada, denbora gehiagoan eustea erabaki du.

Noraren etxeak, Noraren etxea ere ez denak, itxura berria du: plastikoetan bilduta daude altzariak, eta lehen armairuen barruan zegoen guztia plastikozko poltsetan dago orain, etxe osoan barreiatuta.

Tabernan eserita egon den bitartean, nahiko ondo zegoela zirudien, giro sargoriak eragingo ez balio bezala, baina kotxera joateko jaiki bezain azkar arnasestuka hasi da Manuel. Norak ez daki zer egin laguntzeko. Pausoa moteldu eta gelditu egin da Manuel. Atsedenalditxoaren ondoren itzuli da bere onera, kotxera iritsi eta eseri denean.

– Garai hartan ez genekien kaltegarria zela. Hautsez beteta bukatzen genuenean, ez zen gure gustukoa, baina lasai asko bueltatzen ginen etxera. Niri emazteak garbitzen zizkidan laneko arropak. Orain bera ere beldurtuta dago. Gaixotu egingo dela uste du.

Norak ez daki zer esan. Martxan jarri du kotxea. Berandu iritsiko dira bilerara. Trintxerpen bizi dela esan zion Manuelek aurrekoan, Noraren etxetik hurbil,

eta elkarrekin joatea proposatu dio Norak. Biek dute interesa, beste inor aurrean egon gabe hitz egin nahi dutelako. Manuelek, Josuri buruz:

– Mutil hori inoiz ez da nire gustukoa izan. Aitari arazo asko sortu zizkion. Eta orain ere ez naiz fidatzen.

Nora aspertuta dago Josuri buruz gaizkiesaka nola egiten duten entzuteaz. Sarri ikusi du Josu burugaldu, baina Zuriarrainen gisako jendea ez dago lehenengo harria botatzeko egoeran, eta Norari ez zaio iruditzen Manuel posizio horretatik hainbeste urrundu denik. Garai hartan inork ez zekien amiantoa kaltegarria zela?, pentsatu du Norak. Baina ez du ezer esan. Lehenetsi egin du barruan darabilkien beste kontu bat norbaiti azaldu ahal izatea, eta hasteko ez zaio bururatu Manuel baino pertsona egokiagorik.

– Aingeru Tolosak deitu dit, enpresako zuzendariaren semeak. Donostian dago berriro, eta nirekin hitz egin nahi duela esan dit. Ez dakit joan behar nukeen. Balioko al du ezer bideratzeko?

Manuelek baietz erantzun dio. Nora, ordea, ez da lasai gelditu. Manuelek hitz egin bezain azkar jabetu da aurretik ere bazekiela Manuelek zer aholkatuko

zion. Zertan ari naiz, pentsatu du Norak, babes bila? Horregatik ez diot galdetu aurrena Josuri edo Anderri?

Igerilekuan kilometroak egin arren, ezerk ez duela sosegatuko iruditzen zaio Norari. Berehala etsi du. Igerilekuko bazter batera joan da, Herrerak bukatu arte itxarotera. Inguratu zaionean, elkar agurtu eta berehala galdezka hasi da Nora:

– Giza Baliabideetan...

Baina ez du aurrera jarraitu. Norak uste du ez dela zuzena Herrerari informazioa eskatzea, orain arte, Herrera galdezka etorri zaionean, Norak ez diolako ezer kontatu nahi izan.

Igeldon elkartu dira laurak. Bilera irekia antolatu aurretik ezinbestekoa iruditu zaie, baina orain, mahaiaren bueltan eserita, udako bero sapak izerdia baino ez duela sustatzen dirudienean, ez du ematen inork hitz egiteko gogorik duenik. Manuelen arnas hotsa ozen entzuten da.

– Bihar nola eskatuko diet konfiantza izan dezatela? –galdetu du Anderrek.

– Mesfidantza puntu bat ere ez zaie gaizki etorriko –erantzun dio Norak.

– Barkatu, baina esan duzun hori ez zait errealista iruditzen.

– Barkatu, baina konfiantza handiegiak artaldeetan bakarrik ikusten dira.

– Kritikarako gaitasunaz ari zara, ezta? Bada ni teorian ados nago zurekin, baina praktikan lan hitzarmena negoziatzeaz ari naiz, eta, gainera, amiantoarekin egin dituzten kalte guztiak ordainarazteaz, eta hori lortu ahal izateko presioa egin behar dugu. Esango didazu nola izango garen eraginkorrak gure enpresa zoragarri horretan, kontuan hartuta ez dugula gogorik ezta kafe bat hartzera elkar gonbidatzeko ere.

Norak hogei urte inguru zitueneko hainbat pasarte gogoratu ditu bat-batean eta, bide batez, mesfidantzaren baliagarritasuna goretsi du bere baitan, munduan bizitzeko ezinbestekoa delakoan, ingurukoei begiratzeko, Anderri, Josuri, Manueli so egiteko; baina ez du ezer erantzun nahi izan, taktikoki, bai baitaki dena bertan behera uztear daudela, mesfidantzatik harago jendearen animoa oso higatuta dagoela. Bai: mesfidantza aspaldi gainditu zuten, orain elkar ezin eramana nagusitu da, berak ez dauka formula magikorik;

une honetan mahaiaren inguruan dauden laurak elkarrekin mantendu behar ditu.

– Saiatzen jarraitu behar dugu –esan du Norak isilune luze baten ondoren.

– Lehen zaila bazen, orain auskalo –ihardetsi dio Anderrek.

– Konturatu al zarete egoera inoiz baino argiagoa dela? –galdetu du Josuk garagardoa mahai gainean utzita–. Enpresan pozoitu ziren langile horiek; zuzendaritzak bere esku dagoen guztia egingo du arazoa estaltzeko, eta guk egiten dugunaren arabera aldatuko da emaitza.

Norak hasperen egin ondoren hitz egin du:

– Eskema bezala oso... eskematikoa da, baina egoera zure buruan bakarrik dago argi, errealitatean oso beltz dago.

Anderrek baietz egin du buruaz, eta orduan hasi da eztabaida, Nora eta Ander indar handirik gabe, Josu fede itsuaz. Norak ondo ezagutzen du Josuren aldarte hori. Bikote izan ziren garaian boladak izaten zituen, goraldiak, puztuki baten gisan husten ziren euforia egunak, eta beherakada bortitzak, putzu batean hondoratzea bezalakoak. Baina orain Norak inbidiaz entzuten du Josuren diskurtsoa, indarrez gainezka, itxu-

ra ezin hobearekin, ilea garbi eta txukun, arropa ondo lisatuta, begizulorik gabe, Norarekiko harremanaren aparrean zegoenean bezala. Josuren aldarteari jarraiki, Nora prest legoke baxualdi luze bat nozitzeko baldin eta istant honetan egoerak eskatzen dion bezainbesteko kemena biltzeko gai balitz. Horregatik utzi dio Josuri pentsatzen duen guztia lasai azaltzen, Norak badakielako, neurri batean, Josuk arrazoi duela. Ander isilik dago. Azkenean Josuren grina nagusitu da eta hurrengo egunetarako zereginak banatu dituzte: lankide eta senideekin egin behar duten bileraren gai ordena ondo landu, ahalik eta jende gehiena gonbidatu, nork bere sindikatuko kideekin bakarka egoera argitu, eta gaixo egon daitezkeen lankide gehiagoren bila jarraitu.

Norak ez die esan Aingerurekin hitz egiteko asmoa duenik. Lotsa ematen dio.

Manuelek ez du fitsik esan ordura arte, baina bilera amaitzear denean hartu du hitza:

– Zuriarraini kontatuko diot nik gutxi gorabehera hemen hitz egin duguna.

– Gero zuzendaritzari konta diezaion –erantzun dio Anderrek.

– Horrela adostu dugu hasieran eta orain bete egingo dugu hitzartutakoa.

Erneguak gainezka egin dion arren, Norak razionalizatu egin nahi du une honetan sentitzen duena: Ez dakizu Aingeruk zer pentsatzen duen, aitaren semea izanagatik ezin duzu automatikoki zaku berean sartu, ahalegindu egin behar zenuke bera ere zure alde jartzen, horretarako ere gai zara.

Hondartzaren inguruan paseoan ibili da lehenik. Josuri telefonoz deitzekotan egon da berriro, baina ez zaio egokia iruditu, edo agian ez da ausartu. Eta azkenean etxe-atarira abiatu da eta bi aldiz pentsatu gabe sakatu dio atezain automatikoaren botoiari. Igogailuan topatu duen bizilagunari kortesiazko irribarrea egiteko gai ere ez da izan. Lasai hartu, Nora, pentsatu du, ziur aski alferrikako tramitea izango da eta.

Atea ireki dionean, pozik ikusi du Aingeru. Itzulingururik gabe, makuluen gainean arin mugituz gidatu du Nora korridore luzean zehar egongelara. Norari deserosoa iruditu zaio haren ahots tonu alaia, eta are gehiago bera egongela zuri handiko sofa marroi batean eseri denean larruzko beste sofan jartzera lagun-

kiro gonbidatu duenean. Norak ez ditu kontatu korridorean zehar ikusi dituen ate guztiak, baina asko ziren. Etxe luze horretan nonahi dago abangoardista itxurako dekorazioa. Nora lekuz kanpo sentitzen da, pittin bat higuinduta, lehendik ez baitio denborarik eskaini Aingerurekin elkarrizketa izango zuen eszenatokia aurreikusteari.

Chicago izan da estreinako hizpidea, Aingeruk sustatua, baina Norak aurrerabiderik ematen ez dionez, berehala lotu zaio Norak telefonoz azaldu dion gaiari:

– Inoiz ez nuen ezer entzun horri buruz.

Alde egiteko gogoari eutsi dio Norak:

– Argi gelditu da amiantoa erabili zutela.

Aingeruren ihardespena espero du Norak, baina Aingeru informazio gehiagoren zain dago.

– Garai bateko zenbait langileren testigantzetatik lortu dugu informazioa. Enpresak bere aldetik ezer egiten ez badu, askoz zailagoa da datu guztiak lortzea.

Norak informazioa amaitutzat eman duen arren, Aingeruk galdera asko dauzka. Xehetasun txikienak ere interesatzen zaizkio. Arratsalde osoa eman dute horretan. Aingeruren jarrerak ezustean harrapatu du Nora, pozgarria iruditu zaio.

Gaua iritsi da eta oraindik ez dute afaldu. Aingeruk behean dagoen Wok jatetxe txinatarrera gonbidatu du, baina Norak etxera joateko gogoa du, hitz egin dutenari buruz hausnartzera eta ideiak ordenatzera, eta, gainera, uste du ez litzatekeela aproposa biek toki publiko batean elkarrekin afaltzea. Gonbitagatik eskerrak eman dizkio eta korridorera abiatu da. Aingeruri gehiago kosta zaio makuluekin sofatik jaikitzea. Kanpoko atera iritsi direnean, Aingeruk lotsatuta hitz egin du:

– Eskertzen dizut hau guztia kontatzea.

– Zuzendariaren semea zara, baina pentsatzen nuen agian laguntzeko gogoa izango zenuela.

Nabarmena da Aingeru gustura dagoela, eta ez du isilik gelditzeko asmorik:

– Ni ere akordatzen naiz gurasoei buruz izan genuen elkarrizketa hartaz. Hura parranda ona izan zen, bai. Bueno, ona eta nahiko sakona; zilborrestea eten eta kontu horiek.

Norak ahaztuta dauka gau hura. Bulegokoen afaria izan zen, zepelin olinpikoa: ia denetik egin zuen, Hertzainak desentonatuta kantatzetik Lady Gaga gogotsuegi dantzatzera, garagardotik gintonikera, tartean Aingerurekin izan zuen elkarrizketa hura, zertaz

hitz egin zuten zehatz gogoratzen ez duena, tartean taxian botaka egitea, azkenean dutxa hotza hartzen lagundu zion Josuk, eta biharamunean aje galanta.

– Salmenta sailekoek Kontxan bainatzen bukatu zuten.

Aingeruk xehetasun handiz deskribatu du lankide bakoitza zer arropekin itzuli zen etxera, saileko batek kontatu omen zionaren arabera. Norak barre egin du, negar malkotan amaitu arte. Baina pasarte osoa zehatz-mehatz kontatu bezain laster, isil-isilik gelditu dira biak. Nora deseroso sentitu da bat-batean. Ez daki zer esan. Egoera luzatu denean, Norari nabarmena iruditu zaio Aingeru ere hitzen bila hasi dela, eta nahiko arin lortu du zerbait esatea:

– Hitz egingo dut nik aitarekin. Kontu hau uste baino azkarrago konponduko dugu.

12
Herrera eta Etxebe

Zain dago Herrera, batere sosegurik gabe. Azkenaldian bere egoera naturala hori dela dirudi. Are gehiago gaur. Gauerdiko albisteak entzun ditu irratian. Etxebe ez da ageri. Aspaldi honetan ahaztuta zuen galdera bat itzuli zaio Herrerari: Bakarrik gelditukо banintz munduan? Agian ez zait hainbeste falta horretarako, Etxebek nire bizitzatik alde egitea besterik ez, eta akaso ez da hain larria, edo bai, bada; orain neure buruari kostata eusten badiot, zer egingo nuke Etxebe desagertuko balitz? Batere heldulekurik gabe gelditukо banintz? Hasteko, etxea utzi beharko nuke, ordaintzeko gai ez nintzatekeelako, eta gurasoenera itzuli.

Eta Nora?, pentsatu du Herrerak; oraingoz egitasmoa baino ez da.

Sakelako telefonora deitu dio Etxeberi, baina erantzunik ez. Telebistaren kanalak banan-banan pasatu ditu intereseko zerbaiten bila, eta amaitzean berriro ekin dio. Herrerak badaki egun hauetan Etxebe beran-

du arte gelditzen dela bulegoan, lankideek etxerako bidea hartzen dutenean besteen paperetan eta ordenagailuetan usnaka ibiltzeko, baina inoiz ez da hain berandu iritsi. Harrapatu egin dute, pentsatu du Herrerak, azkazalen inguruan odola atera arteko zauriak egiten jarraitzen duen bitartean.

Sarrailan giltza hotsa entzun duenean, atera hurbildu da Herrera. Paretik korrika igaro zaio Etxebe, komunera. Belauniko jartzeko denbora izan du botaka egin aurretik. Herrerak kopetatik heldu dio, amak lehen berari egiten zion bezala. Zabuka joan da Etxebe ohera, Herrerak eskaini dion kamamilari ere uko eginda.

– Nondik zatoz?

– Bulegotik.

– Ordu hauetan?

– Kotxean bueltaka ibili naiz.

– Nora zindoazen?

– Inora ere ez.

– Etxebe, zer gertatu da?

Etxebe kostata hurbildu da ohearen ertzera. Jantzita zeramatzan kaleko arropek osatzen duten nahasmahasaren azpitik karpeta urdin bat atera du, egunero bulegoan inprimatu dituen paperak ekartzeko era-

biltzen duen berbera. Izen-abizenen zerrenda luze bat dakar paperetan.

– Berehala kaleratu nahi dituztenen izen zerrenda prestatu dute.

– Orduan, egia zen egoera txarra zela eta aztertzen ari zirela zurekin batera nor gehiago bota?

– Zer inporta du horrek.

– Hortaz, zertarako erakusten didazu zerrenda hau?

Etxebe zerrendako zenbait izen seinalatzen hasi zaio Herrerari.

– Elkarrizketatu egin nituen. Lasai hitz egiteko esan nien, dena isilpekoa zela, eta orain zerrenda honetan daude, baina gaizkiesaka aritu zirenak bakarrik.

– Zure elkarrizketetatik atera dituzte izenak?

– Jende gehiago ere badago, baina nire elkarrizketetan mihigaiztoa erakutsi zuten guztiak zerrenda honetan daude. Zer egin dut!

– Zuk ez zenien izenik eman, ezta?

– Kontatu nizun zer gertatu zen. Baina pentsa, zuk ere zalantzan jartzen duzu.

– Izen horiek ez dituzu zuk eman. Ez da zure errua.

– Baina jakin egin behar nuen zertan ari nintzen. Badakit zuk ere hori pentsatzen duzula.

Herrerak ez dio erantzun. Komunera joan da eta eskuetan dituen odol arrastoak garbitu ditu. Gosea itzuli zaionez, afaria prestatuko du.

Bilera-gela txikian esperoan dago Ibon K.

– Nire ordenagailuan ibili zara.

Etxeberen erantzuna hasperen labur bat izan da, eta segidan esaldi bat:

– Nire elkarrizketetako informazioarekin osatu duzue kaleratuen zerrenda.

Barrez hasi da Ibon K., baina berehala atertu zaio.

– Etorri errealitatera, Etxebe. Enpresa honetan denok ezagutzen dugu elkar. Nor kaleratu jakiteko ez dugu zure beharrik.

Etxebe jaiki egin da eta badoa aretotik, buruan bueltaka darabilena esandakoan:

– Ezagutu zintudanetik iruditu zitzaidan zirku honetako pailazoa zinela, zure postutxoa mantentzeko edozein lelokeria egiteko prest, baina ez nuen espero nirekin horrela jokatuko zenuenik.

– Aitortzeko ordua iritsi denez, esan behar dizut esperantza banuela zure elkarrizketa horietatik kale gorrira bidaltzeko hautagairen bat edo beste lortuko

genuela, baina egia esango dizut: zure txosten horrek ez du ezertarako balio, ezta horretarako ere. Eta ea behingoz konturatzen zaren ez zaitudala nik bota. Nahiago dut zu bezalako inozo bat sailean, anbizio gabeko bat, eta ez labana eskuan ibiltzen den horietako bat.

Orbanez zipriztinduta du Herrerak gorputz osoa. Sofa egin du bere bizileku. Amaiezinak dira lo kuluxkak. Indarberrituta esnatu da gaur ere. Harrituta dago bere buruarekin. Bizitzan estreinakoz argi ikusten ditu gauzak, zer egin, nola, noiz; nolanahi ere iraganari buruzko hausnarketak dira, aldatu ezingo lituzkeen gertaerak, eta uste du horregatik iritsi dela egoera honetan zokoratuta sentitzera, baina orain ez du eserita gelditzeko asmorik.

Logelara joan da zuzenean, dena argitu arte hitz egitera: ordaindu ezin duten mailegu hipotekarioaz, funtzionatzen ez duen harremanaz, zereginik eta zentzurik gabe luze egiten zaion egun bakoitzari buruz. Ohean botata aurkitu du Etxebe, sukar galdatan dirudi, baina termometroan hogeita hamasei eta erdi

gradu. Herrera logelara sartzen sumatu bezain azkar, azken orduetako leloa errepikatu du Etxebek:

– Zer egin dut? Zer lotsa!

– Nahikoa da, Etxebe. Esan dizute zure txostenak ez duela zerikusirik kaleratuen zerrendarekin.

– Berdin du egia zein den. Elkarrizketatu nituenek zalantzarik gabe pentsatuko dute ni izan nintzela salataria.

Korrika altxatu da ohetik komunera. Herrerak logelako aulki batean eserita entzun ditu botaka hotsak. Pentsatu du Etxebek berriro esango diola kaleratuen zerrendak publiko noiz egingo dituzten zain dagoela, orduan ezingo duela kalera irten, beldur delako zerrendako norbaitek edozein bazterretan harrapatu eta iraindu egingo duela, umiliatu plazaren erdian, edo egurtu, eta gainera arrazoia eman beharko diola. Aitzitik, komunetik bueltan, Etxebe arrastaka eta mutu sartu da ohean.

– Nahikoa da, Etxebe. Jaiki eta segi bulegora behingoz. Bilatu informazioa, ekarri etxera eta horrekin zerbait egiten saiatuko gara.

Parranda amaigabe baten ajea balu bezala sentitzen da Etxebe. Salako bazter guztietan dauden paper mendiek buruko mina areagotu besterik ez diote egiten. Herreraren galdera etengabeek borobiltzen dute giroa. Egunak eman dituzte paper hauek irakurtzen. Orain informazio baliagarriena aukeratzen eta hurrenkera egokian jartzen ari dira. Etxeberen lana da, paper hauetan agertzen den gehiena Herrerari ezezagunegia zaiolako, baina Herrerak ez du horregatik isilik gelditzeko asmorik.

– Zer egingo dugu honekin?

Etxebek ez dio erantzun, ez duelako nahi berriro azalpenetan beste ordubete galdu.

– Nik Norari emango nioke –esan du Herrerak.

Esku artean dauzkan paperak erortzen utzi ditu Etxebek.

– Ezta pentsatu ere. Josuri emango dizkiogu.

– Nor da hori?

– Eskertzen dizut egin duzun guztia, Herrera, arrazoi zenuen, baina orain nire erara jarraituko dugu.

Nora iritsiko garen ez dakit, pentsatu du Etxebek, baina zorrak kitatzen hasi behar dut. Aje gorputzaldiak pentsamendu bakoitza bost aldiz entzutera be-

hartzen du, azkenerako zentzuzkoak izateari uzten diotela.

– Ez zaizu Nora batere gustatzen –leporatu dio Herrerak.

– Ez naiz bere asmoez fidatzen.

13
Aingeru

Makuluak eta txokolatea eskura dauzka beti. Medikuak hala agindu dionez, orkatilari atsedena ematen ari zaio. Egunez erdi lo, gauez ia esna, sofan erdi etzanda joaten dira orduak, pelikulak ikusten eta gutiziak jaten. Ama sarri joaten zaio sukaldeko lanak eta garbiketa egitera, nahiz eta bere etxean neskamea arduratzen den horretaz. Amak aldiro aholkatzen dio Aingeruri gurasoen etxera itzul dadila, bera bakarrik moldatzen ez den bitartean behintzat. Aingeruren iritziz, hitz horiek orkatilako bihurritua baino zerbait gehiago iradokitzen dute.

– Eskertzen dizut, ama, baina ez dut laguntzarik behar.

Ama sutu egiten da erantzun horrekin. Haren buruan botoi bat sakatzea bezalakoa da, automatikoki hasten baita diruari buruz hitz egiten: hondartza alboko pisu hau aitarena dela, senarrari eta biei zenbat kosta zaizkien bi semeen ikasketak, bidaiak eta gaine-

rakoak, familia zeinen garrantzitsua den. Aingeruri, ordea, gogaikarria iruditzen zaio gai hori, eta ama bere kasa isildu arte zain egoten da.

Gaur aita ere etorri zaio bisitan, umoretsu. Bere bulegoan izan zuten eztabaidaren ondoren, Aingeruk ez daki aita adiskidetzeko gogoz edo adarra jotzera agertu den.

– Sofan botata aspertzen bazara, segituan ekarriko dizkizut enpresako txostenak. Azkenean nirekin lan egitea erabakiko bazenu, ondo informatuta egotea komeni zaizu.

– Egia esan, enpresari buruz hitz egin nahi nuen zurekin.

Aita ezustean harrapatu du.

– Zertan dago amiantoarena?

– Zu ere kontu horrekin?

– Esan didatenez, kontua baino gehiago da. Badirudi enplegatu batzuk gaixotu eta hil egin direla.

– Asko gustatzen zaigu errua beste norbaiti leporatzea, mina uxatzeko edo gertatu zaiguna ez onartzeko, baina salaketa hori oso larria da.

– Egia al da esaten dutena?

– Inork ez daki. Gainera, zarata eragiten ari diren horiek dakite gutxien. Pentsa ezazu, Aingeru, enpre-

sako zuzendaritza bere baliabide guztiekin ari dela ikertzen eta oraindik ez dugula ezer zehatzik lortu. Aspaldiko kontuak dira. Ez da erraza informazio hori lortzea. Nik behintzat ez dakit ezer. Jakitekotan, tailerreko arduradunek jakingo dute, erretiroa hartu dutenek, agian. Ez fidatu bazterrak nahasten ari diren horiek esaten dutenaz. Bene-benetan zer gertatu zen jakitea baino gehiago interesatzen zaie errudun bat lortzea.

– Nik amiantoari buruz entzun dudanak zentzua dauka.

– Zentzua bai, jakina, baina hipotesi bat besterik ez da. Frogatu egin behar dugu eta horregatik ari gara ikertzen.

– Noiz jakingo duzue?

– Laster. Baina zu lasai, Aingeru. Interesa badaukazu, zerbait jakin bezain azkar kontatuko dizut eta, noski, enpresak akatsen bat egin bazuen, ahal den neurrian zuzentzen saiatuko gara.

– Pozten naiz hori entzuteaz.

Aita begira gelditu zaio.

– Eta zuk Aingeru, pentsatuko al duzu berriro nirekin lan egiteari buruz?

Semeak barre egin du.

– Baiezko bat bezala hartuko dut hori.

Aingeruk Coca-Cola ireki du, eta pantxineta zati bat eraman du ahora. Bitartean aita sofatik altxatu eta ahotsa garbitzen saiatu da, hitz egiten jarraitu aurretik:

– Benetan uste duzu tailerreko arduradunek, ingeniariek eta gainerakoek, material pozoitsua erabili zutela? Hobeto edo okerrago moldatuta ere, inork ez du nahi bere enplegatuei halako ezer gertatzea. Gainera, zeinek esan lezake zure enplegatuei gertatzen zaiena ez zaizula zuri gertatuko? Zuzendaritzakoek, ingeniariek eta horrelako jendeak ere tailerrean egiten du lan.

Oheak, komunak eta sofak osatzen dute egun hauetan Aingeruren bizimoduaren hiruki itxia. Ezin du itsasora sartu eta nekez irten daiteke kalera, sorbaldan duen minak makuluak denbora askoan erabiltzea eragozten baitio. Interneten ere ez du aurkitu benetan lasaitzen duen ezer. Eta haserretzen hasia da, gero eta bisita gutxiago dauzkalako. Ama ere gutxiago joaten zaio. Orain gurasoen etxeko neskamea arduratzen da hondartza alboko pisuko etxeko lanez. Zeregin horie-

tan ia bost urte daramatzan arren, amak bakarrik gogoratzen du haren izena.

Burujana da orain Aingeruren lan bakarra. Ez du ulertzen nola egon daitekeen hain bakarrik bera bezalako pertsona bat, bere ustez tipo jatorra dena, inoiz istilurik izan ez duena. Hala ere, barrutik daraman min hori gainditu eta harrapatzen duen pertsona orori ez dio joaten uzten, telefonoz nahiz bertatik bertara. Edozein huskeriari buruz solasean aritzeko gai da, eta gaur Nora du parean, aspaldi honetan behar adina lo egin ez duenaren aurpegiarekin, ziur aski amiantoari buruzko informazioa entzuteko gogotsu, baina Aingeruk ezin dio esan ezer berririk ez dakiela, eta horregatik azaldu dio tailerreko lehengo arduradunak ikertzen ari direla eta laster argituko dela dena. Nora sofan eserita mantentzea garrantzitsua da. Aingeruk aspaldidanik diseinatu ditu zerrenda mentalak: neskalaguna edo antzeko zerbait izateko hautagaiak biltzen ditu, lehentasunaren arabera sailkatuta, eta Norak bost urte inguru daramatza aurreneko bost hautagaien artean, bulegora lanera etorri zenetik, postuetan gora eta behera, eta horregatik zaindu du Aingeruk harekiko harremana, baita Chicagon egon den bitartean ere, tarteka mezuak idatziz, noizbait telefonoz

deituz, baina, paradoxikoki, une honetan Noraren hautagaitza berez inoizko baldintza okerrenetan dagoen arren (Aingeruren aburuz barkaezina da Norak justu orain erakustea bere aurpegirik zakarrena, Aingeru etxetik irten ezinik dagoenean), kontuan hartuta zerrenda mentalean egon diren gainerako hautagai ia guztiak desagertuta edo milaka kilometrotara daudela, Nora dago goi mailan.

Aingeruk bonboiak eskaini dizkion hirugarren aldian, ordea, Nora galderak, galderak eta galderak egiten hasi zaio, erantzun bat jaso eta alde egiteko presa balu bezala; eta orduan agertu da sentimendu hori, Aingeruk inoiz hain gordin sentitu ez duen beldur hori, hain zuzen gerta dakiokeen zerbaiti aurre egiteko gai ez izateari beldurra. Hausnartu ahala, ideia oso arraroa iruditu zaio, baina aldi berean erreala, jaten ari den croissanta bezainbeste, eskua burura eraman eta ahurrean gelditu zaizkion ileak bezainbeste, oso erreala, orain arte ezagutu duen ordena desagertzeari izu laborria, bere bizitza kontrolatzeko ahalmena galtzeari, eta bitartean Norak galderak egiten jarraitzen du, gero eta estuago. Aingeruk erantzun egiten dio, modu egokian bere ustez, baina oraintxe angustia hazten ari zaio eta min horren aurrean bakarrik

sentitzen da. Nori kontatuko diot? Nork lagun diezadake? Zertan ari naizen ere ez dute ulertuko.

– Hurrengo batean pisu honetara etorri behar badut –haserretu da Nora–, nahiago nuke erantzun zehatzen bat jasotzeko izango balitz, eta ez berriketarako soilik.

– Lagunak ginela uste nuen –erantzun dio Aingeruk.

Nora begira gelditu zaio denbora luzez, baina Aingeruk ez daki galdera gehiago egiteko den edo erantzunen bat emango dion.

Sakelako telefonoa itzali egin du, deirik jaso nahi ez duelako, etxetik irten dela inork jakin ez dezan. Asko kosta zaio etxe atariaren parean dagoen taxira iristea, azken egunetan sofan etzanda ez baita makuluekin gehiegi trebatu. Kalean ikusten badute, medikuarenera doala esango die, eta ez da gezurra izango.

Itxarongelan arretaz aztertu ditu bertan daudenak, eta ikusitakoa ez da lasaitzeko modukoa izan. Kontsulta barruan hondoratu egin da Aingeruk oraindik baztertu ez zuen esperantza txatxua: ez zela hain-

besterako entzun nahi zuen, joan zedila etxera lasai, baina horren ordez terapiaren egutegiarekin irten da.

– Ileak atzealdetik hartuko ditugu, gero aurrealdean jartzeko. Gazteagoa zineneko kalparra ia bere horretan suspertuko duzu.

14
Josu

Dutxako xaboien usaina aldean, patxadaz doa kale jendeztatuetan. Bare, sabelaldean korapiloa askatu baliote bezala. Petraltzen ari den eguraldia ere ederra iruditu zaio. Bilera aretora iritsi denean, nahiko berandu iritsi ere, gainerako lankideekin batera agurtu du Alberto Zuriarrain. Aurreko batean adostu zuten gai zerrendari ekiteko batere asmorik gabe, taldetxoka banatu dira bilera gelan daudenak, zurrumurru urduria burrunba bihurturik. Josu Noraren albora joan denerako, Ander, sindikatu marroiko arduraduna, ozen hasi da hizketan: hurrengo pausoak zeintzuk izango diren eztabaidatzeko, orain artekoaren aurkezpen moduko bat egiten ari da. Josuk ez du argi entzuten, bere ingurukoek tekelan jarraitzen baitute.

– Lankide eta senide mordoxka bat bildu garenez, une aproposa da erabakiak hartzeko –amaitu du Anderrek, baina alboan eserita dagoen Zuriarrainek begiratu ere ez dio egin.

Isiltasun deserosoa nagusitu da aretoan. Mutu gelditu dira taldetxoetako istiluak ere. Anderrek laburbildu egin ditu aipatu berri dituen hainbat kontu. Bukatu duenean are pisuagoa da isiltasuna. Azkenean ausartu da erretiroa hartutako gizon bat:

– Entzun dudanez, enpresak dirua eskaini die langile eta senide batzuei salaketekin aurrera ez jarraitzearen truke.

Nabari da Anderrek eta Zuriarrainek ez dutela ezer esateko asmorik. Hieratiko biak, ez diote elkarri begiratzen.

Gazte batek enpresaren bideragarritasun egoerari buruz galdetu du. Esan diotenez, denbora kontua besterik ez da kiebra jotzea. Gizon lodi batek, berriz, izerdi patsetan adierazi du, etorkizunean desagertuko balitz, enpresak ezingo lukeela kalte-ordainik ordaindu eta gaur-gaurkoz gai dela, baina berak ez daukala kontu horien berririk.

– Inork ez al daki ezer enpresaren diru eskaintzei buruz? –galdetu du lehengo gizonak.

Josuk ezin izan dio eutsi eta hitz egiten hasi da. Berehala konturatu da inoiz ez duela izan hainbeste jende arretaz entzuten. Lehenengo esaldietan sentitu duen beldurra gaindituta, egoerak hauspotu egin du

bere jarduna. Behin baino gehiagotan errepikatu du “egin dezakegu”. Bera izango ez balitz bezala ari da, hitzak uholdeka ateratzen zaizkio, bere burua konbentzitu du.

– Ez da berandu, benetan.

Adineko emakume batek oso artega azaldu du zerbait egin beharra dagoela, inork ez diela ezer oparituko.

Zuriarrainek mutu jarraitzen du mahaiburuan. Gizon lodi izerdituak berriro hartu du hitza:

– Argi dago enpresa honek ez duela asko iraungo.

Zuriarrainek baietz egin du buruaz.

– Ez al duzu esan ez zenekiela ezer? –galdetu dio gazte batek.

Bilera ez da gehiegi luzatu. Aretoaren sargoritik irten direnean, kaleetan tanta lodi bakan batzuk erortzen ari dira. Lehen paseoan zebiltzanen arrastorik ez dago. Nabari da udazkena hurbiltzen ari dela. Josu Noraren atzetik joan da eta honek zeharka begiratu dio.

– Gaur, Josu, pletoriko etorri zara.

Barre egin ondoren, afaltzera gonbidatu du Nora.

– Mila esker, baina gaur ezin dut.

Bazkaria bizilagunentzat ere prestatu duela dirudi, baina sukalde honetan hiru lagun besterik ez daude, mahaiaren gainean dautzan kroketa, kaneloi eta txipiroiei so. Ama zerbitzari aldartearekin hitz egiten ari zaie bi semeei. Prestakuntza lan gehien eskatzen duten jakiak aukeratu ditu, hori badaki Josuk, baita goiz osoan etxetik ez dela atera ere.

Anaiak ordenagailu bidezko diseinuari buruz diharduu etengabe, beste ezer entzuteko asmorik ez balu bezala. Azkenaldian elkarrekin egon diren gutxitan, jadanik ez ditu bere koadroak eta performanceak hizpide, ziur aski baztertu egin dituelako, baina gai haietara itzuliko balitz ere, etxe hartan inork ez lioke konturik eskatuko, aita ez baitago, eta dagoeneko Josuk ere ez baitu gogorik anaiari adarrik jotzeko. Akaso anaiak ez luke esango garai bateko “nik behintzat lizentziatura bat daukat”, Josuk ez lioke ihardetsiko adina ere baduela kontu serioagoetan aritzeko.

Amak postreen zerrenda luze eta landua azaldu die bi semeei. Flana anaiak eta arroz esnea Josuk.

– Ama, ez al duzu eseri behar?

Harraskako lanak bere horretan utzita jarri da ama mahaiaren inguruan. Zer gertatzen ari den ez dakiela pentsatu du Josuk. Eskuak izerditan sentitu ditu.

– Hasiko al da funtzioa? –eskatu die beste biei.

Anaia astiro mintzatu da, eta, sukalde batean hirurak bakarrik egoteko, ozenegi. Alberto Zuriarrainek telefonoz deitu omen die, ez dakiela ezer baina ez litzatekeela harrituko enpresako zuzendaritzak diru kopuru bat adostea eskainiko balu salaketak eta protestak amaitzearen truke.

– Baina orduan badaki zerbait, edo bere irudimena besterik ez da.

– Ez dakiela ezer esan du. Baina guri hori esan badigu, Josu, zerbaitegatik izango da.

– Albisteren bat duenean, deituko du.

– Guk zer pentsatzen genuen jakin nahi zuen –esan dio anaiak arnasa sakon hartu ondoren.

– Ikusten dudanez, zuek biek zer pentsatzen duzuen argi dago. Orain nik zer pentsatzen dudan jakin nahiko duzue, ezta?

Ama isilik dago, baina aldartea gogortu egin zaiola iruditu zaio Josuri. Ziur aski konfiantza du anaiak ni konbentzitzeko dauzkan aukeretan, pentsatu du Josuk.

– Ama, zu eta hiruron kontua da. Ondo dakizu hori, Josu.

– Nik Zuriarrain hori Siberiara bidaliko nuke ea han zer nolako laguntxoak aurkitzen dituen.

– Nora iritsi nahi duzu, Josu? –amak.

– Oraingoz, aitari eta gainerakoei zer gertatu zitzaien jakin nahi dut, eta enpresak dena aitortu dezala.

– Baina ez al duzu ikusten hori ez dela gertatuko, orain ezer adosten ez badugu, aurrerantzean ez direla hain otzanak izango?

– Otzanak izateko modu nahiko arraroa da zure ez dakit zenbat enplegatu pozoitzea.

– Agian ez digute beste eskaintzarik egingo –eten du anaiak.

– Zer eskaintza?

– Ez motz plantak egin. Denok dakigu Zuriarrainen papera zein den enpresa horretan.

– Eta gure aitaren papera zein zen ba al dakigu, Iñaki? Hainbeste goresten zituen laguntxoek akabatu dute.

– Entzun, Josu. Nazkatuta nago zu besteak baino askoz azkarragoa zarela entzuteaz. Eta oraingo honetan ni ez nauzu engainatuko. Badakit poztu egingo zinatekeela gure aita leku txarrean utzi eta gainera diru mordoxka bat jasoko bazenu, zuk arrazoia zenuela eta

aitak ez esateko. Zuen arteko betiko borroka izan da eta bataila bat behintzat irabazi egin nahi duzu, batailarik handiena agian, hildako baten kontra.

– Ikusten dut ez dakizula zer sentitzen dudan aitarekiko.

Isilik gelditu dira hirurak, zoruari begira.

– Uste dut, Josu, ez zarela ondo neurtzen ari zenbateko aukerak dituzun irabazteko, ezta zenbat irabazteko ere.

– Eskerrak zu ere aitaren semea zaren, familiaren ondarea zaintzeko.

Anaiaren aurpegian amorrua ageri da.

– Josu, diru beharra badaukazu, nik utz diezazuket eta bueltatuko didazu ahal duzunean, baina kontu honekin ez apustutan ibili.

Ama aulkitik altxa da eta bi ume txikiri bezala egin die oihu. Josuk lokian sentitzen ditu bihotzaren taupadak, izerdia bizkarrean behera. Amaren hitz ozenei bukaerarik ikusten ez dienez, Josu aulkitik supituki altxatu da kanporako bidea hartzeko.

– Zuek zer uste duzue? Orain jende guztiak nik baino hobeto al daki nik zer pentsatzen dudan?

Atea danbateko batez ixtear egon den arren, parez pare irekita utzi du, norbait atzetik badatorkio, bidea errazte aldera.

Belaunaren dardara ez da baretzen, itzali ezin duen alarma. Etxe-atari berberari eskaini nahi dio arreta osoa, nor aterako zain, eta arduragabe nabaritzen ditu belaunak bidaltzen dizkion seinaleak; eskuarekin igurtzi eta nahikoa. Eguraldi aldaketa izango da, errepikatzen du Josuk berekiko. Goizeko zazpietan hasi du eguna, amaren etxera kotxeko giltzak hartzera sartu denean. Aurretik jakinarazi ez dion arren, erosi berria denez inork ezagutzen ez duen bigarren eskuko C3 metalizatua hartu du, amak lanera joateko erabiltzen duena. Larunbat goizeko errepide hutsean barna, Josu 27. poligonoaren albotik gora eginez iritsi da Bidebietara. Luze joan dira orduak, loaren aurka borrokatzen, inguru hartako mugimendu bakoitzari adi. Bertan bukatu zuen aurreko gaua, portaletik berrogei bat metrora, goizeko ordu biak arte.

Ahoan darabilen txikleak markatzen du Josuren urduritasuna, erritmoa, orain azkarrago, mentazkoa, plastiko pusketa bat besterik ez ia, murtxikatzearen

murtxikatzez. Noiz aterako zara, pentsatzen du Josuk obsesiboki. Txepelkeriak aspertuta, abesti berberak hirugarren aldiz errepikatzen hasi direnean, irratia itzali duenetik, kotxearen erabateko isiltasunean, burujana hasi da, eta erremedioa jarri dio:

– Pizza bat, pizza bat mesedez.

Sakelako telefonotik eskatu du bazkaria, goseak ere burua nahasten diolakoan.

– Julio Urkixo kalea, bai.

Etxe-atarian joan-etorrian dabiltza bizilagunak eta bisitariak. Josuk oholtza baten gainean baleude bezala ikusten ditu, Josuren bizitza interpretatzen ariko bailiran, bi ume elkarri segika jostalari eta ama atzetik errietan, gizon bat pentsakor, bikote bat eskutik helduta, bi pertsona elkarren ondoan elkarri begiratu gabe, agure bat gurpil aulkian neska gazte batek bultzatuta. Borborka dago Josuren irudimena, Josu gurpil aulkian, bi belaunak igurzten, eta amaren hitzak: orain inor ez da etorriko zu salbatzera.

Zakar ireki du kotxeko atea, korrika irten da portalera, errepidea begiratu gabe gurutzatuz.

– Txanpinoiak, piperrak, hirugiharra.

Etxe-atarira iritsi denean, behar baino diru gehiago emanda konbentzitu du pizza banatzailea atezain

automatikoan 2B botoiari sakatu ez diezaion, eta segidan korrika txikian itzuli da kotxera pizza irenstera. Hondakinak pizza kaxaren gainean utzi ditu, eta kaxa alboko eserlekuan, amak kotxean zeuzkan eta Josuk miatu dituen paper nahaspilatuen gainean.

Arratsaldeko seiak arte ez da jaitsi Nora. Dutxatu berria dirudi, arropa zabala, pauso lasaia. Josu harengana joango litzateke, muxu eman, besarkatu, goxo egon Norari besarkatuta, aurpegia Noraren aurpegiaren kontra igurtzi. Baina Norak ez luke nahi. Gorroto du Nora. Kalean behera urrundu eta dagoeneko ikusi ezin duenean, kotxetik irten da Josu, eguzkitako betaurrekoak eta bixera jantzita, eta atzetik jarraitu dio. Leihoko kristalean bere isla ikusi du, bere buruaren parodia iruditu zaio. Nora autobusaren geltokira iristear denean, Josuk kotxera itzultzea pentsatu du, baina Norak aurrera oinez segitu duenez, tarte batean afixa bati begira dagoenaren itxurak egin ditu eta berehala ekin dio jazarpenari. Nora Mirakruz gainetik doa Groserantz. Josuk oihu egingo balio ere, kotxeen zarata ozenak eragotzi egingo lioke Norari ezer entzutea. Nafarroa hiribidetik hondartzara ailegatu dira elkarrengandik berrogeita hamar bat metrora. Monpas aldeko petrilean eseri da Nora, jende gutxien dagoen

lekuan, oinetakoak erantzita itsasoari begira, eta Josu aparkalekuko kotxe artean eseri da espaloiaren ertz batean. Luze joan da denbora. Apaldu egin da Josuren hasierako urduritasuna, Norak ez baitu ezer egin, itsasoari begiratu bakarrik. Ez da inor agertu Norarengana. Paseoan ikusi duen gizon herren batek atentzioa eman dio Josuri. Surflariak ez ditu ikusi ere egin nahi.

Ia zortziak dira Nora abiatu denerako, lehen baino pauso motelagoan, inora iritsi nahi ez balu bezala. Josuk sabelaldeko korapiloa inoiz baino estuago nabari du, eskuak izerditan blai. Zarataka hasi zaio telefonoa, Nora da, Josuk danbaka du bihotza. Nora dagoen aldera so egin du eta, bai, Norak sakelako telefonoa belarrian itsatsita dauka. Josuk botoi berdeari sakatu dio ia, baina pentsatu du: eta galdetzen badit ea ni naizen arratsalde osoan atzetik jarraika duena, ikusi egin nauela, edo hori iruditu zaiola behintzat? Atzera poltsikora sartu du telefonoa Josuk. Ez da berehala isildu. Nora hondartza gaineko paseotik doa, harik eta Gran Vían zebrabidea gurutzatu eta etxe-atari batean txirrina hiru aldiz jo duen arte.

Pentsamendu bat errepikatzen ari zaio Josuri, buruan danbor bat burrunban: ezgauza, ezgauza, ezgau-

za. Eskuetako izerdia aurpegiaren kontra igurtzi du. Ezgauza, ezgauza, ezgauza.

Ahots ezezaguna da. Isilik gelditu da luzaroan, eta une batez Josuri iruditu zaio telefonoaren beste aldean dagoenak eten egin duela deia. Lan mahaiko paperezko anabasaren aurrean eserita, Josuk bulegoan ikus dezakeen jende guztiari begiratu dio arretaz, telefonoz mintzo denetako bat adarra jotzen ari ote zaion jakin nahian.

– Bai? –esan dio ahotsak.

– Bai.

– Hor jarraitzen al duzu?

– Bai. Nor zara?

Josuk ez ditu inoiz zenbaki ezezagunen dei galduak erantzuten, eta hala egin du oraingo honetan ere, baina eguerditik hasita lau edo bost aldiz deitu diote telefono horretatik. Ia guztietan komunean harrapatu duenez, ez du erantzun, eta azkenean ordenagailuan lan atzeratu bat egiten ari dela telefonoa berriro joka hasi denean, logurak inorekin hitz egiteko kemena higatu dionean, hartzea erabaki du.

– Nor zara?

Izen bat esan du.

– Ez zaitut ezagutzen

– Zurekin hitz egiteko eskatu dit lagun batek.

– Nork?

– Nahiago du izenik ez ematea.

– Zer nahi duzu?

Telefonoaren bestaldean ahots berri bat entzun da urrunean.

– Zure laguna al da hori?

– Bakarrik nago.

– Jendeari telefonoz adarra jotzeko elkartu zara lagunekin?

– Ez da jolaserako kontua. Zure aitarena argitu egin nahi duzu, ezta? Ba uste dut emango dizudan informazioa horretarako erabil dezakezula.

– Zer informazio?

– Hobe lehenbailehen elkartzen bagara.

Berehala adostu dute hitzordua.

– Nola ezagutuko zaitut?

– Paper asko dituen karpeta batekin joango naiz.

Ezustean itxaropena hauspotu zaion arren, litekeena da ezertarako balio ez izatea, erdi ero bat topatzea, edo borondate oneko baina fundamentu gutxiko norbait. Ezin izan du bulegoko lanetako bat bera ere

egin, azkenaldiko dinamikari jarraiki. Pantailaren aurrean jarri edo paperen bat tarteka mugitu, aspaldi ez du lanik aurrera atera. Ez zaio axola, ez baitu uste une honetan ezer egin diezaioketenik, bere aitaren eta amaren semea izaten segitzen duelako oraindik, eta esperantza horrekin ibiltzen da bulegoan errari.

Loiolan egin dute hitzordua, Aldazabal tabernan, militarren kuarteletik ehun metrora. Ezezagunak tabernaren bukaeran denbora asko daramala dirudi, melokotoi zukua duen edalontzia paper mendi baten alboan. Josuk barkamena eskatu dio berandu iristeagatik, hamar minutu. Amaren etxean interneten zebilela joan zaio denbora. Garagardo zuria eskatu du, Hoegaarden, eta ezezagunarengandik ahal bezain urruti eseri da.

– Herrera –esan dio ezezagunak–. Horrela deitzen didate.

Ezezaguna bere esku hatz-luzeekin hasi zaio karpetan daramatzan paperak erakusten. Folio andana horretan denetik dago: nominak, pentsio planak, hainbat pertsonari buruzko txostenak, informazio pertsonala eta osasunari buruzkoa barne, eta enpresaren plan estrategikoak, besteak beste. Herrera deitzen omen duten horrek azaldu dio, paper horietan ez

duela aitari buruzko datu gehiegi aurkituko, baliagarria ezer gutxi, baina paper horiek erabiliz agian jakin ahal izango dituela kontu gehiago, baldin eta pertsona egokiekin hitz egiten badu.

– Esate baterako, nola lortu dute zuzendaritzakoek pertsona honi buruzko informazioa?

Bulegoetan lan egiten duen berrogei bat urteko gizon bati buruzko apunte oso laburrak dira, kontu pertsonalak: osasuna, iragana, enpresan dauzkan adiskideak, horrekin guztiarekin egindako profil eskematiko bat.

– Edo ikusi nomina hau eta tipo horren beraren pentsio plana. Arraro xamarra, ezta?

Urduri dago Josu. Paperek dardara egiten diote eskuetan.

– Ziur aski, informazio hau behar bezala erabilita, uste baino etekin handiagoa aterako diozu.

– Nola lortu duzu?

– Telefonoz esan dizut: lagun baten postaria besterik ez naiz.

Josu ez da fidatzen eta pentsatzen duen bezala azaldu dio Herrera deitzen omen duten horri, oso susmagarria dela bat-batean paraxutista bat bezala oso baliagarria dirudien informazioarekin agertzea, nori

eta berari, Josuri, lankideen artean ospe onik ez duen delineatzaile entxufatu bati.

– Informazio hau eman didanak badaki zenbat saiatzen ari zaren zure aitarena argitzen.

– Norbaiten kontrako mendeku hutsa da hau, ezta?

Barre etsia atera zaio Herrera deitzen omen duten horri.

– Ez nuke kontu hau hainbeste sinplifikatuko. Hala ere, mendekuaren alderdia lantzen hasi nahi baduzu, paper hauek ondo irakurri eta Zuriarrainekin hitz egitera joan zaitezke.

– Beraz, Zuriarrainek kalte egin dio informazio hau helarazi nahi didanari?

– Baietz esango nuke.

Josuk barre egin du. Tabernan dagoenetik konpultsiboki edan dituen hiru garagardoek lagundu diote mundua beste era batera ikusten.

– Uste dut mendekua osasuntsua dela; ni zalea naiz, baina ez dakit une honetan zer egin behar nukeen.

Begirada etxe-atari batean tinkatuta dauka Josuk, Zurriola hiribidea eta Gran Vía gurutzatzen diren lekutik hurbil. Igande goizeko kaleak hutsik daude, Donostia erdi lo. Udazkena da jadanik. Egunak gero eta laburragoak dira. Puntu beltz ugari daude uretan: surflariak neoprenoz jantzita. Aspaldiko partez inbidiaz begiratzen die Josuk; olatuen dantzan ero moduan ibiltzen zen garai hura etorri zaio gogora, batik bat giroa, ile horailduak, kamiseta koloretsuak, markak, eta surfeko taula beso azpian hartuta paseoan dabilen jende artetik ibiltzea. Baina kontu horiek amaitu dira tarte baterako. Medikuaren arabera belaunekoa osatu egin zaion arren, denbora gehiago beharko du surfa egiteko seguru sentitu arte. Gainera, orain badu arreta osoa eskaini beharreko zeregina. Jagole lanez bakarrik arduratu nahi luke, baina une honetan etxe-atarira baino beste alderantz okertzen zaio begirada. Hondartzan txakur bakan batzuk dabiltza korrika eta jolasean, jende gutxi paseoan. Josu umea zenean, etxeko laurak hara joan ohi ziren, orduan askoz txikiagoa zen Groseko hondartzara, ez Kontxara. Neguko zenbait asteburutan ere ibiltzen ziren han. Ama joaten ez zenean, aitak ez zuen ondo jakiten zer egin bi semeekin. Zuek jolastu, esaten zien. Josuk uste du agian lotsatu

egiten zela, ez zuela bere burua eroso ikusten berarentzat egokia ez zeritzon jarduera hartan.

Etxe-atariari begira daramatzan bi orduetan ez du joan-etorri askorik ikusi. Zeharka erreparatzen dio hondartzan gertatzen ari denari. Haur batek eman dio atentzioa: ostarteetan zehar antxeta batek hondar gainean egiten duen itzalaren atzetik dabil zoratu beharrik. Amak bazter batetik barrez zaintzen du haurra. Josuren umetako hondartza txiki hartan, aitak sarri ez zuen asmatzen bi semeekin nola jokatu, baina maiz agintzen zien zer ez egin, uda urrun batean itsasoak txakur hil bat ekarri zuenean bezala, puztua eta orbainez betea. Aitak ez zien ikustera hurbiltzen utzi.

Hondartzan dagoen ama horrek besarkatu egin du oihuka ibili den semea, baina hark inguruan dabilzkion itzalak seinalatzen jarraitzen du.

Josuk itxi egin ditu begiak.

– Ni nauk tontoa, tontoa, tontoa.

Begiak ireki dituenean, etxe-atarira begira gelditu da. Ez du ezer pentsatu nahi. Denbora asko eman du horrela. Azkenean, ideia bakar bat besterik ez du nahi bere buruan: oinak lurrean, Josu, ez ibili itzalen atzetik. Norantz jo erabaki bitartean, leku berean jarraitu du. Laster agertu da etxetik irteten aspaldi ikusi nahi

zuena: Aingeru Tolosa, Pedro Tolosa zuzendariaren semea, makuluen gainean hondartzarantz.

Josu bere kautan hitz egiten hasi da:

– Ez naute tontotzat hartzen. Askoz sinpleagoa da: tontoa naiz.

Txakur bat hurbildu zaio saltoka, ileak erabat bustita. Umetako gorpu hartaz akordatu da. Ferekatu egin du alde egin aurretik, etxe-atariaren zainketa behin betiko utzi baino lehen. Taberna bateko komunera joan da barruak hustera.

Horrela jarraitzen baduzu, ez zara inor izango. Esaldi horrekin amets egin du Josuk. Kalean zehar doa eta topatzen duen pertsona bakoitzak aurpegiratzen dio. Amak haserre esan dio. Norak mespretxuz. Lankideek indiferentziaz. Parrandako lagunak kez, jendez eta musikaz gainezka dagoen taberna batean bananbanan hurbildu zaizkio esalditxoa errepikatzera, kabroi halakoak, ezin ditu haien aurpegiak bereizi. Eta aitak, sofan eserita esan dio (Ez Indonesia eta ez Jamaika; kontratu iraunkorra egiten dizutenean, biok elkarrekin oporretan Londresera joango gara), baina be-

rehala aldatu zaio umorea, orain arduratuta dirudi: Ezin duzu horrela jarraitu.

Eserlekuan erdi etzanda dago Alberto Zuriarrain, parean duen garagardoa ahaztuta. Tabernan dagoen zaratarekin ere sendo entzuten da gizon honen ahotsa.

– Zuen aitaren kontuarekin ahal bezain azkar goaz. Arazoak dauzkagu.

Isilik eta patxadaz, Josuk urrundik bezala begiratzen dio sindikatu horiko ordezkariari.

– Ez zara horretara etorri, ezta? Oraingoan nor kaleratzea nahi duzu?

Hasperen egin du Josuk. Zuriarrain ondo eseri da eta ahotsa garbitu du, luze hitz egiteko prest.

– Josu, uste dut konfiantza nahikoa badugula. Beraz, azkenaldian behin eta berriro iritsi zaidan zurrumurru bat kontatu behar dizut, nahiz eta nik badakidan gezurra dela. Jendea esaten hasi da zu diruaren bila ari zarela soilik, enpresak eskaintzen duena baino diru gehiago nahi duzula, besterik ez. Enpresaren kalte-ordainak ez dituzula onartu nahi, eta zure jarre-

rak arriskuan jartzen duela azkenean adostasunen batera ailegatzeko aukera.

Josuk txalo txiki batzuk jo ditu. Zuzen begiratu dio Zuriarraini.

– Ez al zarete inoiz aspertzen inauteri honetan?

Zuriarrainek mehatxuzkoa izan nahi duen begirada jartzeko ahalegina egin du, baina erdibidean geldi-tu da, asko jota Josu zorrotz aztertu nahi lukeenaren jitea erakutsiz. Josu ondo pasatzen ari da. Ez da akordatzen noiz sentitu zen horrela azken aldiz, hogeita hamaika eskutik edukitzearen segurtasunez. Ez dizkio kartak berehala erakutsi nahi parean duenari, lasai gozatu nahi du Zuriarrain urduri ikustearen espektakuluaz.

Josuk bere irudia imajinatzen du Zuriarrainen begietan, bi ordu lehenago ispiluaren aurrean ikusi duen berbera, errealista izan nahi lukeen etsipen moderatuarekin: Josu, kaskamotz, burua soiltzen, zimurrak non agertuko diren nabarmen kopetan eta begi ertzetan, eta aurpegi iluna, barreak ere desagerrarazten ez duena, baina indarra, indarra aurpegieran, azal dezakeen kemenaren isla.

Nabarmena da Zuriarrain zabuka dabilela urduritasun eta haserre sentimenduen artean:

– Ez al didazu ezer esan behar?

Kartak banan-banan erakusten hasi da Josu: lehenik nomina bat.

– Zergatik kobratzen duzu hainbeste?

Hurrengo karta, pentsio plan pribatua.

– Zuzendaritzako askok gustura hartuko lukete zurea bezalako erretiroa.

Hirugarren karta, izenez betetako orri pila bat.

– Zerrenda beltz baten itxura hartzen diot nik, datu pertsonalez betea. Ba al dakizu nola iritsi zen zuzendaritzara informazio hau?

Gero karpeta erakutsi dio, antzeko formatua duten folioz gainezka.

– Beste garagardo bat eskatuko dizut? –galdetu dio Josuk.

Zuriarrain eserlekuan eroso nola eseri asmatu ezinik dabil.

– Zer nahi duzu?

Biak isilik gelditu direnean, tabernan dagoen buila inoiz baino ozenagoa da. Hasi gara hizketan, pentsatu du Josuk, azkenean.

– Niri zer interesatzen zaidan argi dago: enpresari buruz dakizun guztia. Kontua da zuk zer nahi duzun, ipurdia bistan gelditzea hainbeste estimatzen dituzun

lankideen aurrean edo benetan dakizun guztia niri kontatzea.

Tarte batez pentsakor egon ondoren, Alberto Zuriarrainek zabal hitz egin du. Hiru hitz erabili ditu gehien: hasieran desinbertsioa, gero birkalifikazioa eta azkenean krisia. Josuri ez dio inoiz tonu horretan hitz egin, umil antzean, xehetasun bakar bat ere ahaztu nahi ez balu bezala. Esaldi bat errepikatu du maiz:

– Hiltzen utzi dute.

Enpresaz ari da, hiltzen utzi dute. Funtsean nagusiek azken urteetan izan duten asmoari buruz aritu da Zuriarrain, eta proiektu horren porrot partzialaz. Anaitasuna S.A., Tolosa jaunaren enpresa, korporazio baten barruan dago eta talde horretan badago antzeko produktuak eskaintzen dituen beste enpresa bat, Laguniker, askoz eraginkorragoa, hara bideratu baitira baliabide onenak, baita ere langile fidelenak, eta Txekiako fabrikara eramango dute ekoizpenaren zatirik handiena, eta ia beste guztia azpikontratatu. Anaitasuna S.A. hirigunetik hurbileko auzune batean dago, lehen periferia urruna zena, eta udaletxeko adiskide batzuekin adostua zuten enpresa dagoen eremua birkalifikatzea, etxebizitzak eraiki ahal izateko baimena ematea, eta horretarako ezinbestekoa zen enpresak

kiebra jotzea, azken urteetan enpresa hiltzen uztea. Baina krisiak moteldu egin du dena.

– Langile fidelenak beste enpresara eraman nahi dituzte, beraz?

– Bai, baina orain inork ez daki noiz itxiko duten Anaitasuna S.A., bihar, etzi edo bi urte barru.

Josuk eserlekuan bizkarra beherantz irristatzen utzi du. Edaten ari den garagardo kaskarra gustura hartzeko modukoa iruditu zaio, freskoa eta indartsua. Bare sentitzen da, sabelaldeko korapiloa askatu balitzaio bezala.

– Joan aurretik, galdera bat besterik ez: zure ustez, nire aitak zer pentsatzen zuen bene-benetan zutaz?

– Ez dakit nora iritsi nahi duzun.

Josuk irribarrea erakutsi dio Zuriarraini, gero bostekoa eskaini, eta patxadaz alde egin du, abistuka, umetako kanta bat: Ni naiz kapitain pilotu, ni naiz kapitain pilotu, niri behar zait obeditu, obeditu.

15
Aingeru

Medikua ahotan hartuta iritsi da aita hondartza alboko pisura Aingeruri bisita egitera, semeak lortua zuen barealdia etetera:

– Horrela ezin dudala jarraitu esan dit medikuak, hobe dudala lana uztea, partzialki behintzat. Ez dugu une egokiagorik aurkituko zu enpresan hasteko.

– Chicagora noa bueltan. Itotzen ari naiz Donostian.

– Botata utzi behar nauzu?

– Orain ez gara hasiko nork nori laguntzen dion eztabaidatzen, ezta? Bi urte pasatu dira Chicagora joan nintzenetik eta orduz gero gauza bakarra eskatu dizut, amiantoarena argitzea, eta zain nago oraindik.

– Gauza bakarra eskatu didazu? Egia izango da agian. Eskatu gabe ordaindu dizkizut bidaiak, ikasketak, mantenua... Eta diruarekin zerikusirik ez daukaten gauza horiek, zer? Nor arduratu da ea ondo zau-

den jakiteaz eta arazoak izan dituzunean zure ondoan egoteaz?

– Gaia aldatu nahian zabiltza. Hainbeste ezagutzen zaitut. Ez duzu amiantoari buruz hitz egin nahi.

– Zuk daukazu azal gogorra. Ez baduzu nirekin lan egin nahi, zergatik interesatzen zaizkizu enpresari buruzko kontuak? Ez da zure estiloa zurea ez den zerbaitez arduratzea.

– Labana ahoan etorri zara gaur. Ba nik jakin nahi nuke nire aitaren enpresan jendea hil arte pozoitzen duten edo ez.

– Nor naizela uste duzu? Ez al nauzu ezagutzen?

– Baietz uste nuen.

–Ikertutakoaren arabera, oraingoz ezin dugu erabat baztertu garai batean amiantoa erabili zutela, baina ez dugu uste hala izan zenik eta, gainera, oso ziur gaude une zehatzen batean erabili bazuten, inork ez zekiela kaltegarria izan zitekeela. Agian baten batek okerrena opa die bere lankideei, baina inork ez du bere buruaz beste egin nahi lanean, eta badakizu tailerreko arduradunek, ingeniariek eta horrelakoek ere gainerakoekin lan egiten dutela. Benetan uste duzu norbait prest dagoela astean berrogei ordu edo

gehiago pasatzen dituzten leku batean pozoiarekin jolasean ibiltzeko?

Aingeruk bonboi bat jan du eta, beste eskuan galleta daukala, soseguz mintzatu zaio aitari:

– Haserretuta ez dugu ezer konponduko. Lasaitzea komeni zaigu.

Bonboi kaxa eskaini dio aitari eta honen aurpegiko keinua lasaitu egin da. Bat-batean sakelako telefono baten musika entzun da, aurreskua politonoan, eta aitak presaka eraman du eskua poltsikora.

– Pedro Tolosa naiz, bai. Nor da? –galdetu du kopeta zimurtuz–. Josu? Zer Josu?

Aingeruk antsiaz itxaron du telefono deiak iraun duen bitartean. Luze jo du. Tarte horretan aitak bai eta ez besterik ez du esan. Oso adi dago, telefonoaren beste aldeko hitz bakar bat ere galdu nahi ez balu bezala. Eta agurtu gabe eten du deia.

– Zer gertatzen da?

– Laneko betiko arazoak.

Aingeruk bonboi kaxa eskaini dio berriro.

– Ez, eskerrik asko. Bulegora joan beharra daukat, kontu hau lehenbailehen konpontzera.

Aspaldiko lagunen bisitak ezustean harrapatu du Aingeru. Atea ireki dienean, albiste txarren bat jasotzeko zain gelditu da, nahiz eta ez duen batere espero. Parean dituen bi lagunek, ordea, eskuan daramaten kaxa bana ondo eusten duten bitartean, imintzioak eginez agurtu dute Aingeru. Salara eraman ditu eta jatekoa nahiz edatekoa eskaini die. Ez du sukaldetik ekarri behar izan, egongelako mahaia donuts, txokolate, pizza zati eta Coca-Colaz beteta baitauka.

Praketan kabitu ezinik dago Aingeru, bi lagunak berarekin batera sofan eserita ikusita. Iñigo ez da asko aldatu, betiko tipo serio, arduratsu eta langilea dirudi; eta Iker ere berdintsu dago, zahartuta agian, baina ez dago jakiterik, aurpegia beti zimurtuta baitu, irribarretsu eta lokartuta gehienetan, nerabezarotik erretzen dituen artisau zigarro horien ondorioz. Zertan dabiltzan errepasatzeari ekin diotenean, ez dira zaharrak berri: lanpostu ezberdinak, etxe aldaketak, umeak. Gainerako lagunen berri izateko ere baliatu nahi du Aingeruk abagunea, eta bide batez bisitan ez etortzeko zer aitzakia duten jakiteko:

– Xabier bizi al da?

Iñigok eta Ikerrek elkarri begiratu diote eta, Aingeruk espero bezala, Iñigok egin du bozeramaile lana:

– Aita gaixotu zaionetik berarekin egoten da denbora gehienean.

– Ez nekien ezer. Inork ez dit ezer esan.

Iñigo eta Iker isilik gelditu dira. Aingeruk segituan ulertu du bi aurpegi ustez neutro horien esanahia: desagertu egin zara, nola jakingo zenuen. Aingeruk antsiaz itxaron du Iñigok egoeraren tentsioa baretzeko zerbait esatea. Ez da halakorik iritsi, ordea. Aingeruk mendeku txikitzat hartu du, onartu beharrekoa, orain-txe akordatu baita Iñigori ez ziola bisitarik egin belauna futbolean txikitu zuenean.

– Mezu bat ere ez diot idatzi Xabierri –saiatu da Aingeru.

Inora begira ez dauden beste bi lagunen isiltasuna pisuegia da. Bonboiak eskaini dizkie.

– Utzi hori, Aingeru, eta ireki itzazu ekarri dizkizugun kaxak.

Harrapari batek bezala heldu die kaxei. Kendu duen tapakiaren azpian harribitxiak agertu dira: txangurroz betetako hojaldrezko tartaleta, antxoa distiratsua tipulin eta piperrez estalia tostada gainean, ganbez osaturiko brotxeta, eta horien inguruan beste hamaika pintxo, Alde Zaharreko tabernetatik ekarriak.

Listu guruinak lehertzear, Aingeruk ez daki negar egin, lagunak besarkatu edo barre algaraka hasi.

Hitz bakoitzak tona bat pisatuko balu bezala erori da esaldia egongelan:

– Utzi egin beharko duzu pisu hau.

Aingeruk ezin izan du jarraitu txorizo ogitartekoa jaten. Ahoan dauzkan papurrak sofa gainera jausi dira.

– Ez nuen horrelakorik espero zugandik, aita.

– Alde batetik, poztu egiten naiz hori entzuteaz. Ikusten dut badakizula beti onena nahi dudala zuretzat. Baina beste alde batetik, argi utzi nahi dizut hau ez dela dirudiena.

– Ba oso ondo disimulatzen duzu.

– Badakit zaila dela ulertzea, baina benetan esaten dizut ez duela zerikusirik gu bion arteko gorabeherekin.

– Beraz, pisu honetan bizi ahal izateko zurekin lanean hasi behar dut.

– Sinetsidazu, mesedez. Gurekin zerikusirik ez duen arazo batek bultzatu nau zuri pisua uzteko eskatzera.

– Zer arazo da hori?

– Enpresaren ardura hartzen ez baduzu, ezin dizut kontatu, isilpekoa delako. Sentitzen dut.

– Ez dut ondo ulertu, aita. Zuk ni pisutik botatzeak badu ala ez du zerikusirik zurekin lanean hastearekin?

– Ez. Nirekin lanean hasi edo ez, pisua utzi egin beharko zenuke, baina enpresan sartzea erabakitzen baduzu, hobeto ulertuko duzu gertatzen ari den guztia. Bitartean, ezin dizut gehiago esan. Ez zaitut kakaztu nahi. Zaila da sinestea, baina zuregatik ere egiten dut.

– Nire alde egiteko modu bitxia benetan.

Azken aldia izango dela pentsatzeak izaera berezia eman die bisitei. Galera sentsazioarekin begiratzen die leihoaz beste aldeko hondartzari, itsasoari, euri zaparradei. Ez dago haserre, triste baizik. Ez du ulertzen nola gerta dakiokeen halakorik berari, inori kalterik egin ez dion pertsona bati. Zorte txarrari egotzi dio. Zer egin erabaki behar du, nora joan, eta bakarrik egotearen sentipena nagusitu zaio, inork ez diola lagunduko.

Nora izan da azken bisitetako bat. Galdera sorta ederra ekarri du oraingoan ere, baina aldarte ilunagoan dator. Aingeruk zalantzarik ez du Norari edozer gauza esanda ere, bietako inork ezingo duela gertatzen ari den ezer aldatu, eta horregatik ahalegindu da Nora sofan eserita mantentzen, egia eta sormena uztartuz. Edonola ere, Norak muturtuta alde egin du. Aingeru, aldiz, berehala hasi da Norarekikoak ahazten eta beste erronka bati heltzen.

Amara auzoraino joan da taxian. Gidaria haserretu egin zaio hojaldrezko palmera eta txokolatina bat jaten sartu delako kotxean. Itxaroteko eskatu dio taxistari eta bi minututan irentsi ditu kalearen erdian. Ez dauka kemenik eztabaida hutsaletan nahasteko. Gurasoen etxera ezin duela bueltatu erabaki du. Beraz, egokia iruditu zaio aitak Amaran aspaldi erosi zuen pisu hartara bizitzera joatea, aldi baterako, Donostian egin beharrekoak burutu eta Chicagorako itzulera lotzen duen bitartean.

Makulurik gabe irten da taxitik. Lehenengo urratsak dira, pentsatu du; laster etorriko dira garai onak berriro.

Klinikan ez diote beste aukerarik eman: ile inplanteak egiten hasi ahal izateko, aurretiaz ordaindu behar du diruaren zati bat. Aingeruk konforme dagoela erantzun die eta itxaropentsu joan da etxera, motel baina makulurik gabe. Kutxazainean dirua atera duenean, ordea, ikaraz konturatu da kontu korrontean 300 euro baino ez dauzkala. Inoiz ez dio horri arreta handirik eskaini, behar izan duen guztietan egin baitiote transferentzia.

Urduri hartu du telefonoa. Hurrengo hilabetean ordainduko duela esan dio klinikan telefonoa hartu dion ahots inpertsonalari, baina honek prozedura bere horretan bete behar dela gogorarazi dio: aurretiazko ordainketa lehenik, inplantea ondoren. Aingeru, minduta, kexatu egin zaio, ea ez diren fidatzen.

– Ez da pertsonala –erantzun dio telefonoaz beste aldeko ahots inpertsonalak.

Aingeruk sentitzen duena definitzeko abesti zahar bateko letra zati bat oroitu du: angustia existentziala. Baina, egia esan, ez daki ziur zer esan nahi duen, ezta bere egoera definitzeko egokia den ere.

Bihotza izan da arazoa. Aingeru korrika abiatu da taxia hartzera, herrenak uzten dion neurrian korrika. Buruan ozen errepikatzen ari zaio amaren telefono deia, ama negar batean. Taxistak berriro galdetu dio ea nora joan nahi duen. Ospitalera, ospitalera, ospitalera, erantzun dio Aingeruk, bere onetik aterata. Kotxez gainezka daude Donostiako kaleak. Azeleratu-frenatu, amaiezina egin zaio bidea. Ondoezik sentitzen da. Orain arte ezagutu duen mundua hondoratzen ari dela besterik ezin du pentsatu. Zer egingo dut?

Ospitalera iritsi denean, ama aurkitu du korridorearen bukaeran, metro koadro batean, alde batetik bestera kilometroak egiten.

– Zer moduz dago aita?

– Ez dakite aterako den edo ez.

16
Nora

Zurrumurruen bitartez jakin du Norak. Ez da ausartu zuzenean galdetzen. Dirudienez, sindikatu marroiko Anderrek dimisioa eman du, aurrerantzean ez da izango sindikatuaren ordezkaria enpresan. Sindikatukideekin izan dituen liskarren ondoren gertatu omen da. Esamesen arabera, eztabaidaren oinarrian dago enpresak amiantoagatik eskaini dituen kalte-ordainak onartzea edo epaitegien bidea jarraitzea. Baina Norari iritsi zaion esamesak ez du argitzen zein jarreraren alde dagoen Ander, eta, egia esan, Norak ez du jakin nahi.

Gaitz batek bestea ekarriko balu bezala, aste honetan bertan ospitalera eraman dute Manuel. Beheraldia izan du, eta frogak egin nahi dizkiote. Norak ikusi zuen azkenekoan bazirudien Manuel ito egingo zela aulkitik altxatu eta komunera arteko bidean.

Hau miseria, pentsatu du Norak. Josurekin hitz egiteko gogoa du. Egunak dira ikusi ere ez duela egin.

Norak benetan espero du Josuk aparrean segitzea, euforia aldarte horretan. Oso luzea eta iluna egin zaio Norari aste hau, lanean buru-belarri eta, hala ere, ezin Josuren aita burutik kendu. Aurrerapausoak eman ahal izateko, Norak uste du ezinbestekoa dela zenbait pertsonarekin hitz egitea, baina nahiago luke etxean sartu eta hilabetean inor ez ikusi. Etxean dagoen bakoitzean, ordea, pipiak itotzeko plastikoz estalita dauden altzariez inguratuta, mudantza baterako prestatzen ari dela besterik ez zaio bururatzen, ezin duela etxe horretan bizitzen jarraitu.

Josuk oraindik ez die telefono deiei erantzun.

Etsipenean erortzear abiatu da harantz. Kostata lortu du hitzordua. Aspaldian Aingeruk ez dio telefonoa hartu eta, azkenean, erantzun duenean, haserre antzean azaldu dio ez duela nahi hitzordua hondartza alboko pisuan izatea. Norak, berriz, saihestu egin nahi du inork Aingerurekin kalean ikus dezan. Ados jarriko ez direla dirudienean, Aingeruk proposatu du Amara auzoko pisu batean elkartzea. Norak mesfidantzaz hartu duen arren, beste aukerarik ezean, baietz erantzun dio. Aingeruk ireki dio atea. Pisua hutsik badago

ere, egongelan sofa eta telebista daude ezerezaren erdian. Aingeru eta Nora sofaren alde banatan eseri dira. Norak bertan nor bizi den galdetu nahi lioke, baina galdera garrantzitsuagoei utzi die lekua:

– Zer moduz dago zuen aita?

– Oraindik ez dakigu ezer.

– Zu ondo al zaude?

– Ez da nire bizitzako momenturik onena. Donostiara bueltatu naizenetik hondoratzen ari naizela iruditzen zait. Egoera honetatik ateratzeko zer egin erabaki behar dut. Ez dakit aitak eskaini zidan lanean hasi edo Chicagora itzuli.

– Zer esaten ari zara? Amiantoarena konpontzen lagunduko zenidala esan zenuen.

– Batek ez du bestea kentzen. Nire lanak egin ditut. Dirudienez, oraindik ez dute argi amiantoa erabili zuten edo ez, eta, gainera, erabili bazuten, inork ez zekien amiantoa kaltegarria zenik.

Esaldi horren zain pasatu ditu Norak azken egunak, eta orain aukera dauka buruz ikasi dituen gertaera kronologikoak Aingeruri aurrez aurre azaltzeko, baina laburretik jo du:

– Erromako Inperioaren garaitik dago argi, pentsa, orain dela bi mila urte.

– Zientifikoki frogatuta dago?

– Duela berrogeita hamar urte, Aingeru, mende erdia.

– Orduan zergatik ez dago debekatuta?

– Osasunaren Mundu Erakundeak eta Europako Legebiltzarrak 1970eko hamarkadan eskatu zuten. Suedian 1982an debekatu zuten. Hemen ez. 1984an erregistro bat sortu zuten, amiantoarekin lanean zebiltzan enpresek izena eman zezaten, baina lau enpresatik gutxienez hiruk ez zuten jakinarazi. Azkenean, amiantoa erabiltzeko debekua 1999an onartu zuten hemen, baina 2002. urtera arte amiantoa lasai erabiltzeko aukera emanez; eta gainera, 2002. urtea iritsi zenean, debekua urtebetez atzeratzea erabaki zuten, ordura arte egin zituzten produktuak merkaturatu ahal izateko. Publikoki adierazi zuten arrazoia.

– Ez nekien ezer horri buruz. Lehenbailehen argituko dut aitarekin.

– Asteak daramatzazu hori argitu nahian.

– Eta zer gehiago egin dezaket?

– Gehiago? Aingeru, orain arte ez duzu ezer egin, gerotik gerora ibiltzeaz gain. Ez duzu pentsatuko bi hitz polit esatearekin dena konpontzen denik, ezta?

Ahotsa goxatuz, argumentuak epelduz, Aingeru gogotsu saiatu da Nora lasaitzen, baina sekula baino traketsago ari dela iruditu zaio Norari, bera ere akituta balego bezala. Norari ahitu egin zaio pazientzia eta aitzakiarik asmatzeko ahaleginik egin gabe joan da pisutik.

Atea gurutzatzerako, sakelako telefonoaren botoiak sakatzen ari da, azken egunetan etengabe baina alferrik egin duen deia errepikatzeko, behingoz erantzungo dioten itxaropenez, baina oraingoan ere ez. Segidan beste norbaiti deitzeko beharra sentitu du, eta Herreraren izena baino ez zaio bururatu. Igerilekuan elkartzea proposatuko dio, urduritasunak astintzearren, ondoren ogitartekoa jatera joateko. Ez dio inoiz ezer kontatu gertatzen ari denari buruz, laneko kontuekin zerikusia duen guztia baztertu egin duelako Herrerarekiko harremanean. Gaur azalduko dio.

Jakin-minak erretzen du Nora: Non sartu ote da Josu? Gehien behar dudanean desagertu da, pentsatu du. Telefonoa ez du hartzen eta bulegoan aspaldi ez da agertu, baina inork ez daki ezer, eta zuzendaritza-

koak ere ez dira kexatu; agian Josu ez dagoenean bere saileko giroa baketsuagoa delako?

Iluntzean Erriberako pisura joan da Nora, Josuk amiantoarena lehen aldiz azaldu zion lekura. Azaroko hotzak erabat hustu ditu kaleak. Portaleko txirrinari erantzuten ez dionez, bizilagun batekin sartu da, adiskide bati bisita egitera datorrela esanez. Josuren etxeko atea behin eta berriro jo duen arren, ez dirudi beste aldean inor dagoenik. Eskaileretan esertzea erabaki du. Umetan etxera sartzeko lepotik zintzilik zeraman giltza galtzen zuenean bezala, zain egon da ordu luzez, aurpegi ezagun hori noiz agertuko. Baina ez da inor etorri.

Hurrengo egunean Loiola auzoko Urbasa kalera joan da, Josuren amaren etxera. Hasieran telefonoz deitzea pentsatu du, baina amak hartzen badu eta Josu bertan ez dagoela esaten badio, egia denetz ziur jakingo ez duela aurreikusi duenez, zuzenean bertaratzea erabaki du. Amak harrituta egin dio ongietorria. Albiste txarrik ez dakarrela egiaztatu duenean, irribarre batekin eraman du salara eta konturatzerako txorizoa eta urdaiazpikoa atera dizkio. Norak itzulinguru-rik gabe aitortu dio Josuren bila dabilela eta ezin duela topatu. Amak hasperen etsiaz erantzun dio.

– Auskalo non dabilen. Baina, lasai, oraintxe jakingo dugu: deitu egingo diot.

Eserlekutik Norak urrun entzuten ditu telefonoaren bestaldeko seinale hotsak, eta halako batean Josuren boza. Norari nabarmena iruditu zaio Josuren ama tonu behartu batean hitz egiten ari dela. Ezin izan dio denbora askoan eutsi, elkarrizketa motza izan da.

– Non dago?

– Etxerako pinturak erosten ari dela esan dit, Secundino Esnaola kaleko denda horretan. Dendariarekin hitz egin behar zuelako moztu dit.

Nora korrika atera da, agurtu gabe, eta taxiari deitu dio sakelako telefonotik. Egia auzoan barna, berehala ailegatu dira Gros auzora, Secundino Esnaola kalera. Pipien kontrako produktua erostera sartu zen denda barrura begiratu du Norak. Hantxe dago Josu. Farolen argia baino gelditzen ez den arren, eguzkitako betaurrekoak eta bixera jantzita ditu. Espaloia gurutzatu du Norak eta bertan itxaron dio. Pintura pote handi batekin irten da Josu. Kale kantoian hondartzarantz hartu du Gran Víatik. Norak urrundik jarraitu dio. Zurriola hiribidera iritsi aurretik sartu da Josu etxe batera, Aingeru bizi den portal berera. Norari bihotza danbadaka hasi zaio. Etxe-atarian gelditu da, zer egin

erabaki ez dakiela. Lehenik hondartzako pasealekura joan da, itsasoko brisak aurpegia freska diezaion, baina gero eta urduriago sentitzen denez, berehala alde egin du handik, eta segituan iritsi da atezain automatikoaren parera, zain egotearen itxurak egitera. Bizilagun bat hurbildu den arte itxaron du eta berarekin sartu da. Bi aldiz pentsatu gabe igo da Aingeruren pisura. Etengabe jo du txirrina, etxea sutan balego bezala. Korridorean korrika gerturatzen ari diren pauso hotsak entzun ditu.

Josuk ireki dio atea, pinturaz zikindutako arropa zaharrez jantzita. Mutu gelditu da Josu. Norak orroka egiteko gogoa du:

– Ez da posible!

Josuk barrura sartzeko gonbita egin dion arren, Nora eskaileretan behera joan da. Kalea zapaldu duenean, paretari heldu behar izan dio, zorabioa sentitu baitu. Berriro berdin, pentsatu du, berriro zuloa. Ez da posible. Jende guztiak kale egiten dit.

17
Aingeru

Lore sorta txikia erosi du, bizitzan lehenengo aldiz galdetu behar izan baitu salneurria produktua erosi aurretik. Lasai egoteko errepikatzen dio egunero bere buruari, beti asmatu izan duela nola edo hala moldatzen. Ospitaleko atean, ordea, makuluekin dabilen agure bat ia aurretik eraman du (orkatilako lesioarekin erabili dituen makuluen markakoak iruditu zaizkio Aingeruri). Aurrera jarraitu aurretik, ezkaratzaren erdian gelditu da, harik eta burua ideiez hustu zaion arte. Arnasa sakon, oso sakon hartu du, eta eskaileretan gora abiatu da. Korridorearen amaieran aurkitu du Iñaki, erdi-erdian zutik, inguruko guztiaren jabe balitz bezala. Anaia du Iñaki, baina Aingeru Chicagotik itzuli denetik ez dute elkar ikusi. Beraz, hilabeteak daramatza harekin egon gabe, telefonoz hitz egin gabe, mezurik bidali gabe.

– Zer moduz dago aita?

– Hobetzen ari dela esan digu medikuak.

Hasperen luzea atera zaio Aingeruri, baina berehala konturatu da Iñaki begira duela, betiko talaiatik, eta gorroto du hori. Isiltasuna hautsi nahian hasi da Iñakiri galdezka, medikuak eman dizkien xehetasunei buruz lehenik eta amari buruz gero. Aingeruk aitaren gelara egin duenean, Iñakik kafetegira joatea proposatu dio, nahiago lukeela biak aitarekin hitz egitera sartu aurretik Aingerurekin zenbait kontu argitzea. Eskaileretan behera doazela, Aingeruk nabari du bi koska atzerago anaia bere pauso oraindik erdi-herrena behatzen, gorputzean pilatu zaizkion kiloen kopurua asmatzen. Kafetegian, Aingeruk ebakia eta anaiak hutsa eskatu dute. Iñakik itzulingururik gabe ekin dio:

– Aitaren zeregin gehienak nire gain hartzen hasi naiz.

– Anaitasuna S.A.n?

– Beste guztiaz arduratzeko ez dut astirik izan.

– Denbora gehiago beharko duzu. Eta zer gertatuko da Pasaiako... nola zen enpresaren izena?

– Izendatu dut nire ordezkoa.

– Dena martxan dago beraz.

– Zer iruditzen zaizu egoera horrela bideratzea?

– Ez dakit zer erantzun.

Iñakik baietz egin du buruaz. Harritu egin da Aingeru. Elkar ikusi gabe hainbeste denbora pasa ondoren, hain urrun eta ezezagun sentitzen duen anaiarengandik jarrera erasokorra espero zuen, are gehiago aitak hondartza ondoko pisutik joateko eskatu zionetik, aitak anaiari egoeraren berri eman ziola ziurtzat jotzen baitzuen Aingeruk. Aitzitik, bare dago Iñakiren aldartea. Garai batean izan zuen anaia dirudi. Akaso amak azalduko zion egoera.

– Donostian geldituko zara? –galdetu dio Iñakik.

– Oraindik ez dut ezer erabaki.

– Aita ondo jartzen den arte, ez arduratu horretaz.

– Sendatuko da?

– Ez dakit.

Jaiki egin dira. Kafetegitik irtetear daudela, Iñakik anaiaren sorbaldara eraman du eskua, eta estutu egin dio.

– Aingeru Tolosa jauna, pozten naiz zu berriro ikusteaz.

– Iñaki Tolosa jauna, gizakia baino hartza dirudizu.

– Halakoxea da nire indarra, bai –esan dio Iñakik.

– Ilearengatik esaten nizun.

Arrunta zirudien eguna oroitzeko modukoa bihurtu da Aingerurentzat. Orkatilarako errehabilitazio terapiara joan da lehenik. Medikuak esan dio, agindutakoa betetzen badu, ondo sendatuko zaiola. Azken asteetan hori egin ahal izateko kemena baino ez du izan. Gainontzean, sofan etzanda egon da, telebistaren argitxoek hipnotizatuta, txokolatea jaten. Ideia sinpleak eta ezabaezinak dabilzkio buruan, funtsean bi: batetik, inork ez du ezer oparitzen eta, bestetik, bakarrik nago munduan; eta honen eratorria: inork ez dit lagunduko. Eszenatoki aproposa dauka langintza honetarako: Amarako pisu desolatu batean ematen du eguna, hutsik dagoen sala handi batean, sofan botata, begiak telebistan. Eta, hala ere, errehabilitazio saiora joateko indarra bildu du gaur.

Klinikatik irten denean, Nora du zain. Agurrik ez, galderak soilik.

– Zer egiten du Josuk zure hondartza alboko pisuan?

– Nire pisuan? Nor da Josu hori?

Norak bultzaka bota du Aingeru paretaren kontra eta lepotik heldu dio.

– Ez dakizu zer nazka ematen didazun.

Aingeruk bultzada batekin urrundu du Nora.

– Erotu egin al gara?

Nora buelta erdia hartu eta klinikako aparkalekura abiatu da. Aingeru dudatan gelditu da hasieran, baina jakin-minak gaina hartu dio. Pauso herrenarekin, kostata harrapatu du Nora, kotxera sartzear dagoela.

– Kontaidazu nor den Josu hori.

– Sinetsarazi nahi didazu ez dakizula nor bizi den orain pisu horretan?

– Arrastorik ere ez. Ni Amaran bizi naiz, aurrekoan elkartu ginen pisu hartan. Hondartza albokoa aitarena da. Berari galdetu behar zenioke.

– Zuen aitak ezagutuko du Josu. Bulegoetan egiten du lan. Amiantoaren erruz hil denetako baten semea da.

Izen hori, Josu, ez zaio ezezaguna iruditu Aingeruri, nahiz eta ezin duen gogoratu noiz edo non entzun duen. Baina, halako batean, txinparta; itxuraz zerikusirik ez duten ideiak txirikordatu egin dira, eta espero ez zuen zerbaitez konturatu da. Lasaitasun uhin batek zeharkatu du Aingeruren gorputz osoa. Irribarrea irten zaio, kontrolik gabe.

– Burla egin behar al didazu? –galdetu dio Norak sututa.

– Kontrakoa, Nora. Azkenaldian ez naiz inorekin fidatu eta orain argi ikusten dut zeinen inozoa izan naizen. Uste baino errazagoa da dena.

Arin sentitzen da Aingeru. Aitak egia esan zidan, pentsatu du. Bat-bateko pozak gainezka egin dio.

– Zer esan nahi du honek, Aingeru, amiantoarekin benetan lagundu behar didazula?

– Ezin dut, Nora.

Etxeranzko bidea hartu du azkenean. Herrena ere desagertu zaiola dirudi.

Arraroak izan dira azken bi asteak. Aingeru bere irudimenean adiskidetu egin da aitarekin, orain ziur dakielako aitak hondartza ondoko pisutik joateko eskatu zionean, ez zuela bere borondatez egin, Josu izeneko horrek behartuta baizik; eta horrexegatik Aingeruk zalantzarik gabe erabaki du Amarako pisua uztea. Maleta pare bat kaleko atearen alboan daude, telebista kartoizko kaxa batean, sofa plastikoan bilduta. Aingeruren aitak erosi zuenetik hutsik egon den Amarako pisua, Aingeruren egonaldi laburraren ondoren, berriro paretak biluztuta gelditukо da, han inor inoiz bizi izan ez balitz bezala. Aingeruri jadanik ez dio espazio

huts horrek desolazio sentsaziorik eragiten, espektatibak beste norabait bideratu baititu: badaki adiskidetu bezain azkar aitak Amarako pisua baino erakargarriagoa den zerbait eskainiko liokeela. Baina, bestetik, bake egoera hori Aingeruren buruan bakarrik existitzen da, Aingeruk inori ez baitio ezer kontatu. Eta, gainera, aitak ospitalean jarraitzen du. Ez dago argi zer gertatuko zaion.

Poza eta lotsa sentitzen ditu Aingeruk aldi berean. Aita berreskuratu duela pentsatzen du, hori Aingeruk berak bakarrik dakien arren, eta lasai dago alde horretatik, baina badaki gertatu den guztia nola ikusten duen azaldu behar diola aitari, eta horrek ondoeza eragiten dio. Ospitaleko bisitetan itxura mantentzearekin nahikoa dauka momentuz. Jabetzen da beste nolabait esan beharko diola aitari pozik dagoela berarekin, harro dagoela beraien arteko harremanaz.

Antso Jakituna hiribideko lokutoriora joan da. Saiakera egingo du hirugarren egunez. Aitari mezu bat idatzi nahi dio helbide elektronikora, tontakeriarik esan gabe dena argitzeko, baina inoiz ez da hitzekin trebea izan. Mezua zer tonurekin hasi behar lukeen ere ezin asmaturik dabil. Ordubete pasatu denean, sakelako telefonoaren bitartez idaztea hobetsi du,

mezua laburragoa izan dadin. Poltsikoak aztertu ondoren, ez daki telefonoa non utzi duen. Korrika txikian joan da Amarako pisura. Larritu egin da, etxetik kanpora igaro duen denbora honetan guztian dei garrantzitsuren bat jaso zezakeela uste duelako. Ospitaletik ere iritsi zitezkeen albisteak.

Etxera sartu denean, pisu osoan bilatu du sakelako telefonoa. Alferrik, ordea. Han logela hutsak besterik ez daude. Maletak ireki behar izan ditu, arropa berriro nahas-mahasean utzi, eta azkenean aurkitu du telefonoa, galtza batzuen patrikan sartuta. Hamahiru dei galdu dauzka, amarenak denak. Berehala deitu dio, baina komunikatzen ari da. Anaiari deitu eta lehenengoan hartu dio: aitari alta emango diote hurrengo egunetan, osatzen ari dela berresten baitute frogen emaitzek.

Haizea dabilen leku batera joan da. Aingeruren asmo bakarra aitak aldaketa argi ikustea da. Aurretik bakarka frogatzen aritu da, lehenik etxean eta gero haizelekuetan, batik bat itsasoaren inguruan. Hainbat egunez zorro batean ezkutatuta eraman du ispilu txiki bat, inor ez dagoenean atera eta zer gertatzen den

behatu ahal izateko. Aingeruk gidatu du aitaren kotxe beltz distiratsu erraldoia, aita alboan duela. Egunetik egunera suspertzen ari dela nabari zaio, nahiz eta oraindik zurbil eta pattal dirudien.

Igeldoko jolas parke zaharrera iritsi dira. Igandea den arren, ia hutsik dago. Iraganeko eszenatoki bat dirudi. Aingeruk zuzenean eraman du aita aurrez pentsatua zeukan lekura. Balkoi itxurakoa da eta bertatik Kontxako badia ikusten da. Abenduko egun hotza da. Bortitz jotzen du haizeak. Aingeruk erantzi egin du txanoa. Aitari desafio eginez begiratu dio.

– Arrazoia zenuen, Aingeru. Ederki utzi dizute.

Badaki bere buruaren gainaldeak jadanik ez duela pinudi landatu berriaren antzik, haizeak astindu bakoitzarekin agerian uzten duen ile kalpar oparoa dela orain.

Igande goizeko txangoa Aingeruk nahi duen bezala amaituko da eta pozarren egingo du bueltako bidea. Mirakruz Gaineko jatetxe batean dute bazkaltzeko hitzordua amarekin eta anaiarekin, dena ondo doakiela ospatzeko.

Eguna perfektua izan dadin, arratsaldean familiari gero arte esan eta bakarkako plana programatu du: itsasora sartuko da berriro, olatuen dantzan ibiltzera.

Biharko lasai egon behar du, lanari ekingo baitio Laguniker enpresan. Iñaki, anaia, lehengo zereginetara itzuli aurretik ondo moldatuko da bera bakarrik Anaitasuna S.A.rekikoak egiten. Aingeruk nahiago du berehala hasi egunen batean zuzenduko duen enpresa ezagutzen.

Kotxearen maletategian darama neoprenozko jantzi berria. Atzo erosi zuen. Ezingo du sartu beti erabili izan duen tamainakoan, harik eta gerribuelta bere onera etortzen zaion arte. Sasoia azkar lortzea espero du. Hurrengo erronka handia txokolatea uztea izango da.

18
Etxebe eta Herrera

Arropa lisatzen ari da Etxebe, komuna garbitzen Herrera, etengabe errepikatzen duten mugimendu zikliko-ari jarraituz, etxea anabasaren sorburua izateari utzi eta txukun jartzeko bidean. Agian azken aldiz etxe honetan, pentsatu du Etxebek; eta oraingoz hobe horrela. Lehen ez bezala, gaur plantxan jardutea maratoia bukatzea baino gehiago kostatzen ari zaio Etxeberi, gorputz osoan beruna itsatsita daukala ematen du, baina Herreraren aurrean ez zaio aitzakia okerrena iruditzen kalera ez irteteko. Herrerak ia sinetsarazi dit inork ez nauela egurtuko, inor ez dela ni umiliatzen saiatuko, ez nautela irainduko, pentsatu du Etxebek, baina auskalo, niri normala irudituko litzaidake.

Herrera ozen hitz egiten hasi da komunetik, baina Etxebek ez dio ulertu eta ez da ahalegindu esaldi horiek argitzen, Herrerak inoiz ez bezala ekin baitio dena goitik behera aztertzeari eta Etxebek lehen baino gogo gutxiago baitauka bizitza disekzionatu eta gor-

din ikusteko. Azal lodi eta gogor bat eskertuko luke, mundutik babesteko gai litzatekeen mintz lanak egiten.

– Esaten ari nintzen, denbora gehiegi igaro dela eta ez daukagula paperak eman genizkion tipo horren berririk. Josu izena zuen, ezta?

Nekeak gaina hartu dio Etxeberi. Sofan etzan da.

– Paper horiek Norari ere eman behar genizkioke.

Alferrik izan diren ekimenen zerrendak sofara iltzatuko balu bezala sentitzen da Etxebe. Ez du Herrerari aurre egiteko indarrik.

– Oraintxe bertan deituko diot.

– Aurrez aurre hitz egingo dugu. Nik ere bertan egon nahi dut.

Lautada dirudi itsasoak. Neoprenoz jantzitako jendearen erdian, bat gehiago da Herrera, tarteka datozen olatuak harrapatzeko hortzak estutzeko prest, baina barealdiak luzeak dira eta gaur taularen gainean eserita ez du lasaitzeko modurik. Ideia batek bete dio burua: amaitu da partida hau, orain bakoitza bere etxera itzuliko da. Pentsamendu horretan kateatuta dagoen bitartean agertu da olatua eta alboko sur-

flariak lapurtu dio. Herrera ez da kexatu. Ezin du ahaztu bihar joango dela Etxebe bere aitaren etxera bizitzera, aldi baterako, eta etxe horretan denak ere punttu bat pozik, nork uka. Neure buruari iruzur egiten ari naizela jakingo ez banu, pentsatu du Herrerak, esango nuke oreka berri bat sortzen ari dela eta berriro Etxebek egiten dituela proposamenak. Etzi joango da Herrera gurasoen etxera. Gaitz erdi, pentsatu du, oraindik ere bertan ohe bat daukadalako. Egia auzoan erositako pisua alokairuan jarriko dute, diru horrekin hipoteka mailegua ordaintzeko. Enpleguren bat lortzen dutenean izango dute itzultzeko aukera. Bitartean gai izango dira egunero elkar ikusteko, garai batean, bakoitza bere gurasoen etxean bizi zenean, egiten zuten bezala.

Amaitu da partida hau. Etxeberekin hitz egin nahi luke Herrerak, xehetasun guztiak aztertu, balizko irtenbideak eztabaidatu, baina Etxebek lehengo lepotik du burua eta hori ez da inoiz gertatuko.

Olatu zapal batek murgilarazi du apar artera. Anabasaren erdian, hanka eta beso batzuekin korapilatu da, beste surflari bat aparretan galduta. Nahi baino gehiago kosta zaio azalera irtetea. Barkamena eskatu dio ondoko surflariari, arnasa itzuli baino lehenago.

Eta berriro barealdia. Berunezko zeruaren azpian itsaso lautada. Zama handia sentitzen du Herrerak. Berriro hondoratzeko beldurrez bizi da, orain dela bi urte bezala. Nora behar du Herrerak, baina hanka sartu duela iruditzen zaio: aurrekoan Norak Anaitasuna S.A. enpresan gertatzen ari zenari buruz zekien guztia kontatu zionean, Herrerak ez zion azaldu Etxebek informazio mamitsua lortu zuela; Herrerak ez zion ezer esan Norari, Etxebek hala eskatu ziolako, baina orain Herrerak Etxebe konbentzitu duenean, Josuk aspaldi jaso zuen informazioa azkenean Norari ere helaraziko diotenean, agian berandu izango da.

Eta bat-batean, ideia berri bat otu zaionean, Herrerari barru-barrutik gainezka egin dio kezkaren itolarriak. Baina zer egin dut!

Trakets abiatu da ertzera. Dutxatik pasatu gabe, korrika gurutzatu du hondartza. Kalean konturatu da jendeak zeharka begiratzen diola. Larri igo ditu etxeko eskailerak. Sofan botata liburu bat irakurtzeko ahalegina egiten aurkitu du Etxebe.

– Etxe osoa bustitzen eta hondarrez zikintzen ari zara.

– Isildu, Etxebe. Non utzi genituen Josuri eman genizkion paperen fotokopiak?

19
Nora

Ez du erantzuteko asmorik. Askotan deitu dio Josuk telefonoz, baina Nora ez dago hitz egiteko prest. Larunbat osoa eman du sofan etzanda telebistari begira, ezer askorik ulertu ezinik. Sakelako telefonoa egongelako mahai gainean dauka, dei galduz beteta: Josurenaz gain, aita, ama eta Amaiarenak. Beharbada aspaldi bizi seinalerik eman ez dielako hots egin diote. Nolanahi dela, une honetan Norak ez du ezer jakin nahi. Pentsatu gabe pasatu nahi luke asteburua. Ezin du, ordea. Dutxara sartu da sosegu bila, baina lehen bezain artega irten da. Normalean baino dotoreago jantzita joan da kalera. Norantza aldatu du maiz, akaso bidea luzatu asmoz. Norak ere ez du argi. Hondartza alboan amaitu du azkenean, surflariei begira, eta berehala iritsi da, orain dela gutxi arte behintzat, Aingeruren portala izan den horretara. Bizilagun batekin sartu da eta disimulurik gabe postontzietan dauden

izenak aztertu ditu. Ezagutzen duen bakar bat ere ez dago.

– Bazatoz?

Bizilaguna zain dago igogailuan. Erretzaile ahotsa daukan adineko gizon bat. Nora korrika txikian sartu da.

– Zu hirugarrenekoa zara, ezta?

Norak baietz egin dio buruaz.

– Aurrekoan zure senarrak galdetu zidan telebista kanalei buruz, ezta? Esaiozu antenistak konpondu duela. Orain bai, zoriontsuak izan gaitezkeela.

Gizonak barre egin du eta Norak frontoi baten oihartzunak bezala erantzun dio. Bigarren solairuan irten da gizona. Nora hirugarrenean, eta behean ate itxiaren hotsa entzutearen zain dagoen bitartean, giltzak atera ditu poltsatik, behekoak zarata metalikoa entzun dezan. Gero atearen aurrean gelditu da luzaroan harik eta igogailura itzuli den arte. Beherako bidean ustez dotore jantzitako amona batekin jaitsi da, pedigree garestiko txakur txiki bat besoetan daramala.

– Euria egin duenez, jende gutxiago ibiliko da paseoan –esan dio andreak–. Guretzat leku gehiago egongo da horrela.

– Jendeari asko gustatzen zaio hemen ibiltzea.

Txakurra arrapaladan irten da etxetik eta kaka egin du espaloiaren erdian. Emakumeak plastikozko poltsa bat hartu du eskuan. Hara, pentsatu du Norak, nork esango luke horrelako andre batek makurtzeko motiboren bat izango zuenik. Amona, ordea, plastikozko poltsa erortzen utzi ondoren joan da. Gorotza estali eta alde egin du.

Txirrina jo diote etxean, Bidebietan, afaltzen ari den bitartean. Herrerak barkamena eskatuz bezala agurtu du eta, pauso bat atzerago, Etxebek sekulako kopeta beltza dakar.

– Zerbait gertatu al da?

Nora azkena irten da bulegotik, egun osoa eman baitu atzoko zen lan baterako atzeratuta bidali dizkioten fakturazio datuak sartzen. Lan mahaiaren aurrean pasatu duen tunel luzea izan da azken astea, eta une honetan, etxean afaltzen ari den bitartean, bulegoko kontuak buruan bueltaka darabiltzalarik, arrotza iruditzen zaio beste guztia.

– Zurekin hitz egin nahi dugu.

Salara eraman ditu Norak eta mahaiaren bueltan eseri dira. Norak ez du egoera ulertzen: Herrera zain dago, bere eskuinera begira, Etxebek aurreneko hitza noiz ahoskatuko duen esperoan, baina egongela txiki eta soil hartan isilik daude denak, eta egoeraren zamak azkenean Herrerari eragin dio gehien.

– Kaleratua izan aurretik, enpresari buruzko informazioa lortu ahal izan zuen Etxebek.

– Zergatik bota zintuzten?

Herrera Etxeberen erantzunaren zain geratu da.

– Hori ez da garrantzitsua.

Herrerak presaka berrekin dio lehen esaten ari zenari:

– Informazio asko lortu zuen Giza Baliabideetako ordenagailuetatik. Besteak beste: aurki kaleratu nahi dituztenen behin-behineko zerrenda, enpleguen berregituraketa egitasmo bat, eta hainbat nomina eta bestelako diru ordainketak, tartean Zuriarrainena, eta puztuta dauden beste zenbait.

Ordu erdi baino gehiago behar izan dute azalpenak emateko. Burura etorri ahala, hurrenkerarik gabe, kontatzen ari direla iruditu zaio Norari, berak gustuko duen ordenaren arrastorik ez. Azalpena bukatu denean, ezer esan aurretik, Norak etxeari begiratu azkar

bat egin dio eta plastikoak besterik ez ditu ikusi, pipiak itotzeko altzariak estaltzen dituzten plastikozko poltsak, eta altzarietan egon behar luketen gauzak hala moduz biltzeko plastikozko poltsak bazter guztietan.

– Zergatik ez diozue inori lehenago ezer esan?

– Josuri kontatu genion orain dela aste batzuk.

– Niri ez zidan ezer esan –gaztigatu ditu Norak.

– Ezta beste inori ere. Ez dakigu zeren zain dagoen.

Norak bere irudimenean argi ikusi du nola helduko lukeen Josu lepotik, estutu, aurpegia kolorez aldatu arte; eta segidan irudimenak hurbilago ekarri du, eta egia balitz bezala ikusi du nola jaikitzen den eta aulkia eskuekin helduz nola hausten duen parean dauzkan bi pertsonen buruen kontra. Borborka dabilzkion irain guztiak jarraian bota nahi lizkieke, etxetik ostikoka bidali.

– Ba al daukazue esaten ari zaretenaren frogarik?

– Josuri eman genion –esan du Etxebek lehor.

– Fotokopiarik ere ez genuen egin –erantsi du Herrerak.

Norak une batez zalantza ere izan du gertatzen ari denaren egiazkotasunaz.

– Orduan, zertara etorri zarete nigana?

Herrera urduri mintzatu da:

– Agian zuk zerbait egin zenezakeela uste nuen.

Ez dute askoz gehiago solas egin. Berandutu egin da, zentzu askotan gainera, pentsatu du Norak. Jateko edo edateko ezer eskaini gabe eraman ditu Norak kaleko atera.

– Lehenago esan behar genizun –esan du Herrerak.

Etxebek ez du hitz egiteko asmorik. Distantzia motzean gutxienez hiru metroko aldea atera die beste biei eta igogailuaren botoiari sakatu dio. Bitartean, atea gurutzatzen ari dela, Norak Herreraren sorbalda ukitu du. Agian fereka zen, akaso kolpe txiki bat, baina Norari ez zaio batere argi gelditu zer egin nahi zuen eta, hala ere, Herrera lasaiago joan dela iruditu zaio.

Hondartza ondoko etxe-atarian dago berriro, baina oraingoan Norak ezin du asmatu aitortzeko moduko motiborik han egotea zuritzeko. Desosegu horri izkin eginez, igogailuan sartu da eta atsegina iruditu zaio adineko senar-emazte batzuekin eguraldiaz jardutea

Josuren solairuan irten aurretik, eta txirrina jo gabe igogailuan behera joan denean, Norarentzat ederra izan da portaleko atea ireki eta euria egin ondorengo itsaso usaina sentitzea, bi pauso emanez hondartzako pasealekura iristea. Lehen aldiz irudikatu du bere burua etxe hartan bizitzen, egunero inguru hartan bueltaka. Ideia erakargarria da.

Zebrabidean dagoela, kotxe batek errepidearen erdian dagoen putzua zapaldu eta Nora zipriztindu du. Ur zikina. Arropa hauekin kalean ezin duela jarraitu erabaki du. Umorea aldatu zaio. Agian estreinakoz jabetu da ezin duela horretan jarraitu. Herrerak jakinarazi ziona kontatu beharko du. Badaki enpresan ez daukala etorkizunik. Eta Josu ere hortxe dago. Norak bere burua engaina dezake, baina neurrian.

Anderrekin hitz egitea da aukera onena, Noraren ustez. Azken asteetan enpresan ikusi ez duenez, telefonoz deitu behar izan dio. Hariaren beste aldetik Anderrek lehor erantzun dio eta Nora, ezustean harrapaturik, ez da gai izan esan nahi ziona azaltzeko. Hitz gutxitan adierazi dio, agian zakar xamar, berarekin elkartu nahi lukeela.

– Bajan nago, Nora. Ez zait komeni bileretan ibiltzea.

– Ez nekien ezer.

Zer moduz dagoen galdetuko lioke, baina ez da ausartu. Horren ordez, orain elkartzea oso garrantzitsua dela esan du, eta lan orduetatik kanpo edozein momentutan eta lekutan bil daitezkeela. Anderrek ezetz erantzun dion arren, orain arte ezezaguna zitzaion desesperazio sentimendu batek bultzatu du Nora eta, bere ohituren kontra, egoskor tematu da. Eztabaidari eusteko indarrik gabe akaso, Anderrek gaur bertan elkarrekin bazkaltzea proposatu du. Cata izeneko tabernan adostu dute hitzordua, Egia auzoaren goialdean. Menuaren zerrenda bukaezina irakurtzen bukatu dieten bezain azkar hasi da Nora buruan darabilen guztia kontatzen. Anderrek muzindurik entzun du, lehenik babarrunak eta gero txipiroiak tintan gogotsu jan bitartean. Norak piper beteak amaitzearekin batera ahoskatu du azalpenaren azken esaldia:

– Jendeak jakiten duenean kaleratze masiboak egongo direla, piztu egingo dira.

Anderrek aspertuta dirudi.

– Zuri zer iruditzen zaizu?

– Egia esatea nahi baduzu, tarte baterako behintzat nahiago dut kontu hori bazter batera utzi. Orain artekoa nahikoa eta soberan izan da niretzat.

– Ez zara besoak gurutzatuta geldituko, ezta?

– Barkatu, Nora, baina zu ez zara jendea epaitzen hasteko pertsonarik egokiena.

– Zer esan nahi duzu?

Lehenago inoiz ikusi ez dion keinu bat du Anderrek aurpegian.

– Jende guztiak daki zuzendariaren semearen lagun ona zarela, ia elkarrekin bizi zaretela. Askotan ikusi zaituzte bere etxetik sartu-irtenean. Zuk bai daukazula azal gogorra. Bitarte honetan gure artean ibili zara, adiskidea bazina bezala.

Norari kosta egin zaio ulertzea Anderrek argi eta garbi azaldu diona. Ez da posible, pentsatu du. Barruak bueltaka hasi zaizkio, botagura sentitu du. Hitzak ahoskatu ezinik egon da bost minutuan. Norak uste du ez dela gai izango bizpahiru esaldi baino gehiago esateko eta, beraz, hitzak ondo aukeratzen ahalegindu da.

– Niri buruz nahi duzun guztia pentsa dezakezu, baina behintzat saiatu esan dizudana egiaztatzen eta, beharrezkoa bada, neurriak hartzen.

Anderrek hasperen egin du pentsakor gelditu aurretik.

– Gogo txarrez bada ere, egingo nuke, nahiz eta zuregatik ez izan, Nora, bestela ere saldukeriaz aspertuta nago eta. Baina ahaleginduko banintz ere, ez nuke ezer lortuko, enpresako jendearekin neukan harremana eten egin dudalako. Zuk hitz egin beharko duzu haiekin.

– Zu ez bazara nitaz fidatzen, zer pentsatuko dute haiek?

– Oraintxe bertan ez zait gehiegi axola.

Manuelekin hitz egitea beste aukerarik ez dauka Norak. Sindikatu horiko gainerako kideei dakien guztia kontatu dienean, behiek trenari begiratzen diotenean bezala so egin baitiote. Manuelek itxura osasuntsua dauka gaur eta Norak itzulingururik gabe azaldu dio Herrerak kontatu ziona. Besterik ez zela falta errepikatu du Manuelek behin eta berriro, baina Norari ez zaio iruditu Manuel gehiegi asaldatu denik. Ez dakit aurretik ere susmoak izango zituen edo ez, pentsatu du Norak, edo bere egoeran beste guztia ez zaion hainbesterako iruditzen. Norak ez du aukeratzat ere

onartu nahi Manuel jakinaren gainean egon zitekeenik, horiek Alberto Zuriarrainen kontuak direla pentsatzen baitu.

– Nola doa enpresako lan hitzarmena?

– Sinatzear dago. Badirudi orain arte izan dituzten baldintzak antzera mantenduko direla. Garaiak kontuan hartuta, ez da lorpen makala.

Norak ez dauka eztabaidarako gogorik eta zuzenean galdetu dio amiantoak gaixotutakoei enpresak eskaini dizkien kalte ordainei buruz.

– Tratu batzuk itxita omen daude jadanik. Hori esan didate behintzat. Baina nik neuk ez daukat berririk.

Norak ez daki sinetsi behar dionetz.

– Hortaz, Manuel, zer egin dezakegu kontatu dizudanarekin?

– Gaur bertan hitz egingo dut Zuriarrainekin.

– Zuriarrainek aspalditik daki kaleratuen zerrenda hori badagoela. Ziur nago berak ere zenbait izen erantsiko zizkiola, besteak beste, nirea azken asteetan. Eta berriro esango dizut: enpresak behar baino diru gehiago ordaintzen dio Zuriarraini, eta ez da opari bat.

– Zer egin dezaket nik?

– Urte askoan egin duzu lan enpresa honetan. Nik baino hobeto jakingo duzu zer egin.

Isilik gelditu dira harik eta Manuelek hitza berriro hartu duen arte:

– Ez dakizu zer gertatu zaidan aste honetan. Ilobak kezkatuta deitu dit. Hemengo amiantoaren berri badauka, noski. Beraiek ez daukate halakorik enpresan, baina soldatan plus bat kobratzen dute beren saileko lanen toxikotasunarengatik. Hiru lankidek utzi egin behar izan dute iloba dabilen saila, produkturen batek kalte egiten dielako. Osabari gertatu zaionez, iloba beldurrez dago ez ote duen berak nire egoera biziko hogei urte barru.

Nora orain eta hemen besteentzat adibide ona izatearen garrantziaz mintzatu da. Une batez ahaztu egin nahi izan du jendeak berriro kale egin diola. Orain dela garaia gauzak ondo egiteko errepikatu dio Norak, eta Manuelek baietz erantzun dio, oso garrantzitsua dela, baina azkenean bakoitza bere etxera joan denean, Norak badaki ez dutela ezer gehiago egingo, bukatu direla hemengo saiakerak, eta kaleratuen zerrenda noiz argitaratuko duten itxarotea besterik ez zaiola falta bere izena bertan irakurtzeko. Horregatik hasiko da bihar goizean beste lan baten bila. Sabelean ko-

rapiloa duen arren, perspektiba horrek ez du hainbeste kezkatzen. Okerrena, azken urteetan arrastaka eraman behar izan duen sentsazio horren itzulera izan da, mundu honetan bakar-bakarrik sentitzearena.

Etxekalte taberna gauez eta parrandan soilik ezagutu badu ere, arratsaldetan kafea hartzeko leku lasaia da. Gaur Josurekin egin du hitzordua. Nora propio iritsi da hamar minutu lehenago tabernara, inguruko inork entzungo ez dituen bazter batean hitz egiteko leku egokia hartzeko eta, bide batez, Josuk atea gurutzatzen duen momentutik arreta handiz aztertu ahal izateko. Nora harritu egin da Josuk hasieratik transmititu dion alaitasunarekin, ezer gertatu ez balitz bezala. Baina Norak egunak daramatza Josurekin izan nahi duen elkarrizketari buruz hausnartzen, ideiak argitzen eta ordenatzen, eta orain ez dago prest berak pentsatutako gidoia lehenengo esalditik ez hasteko:

– Denbora asko pasatu dugu berriro elkarri hitzik egin gabe.

– Bai, beti berdin gabiltza, urruntzen eta gerturatzen. Orain hurbiltzeko garaia izango da, ezta?

Esaldi horrek ez du Nora ezustean harrapatu, aurreikusi dituen aukeretako bat da. Lasai dago Nora, ezer espero ez duenaren rolean sartzeko ahaleginean. Josuren itxura berehala aztertu du: zurbil, baina ondo lo egindakoaren aurpegia, dutxatu berria, estreinakoz jantzi dituen arropak soinean, eta batik bat patxada, Norarentzat sinesgaitza baina eramanerraza den aldarte bare eta lagunkoia.

– Non ibili zara azkenaldian?

Josu lanpostu berriari buruz mintzatu zaio, beste enpresa batean omen daukana, eta parrandak eta ajeak ere izan ditu hizpide, baita surfa ere, aspaldiko partez surfa, egun nahasienetan ere itsasoan sartzeak zenbat lasaitzen duen, eta abar; baina Norak zarata besterik ez du entzuten. Lehen hitza ahoskatu duenetik imajinatu du Josu egongela berriko sofan etzanda, telebistak hipnotizatuta eta telefonoz pizzak eskatzen, etxetik ez irteteko, kalean nahi ez duen norbait topatzeko beldurrez, eramateko modukoa ez den zerbait leporatuko dion inorekin liskarrik ez izateko beti egin izan duena: desagertu.

Nora aspertu egin da etenik ez duten Josuren kontuekin.

– Galdetzen ez badizut, ez didazu esango: nola lortu duzu pisua? Badakit informazioa eman zizutela, baina horrekin ez zinen urrutira iritsiko.

– Bila jarraitu nuen. Badakizu egoskorra izan naitekeela. Originala den ezer ez dut aurkitu, beste edozeinek pixka bat ikertuz gero aurkituko luke, baina niri askorako balio izan dit asmo batzuen berri izateak. Adibidez, kontatu didatenaren arabera, enpresa desagerrarazi egin nahi dute, orubea birkalifikatu eta bertan eraiki. Badirudi hasieran etxebizitzak egin nahi zituztela, baina orain, krisia dela eta, eraikin publikoren bat egiteko asmotan omen dabiltzala.

– Galdezka hasi eta besterik gabe erantzun dizutela esan nahi didazu?

– Zuriarrainek aholkatu zidan zer ate jo.

– Bere diru sarrerei buruz hitz egin zenionean?

– Badakizu denok daukagula nondik heldu.

– Eta berak zergatik daki hori?

– Suposatzen dut Zuriarrainek informazio horrekin karta batzuk gorde nahi dituela poltsikoan, noizbait kalte egin nahi badiote, babes bezala erabiltzeko.

Norak bere baitan gorde du sentitzen ari dena, baina ez du gelditu nahi egia jakin gabe.

– Oraindik ez didazu kontatu nola lortu duzun pisua.

– Harreman sare horietan izen asko daude zikindu-ta eta azkenean denei komeni zaie ni bezalako inkon-trolatu bat baretzea.

– Mutu egotearen truke, etxea oparitu dizute.

– Ez nekien zure ustez ere hain indartsua nintze-nik.

– Indartsua zu?

– Indartsua naiz, bai, eta horregatik lortu dut beste enpresa batean lanpostu on bat eta, gainera, etxea bost urtez 200 euroren truke alokatzea.

– Merkea zara gero.

– Lortzeko aukera nuen guztia eskuratu dut.

– Hori ez esan behintzat.

– Denborak arrazoia eman dit. Zer gertatu da, adi-bidez, lan hitzarmenarekin?

Aste honetan egin dute lan hitzarmenari buruzko erreferenduma enpresan: parte hartze txikia eta baiezkoa nagusi. Norak ez dauka horri buruz eztabai-dan aritzeko gogorik, baina ezin izan du eragotzi ta-berna hartan mahaiaren bueltan nork bere rola bete-tzea: Josuk porrota nabarmendu du eta Norak, berriz, abstentzio aktiboa. Hilabetetako mozkorraldiaren ajea

bizitzen ariko balitz bezala sentitzen da Nora. Une honetan ez daki ziur nork zer pentsatzen duen zehazki, baina uste du argiago ikusiko duela egoera atseden hartzen duenean, denbora igaro ahala, eta tartean behar adina hausnarketa eginez gauza bakoitza bere lekuan ordenatzen duenean. Oraingoz bere rola betetzen ari dela besterik ez du sentitzen.

– Eskura izan genuen, Josu.

– Zure irudimenean bakarrik.

– Badakizu hori ez dela egia, baina utz dezagun horrela, mesedez.

Norak ez du jarraitu nahi non buka daitekeen ez dakien elkarrizketa baten bidetik. Aurreko egunetan diseinatu duen gidoiaren eskema berreskuratzen saiatu da. Alferrik, ordea. Josuk eten du ahalegina:

– Ez al zaizu inoiz burutik pasatu hondartza alboko pisu horretan bizitzea?

– Josu, mesedez.

– Ez zinateke nirekin gustura biziko?

– Biok jakin behar genuke hori ez dela posible.

Norari gaina hartu dio desoseguak, Josu bere alderantz lerratzen ari baita elkarrizketa. Norak alde egin nahi luke tabernatik. Horregatik erantzun dio hain

azkar Josuk luzatu dion afaltzeko gonbitari, ezetz, hitzordua daukala lagun batekin.

Urrunera begiratu gabe, hurrengo pauso txikia norantz bideratu badakiela irten da Nora: zortzietan Bulebarreko erlojuan, Herrerarekin elkartu, ogitartekoa jan eta zinemara. Norak ez du uste Herrerarekin hitzordu askoz gehiago egingo dituenik, baina oraingoz analgesikoa da. Atsedena besterik ez du behar, laster itzuliko da bere onera.

20
Josu

Londresko kaleak, ateri, zerua berunezkoa. Aita doa aurretik, bakarrik balego bezala, eta pauso bat atzerago Josu, pozik eta urduri. Jendetzaren erdian donostiar ugari ikusi ditu, gaztaroan ezagututako adiskideak. Bitxiak izaten dira kontu hauek, pentsatu du Josuk. Victoria Station inguruan dabiltza.

Aitak entzungor jarraitzen du aurrera. Serio dago, ez haserre, aurrez behin eta berriro egin duen bidea itsu-itsuan errepikatzen. Asteburu bakarra da, otu zaio Josuri; sekulako aukera da biontzat.

Portal zahar eta dotore batean sartu direnean, aitak poltsikotik atera duen giltzaz ireki ondoren, Josu konturatu da ez dela egia, baina aldi berean sinetsi egin du, aitak aspalditik daukala bigarren etxe hori. Eskailera ilun eta pikoak dira. Lauzpabost maila gorago doa aita. Orduan begiratu dio Josuri aurpegira lehenengo aldiz. Josu gustura dago: asteburu bakarra izango da, pentsatu du, sekulako aukera biontzat, berdin

du amets bat besterik ez bada ere. Eskaileretan gora joan da, eskua luzatu du eta eskua ukitu dio aitari, zeina ahopean esaldi bakarra etengabe errepikatzen ari den: Ez zara inor izango, ez zara inor izango. Bere buruaz ari da, hori Josuk badaki.

Ametsa izan da, noski.

Ohe handi batean esnatu da, azken asteetako ohean, baina oraindik arrotz egiten zaio. Balkoira irten da nagiak ateratzera eta itsasoa bare dagoela ikusi du. Hondartzan ez dabil inor. Dutxara sartu aurretik telefonoaren parean gelditu da, baina aurrera jarraitu du.

Audi A3 kotxe berrian eguneroko trafiko buxadurak jasan behar izan ditu. Anaitasuna S.A. aldera joateko gurutze-bidean zuzen segitu duenean, gaina hartu dio okerreko bidea hartu izanaren sentipenak, aurreko astean bezalaxe, baina ez da kezkatu. Ohitura kontua da, pentsatu du Josuk. Orain Anaitasuna S.A.ren taldeko beste enpresa batean lan egiten du, lankide ohi denek nahi luketen horretan hain zuzen, denek uste baitute etorkizun luzea izango duela, jada-

nik denek Anaitasuna S.A.ri aurreikusten diotenaren kontrakoa.

Bulegoak itxuraberrituta daude. Berdin izan zitezkeen Shanghai edo Chicagoko enpresa batekoak. Josuren lan mahaia ez da lehengoa baino handiagoa, baina ordenagailu honekin azkarrago aritzen da, baita interneten surfeko bideoak ikusten eta jaisten ibiltzen denean ere. Ez zaio nekezegia egin egokitu zaizkion zereginetara ohitzea, aurrekoen oso antzekoak baitira. Lankideek, ordea, beste era batera hartzen dutela sentitzen du, oraingoz bederen. Ez da erretiroa hartu duen enplegatu fidel baten seme burugaldua, ez da ordezkari sindikal horiak babesten duen erdipurdiko langilea, ez da Giza Baliabideetakoek liskarretatik urrundu nahi duten tipo xelebrea. Josu besterik ez da, duela gutxi hasi den hori, nahiko sinpatikoa, Kursaal ondoan bizi dena, bai, A3 gris metalizatu batean etortzen den hori, eta Josu pozik dago horrekin. Inori ez dizkio eskerrak eman behar lanpostu horretan egoteagatik eta, aldi berean, badaki tarte luze batean ezin izango dutela kaleratu, beti eskura edukiko baititu Tolosa familiari erakuts liezazkiokeen kartak, hogeita hamaika eskutik.

Sakelako telefonoa mahai gainean utzi du. Orain-dik ez du erabaki Norari deitzea ideia ona denetz. Hausnartzen duen bitartean, beste zenbait dei egin ditu, aspaldi ikusi ez dituen adiskideei.

Argazkia erritual batean bezala kokatu du apalean. Anaia eta biak ageri dira, umetan, Groseko hondartza txiki zaharrean elkarri besarkatuta. Arretaz aztertuz gero, argazkiaren bazter batean ama dago, oso de-senfokatuta, han dagoela antzematea ere ezinezkoa dirudi. Josuk aise imajinatzen du umeen aldera begira. Argazkiaren bestaldean dago aita, argazkilari, so, ezin asmatu umeekin nola jolastu baina haiei argazkiak atera eta atera. Josuk aspaldi ez du anaiaren berririk, haren deiaren zain dago. Laster egingo duela aurrei-kusi du, bien arteko haserrealdietan horrela gertatu ohi baita. Kezka ere sortu zaio, denbora askotxo pasa-tzen ari delako, eta, hala ere, bereari eutsi dio: rolak aspalditik daude banatuta, pentsatu du Josuk, eta nik deitzea hanka sartze handia izango litzateke.

Pauso batzuk atzera eginez, egongelaren ikuspegi zabalagoa dauka Josuk eta nabarmena iruditu zaio ko-kapenaren desegokitasuna. Anaia eta bien argazkia

beheko apal batera mugitu du, gutxiago ikusten den lekura, eta begiek parez pare topatuko duten mailan kokatu du beste argazki bat: Josu Brasilgo hondartza batean edalontzi koloretsua eskuan duela.

Telefonoaren ondoan eseri da sofan. Erabaki ezinik dabil Norari deitu behar liokeen. Azkenean, *Nora* jartzen duen zenbakira deika ari da, seinalea behin eta berriro nola errepikatzen den entzuten; Norak ez du hartu, eta Josu konturatu da ez duela Norarekin hitz egin nahi, baina seinaleari jarraitzen utzi dio, harik eta denbora gehiegi igaro delako eten den arte. Josuk arnasa sakon hartu eta hasperen luzea irten zaio.

Dutxa behar du, eguna eten eta berriro hasteko. Ur beroak, lurrunak eta xaboiak biziberritu dute. Ispiluari bizkarra emanez ireki du logelako armairua: G-Star kamiseta beltza (55 euro), Replay galtza bakero urdin ilunak (160 euro), Fly oinetako beltzak (140 euro), Diesel kazadora beltza (179 euro), eta poltsikoan Sony sakelako telefonoa (514 euro).

Zurriola hiribideko jendetza zeharkatuz abiatu da Alde Zaharrera. Gabonetako opariak erostera irten dira gehienak. Josuk ez du ezer bereziki pentsatzen, ez da gaizki sentitzen, egin behar lukeena egiten ari

da eta kito. Akerbeltz-en Franziskaner garagardo bat eskatu du eta kanpoan dauden eskaileretan eseri da, portuari eta badiari begira, ur beltz distiratsua eta farolen argia, Bahía de la Concha Marca Registrada. Berehala iritsi da Gorka bere aldarte speedikoarekin eta hiru edo lau aldiz besarkatu du: Aspaldiko! Haren atzetik ailegatu dira Borras eta Iker, garagardoa eskatzeko irrikatan, hitza elkarri janez, hasi da festa. Urko, Pulgas eta Agirre heldu dira, jende guztiari bostekoa eskainiz. Gaur da eguna. Beste hiru trago hartu dituzte Borrasen elkarte gastronomikora afaltzera joan aurretik. Urkok bakarrik lagundu dio afaria prestatzen, zerbitzatzen eta jasotzen. Mahaian, saltsa eta algara. Afaria irentsi egin dute eta antsiaz abiatu dira tabernetara. Vodka laranjarekin, gintonika, rona Coca-Colarekin. Festa, festa, festa. Josuk poza sentitzen du, munduari beste era batera begiratzen dio orain. Pulgasek sorbaldatik oratu du eta parranda latzenak gogorarazi dizkio: Ku zaharra, Ibiza, Bilbo, Donostian nonahi. Jendetzaren sargoriak izerditan busti du Josu. Bozgorailuak danbadaka, ezagutzen ez duen musika, betiko musikaren berdina, danba. Festa, festa, festa. Horrela bizi nahi dut, horrelakoa izan nahi dut. Komu-

nean elkartu dira Gorka eta biak sudurrak dantzatzeko: Donostia irentsiko nuke, ez dadila inoiz amaitu.

Bulebarreko Garagar-en sartu dira. Loretxu tabernan galdu dute Agirre, nerabe batekin solasean. Inork ez daki non dagoen Borras, baina Fermin Calbetoneko barraren batean imajinatzen dute, izerditan eta norbaiti belarria jaten. Gainerako guztiak garagardotegira inbasoreen aldartearekin murgildu dira. Whisky kolpeak. Pulgas berriro ari zaio Josuri ipuin zaharrak kontatzen: horailak, beltzaranak, ilegorriak.

Goizeko lauretan hasi da Josu. Betiko esaldiak berreskuratu ditu: *¿Crees en el amor a primera vista o vuelvo más tarde?* Estreinakoan ia arrotz egin zaio, baina segituan sartu da paperean, begiak kliskatuz, irribarre erdiarekin, edalontzi handia eskuan, G-Star eta Diesel-en babesa. Abordatu duen lehenengoak kopeta zimurtu dio ospa egiteko eskatu aurretik, bigarrenak patxadaz azaldu du bere zakilaren luzera eta burmuinaren tamaina alderatzen dituen galdera, eta hirugarrenak gustura hartu du; Josuk beste kontu pare bat esan dizkio, bere errepertoriokoak guztiak ere, neskak ez du alde egiteko asmorik, izena aitortu dio, baita beste zer edo zer azaldu ere, eta Josuri iritsi zaio neskari edateko zer nahi duen galdetzeko ordua. Elka-

rrekin doaz barrara. Sasoiko nago berriro, pentsatu du Josuk, sasoi betean nago.